



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Euskerazaintza

LXXXI Zenbakia • 2018. urtea-1

Euskalerriaren edestia IX

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpidesaria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafik.com

Laguntzaille

 **Bizkaia**


foru aldundia
diputación foral

<i>Atarikoa</i>	7
-----------------------	---

Euskalerrriaren Edestia

<i>Aurkezpena</i>	9
5. <i>Euskalerrriaren Edestian, IXn atalaren Sarrera</i>	10
6. <i>Frantziko Orleans´tar I Luis Felipe erregea edo ta Portugaleko errege I Karlos´en semeentzat, Braganzako I Luis Felipe erregea</i>	11
7. <i>I Luis Felipe´en bizi-kondaira</i>	12
8. <i>Frantziko Iraultza</i>	13
9. <i>1.793-1.815eko urte bitartean, I Luis Felipe´en erbestertzea</i>	13
10. <i>I Luis Felipe´en ezkontza</i>	14
11. <i>I Luis Felipe´en erregetza</i>	15
12. <i>Frantziko IIen Errepubliketa</i>	17
<i>Lenago sortu ziranak</i>	18
<i>Errepublika biak</i>	18
<i>Bigarren Errepublikatik, bigarren Kaisertzara</i>	19
13. <i>IIen Isabel erregeña lez, bere erregetzazko Aurkezpenaren sarrera</i>	20
14. <i>Oar txiki bat emen</i>	29
15. <i>IIen Isabelen ume aldia</i>	30
16. <i>Karlistadako guda onen Ondoriozko aurkeztaldi laburra</i>	31
17. <i>Euskalerrrian, karlistadako gudaren asiera</i>	32
18. <i>1.833-1.839ko urte bitartean, karlistadaren lenengo guda</i>	37
19. <i>Europak</i>	37
20. <i>OARPENA</i>	50
21. <i>Karlistaren Aldetik, aukeratu ziran guda-nagusiak</i>	50
22. <i>ZUMALAKARREGI ta IMAZ´tar TOMAS</i>	50
23. <i>Merino´tar Jeronimo Apaiza</i>	52
24. <i>Isern ta Maroto´tar Rafael</i>	54
25. <i>Orbe ta Elio´tar Jose Maria Baldespinako IIIen Markesa</i>	57
26. <i>Egia´tar Nazario</i>	59
27. <i>Gerge ta Yaniz´tar Juan Antonio</i>	60
28. <i>Kabrera eta Griño´tar Ramon, Morellako lenengo kondea</i>	60
29. <i>Gomez ta Damas´tar Migel Santxo</i>	61
30. <i>Gartzia ta Montoya´tar Jose Maria</i>	63
31. <i>Muñagorri ta Otaegi´tar Jose Antonio</i>	63
32. <i>Uranga´tar Jose Inazio tenient guda-nagusia</i>	65
33. <i>Gonzalez ta Moreno´tar Bizente</i>	65
34. <i>Alzaa</i>	65
35. <i>O´Donnell´tar Juan koronela</i>	65

36. O'Donnell'tar Karlos, Juanen anaia.	66
37. Barres ta Molard'tar Alfonso, prantzeza.	66
38. Sabatier'tar Alexis, prantzeza.	66
39. Ferdinand Henningsen'tar Karl Eskoziarra, Nafarroako zaldunen kapitana.....	66
40. Litxnowsky'tar Felix Maria Bizente Andres, Alemana.	67
41. Bon Goeben'tar Augusto, alemana.	68
42. Loning'tar Adolfo Alemana.	68
43. Karlhistaren gudal nagusiak, zerrenda lez aurkeztuta.	68
44. Kadizeko konstituzio edo jaurgo barriaren liberal kristino aldetik aukeratu ziran gudal nagusiak.....	69
45. Kastañon'tar Federiko.	69
46. Oraa ta Lekunberri'tar Martzeliño.	70
47. Baldes eta Noriegatar Jeronimo.....	71
48. Kesada'tar Bizente Jenaro, Monkaioko markesa.	71
49. O'Donnell'tar Leopoldo.	73
50. Fernandez ta Espartero'tar Baldomero, Bitoriako dukea.	73
51. Rodil eta Galloso'tar Jose Ramon, Rodilleko markesa.	75
52. Manzanedo eta Gonzalez de la Teja'tar Juan Manuel.....	76
53. Espoz eta Illundai ta Mina'tar Franzizko.	76
54. Jauregi ta Jauregitar Gaspar "Gipuzkoako Biriato" ta Artzaia"ren ez izenakaz ezagutu zana.....	80
55. Fernandez ta Kordobatar Luis.....	83
56. Narbaez'tar Ramon Maria.....	83
57. Eta zerrenda lez aipatuko dodazenak.....	84
58. Alde bietatik nortasun edo norkeriz ibili ziran gudal nagusi onein bidetik, berez jaiotzezko erri edo aberriaren "baitazko eritzietan", ondore lez agertzen diran ulermenak.....	84
59. 1.835ean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik, edestiaren aria ostera artuta.....	87
60. 1.837ko urtean Iraillaren 14an Andoaingo borroka.....	93
61. II In Isabel, 16 urte euki ebazanean.	99
62. II In Isabelen ezkontza.	99





www.euskerazaintza.org

**590.000
BISITARI**

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

Atarikoia 2018-1.

Berbak: lekua, tokia, gunea, aterpea, portalea, itzaurre..... prologoa..., aurkezpena... esangure deuskunaren izena da. Bidean ibilli aurretik, bidea zelangoa dan ikustea lez. Esate baterako Atutxa jaunak EuskalERRIAREN edestiari buruz egindako lanari begiratzea edo zelanbaiten aztertzea edo ta bertatik atara leikezan ondorioak argitutea.

Lenengo ta bein esan bear dot garrantzizko gaia azaltzen dala Atutxa Paulo Jaunaren idazlan onetan.

EuskalERRIA, Erri bat da eta edozein. Munduan egondako ta dagozan Erri artean, zarrena dala baiestatu leikenean.

Garrantzizkoa ez ezik, Pauloren lanaren erabilkera edo idazkerea dotoretasunez jantzita agertuten da. Mamintsua da gaiñera: gertaera, gudaketak, joan etorri, berbaldi, eta agiriz ornituta.

Gertaerazko eta erantzun andikoak diranez, zeaztasun zorrotzez, noz eta zelan osatuten diran, argi ta garbi dagoz ipinita. Nastu barik, eginkizun bakoitza bere jasokun iturriagaz lagunduta dator.

Atutxa jaunak aurkibide trinko ta eder batez zati bitan banatuten dau bere idazlan istoriduna.

Aurkezpen edo sarrera laburtxu baten ostean ekiten deutso. Lenengo zatiari: erdi aroko kontakizunari. Bigarren zatian Errege-Jaun bakoitzaren bizia eta eginkizunari.

Txalo beroak emonaz Atutxa´tar Paulo lanaren egilleari, edozein irakurleari eskatuko neuskio, irakurriaz batera, ausnartu eta aztertu dagiala bere kautan, EUSKALERRIAREN nortasuna gero eta ezagunago ta maiteago izan dagian.

2.017ko urtean LORTUKOAK, eta 2.018ko urtean LORTZEKOAK

Aurreko urteetako batzarretan izan dogun oitureari jarraituz, gaurko nire idazlan au gauza bi adierazteko izango da: Joan dan urtean zer egin dogun eta 18koan zer egin bear dogun.

Bi milla ta amazortzigarren urtean gagoz.

Lorailak lau daukozala.

Urtero lez, gure lanen aleak batuteko garaia eldu jaku.

Begiradatxu bat egingo dautsogu batutako orreri.

Lenengo ta bein, egin doguna ikusi eta gero zer, zelan jokatu geinken aurrerantzean.

Beti be gauzak ondo egotetik, obetu gurean.

LORTUAK:

Euskerazaleak Alkartek daukan etxean eta Aguraineko Klaretarren lekaretxean illeroko Batzarretan osotu dogu alkar lana geuk geure eralkietatik erdiak ordainduz.

Euskerazaleak-Alkartean gugaz egon diranak betiko antzera doaz.

Atutxatar Paulok bete dau Batzarreko idazkari lana gure agiritegian zaintzen da.

Urtean bitan argitaratzen dogu EUSKERAZAINTZA aldizkaria eta igaz be alan-txe egin dogu. Gai sakon eta naiko luzeakaz osotuta.

Gauza bat esan bear dogu. Ezin dogula luzatu Aldizkaria 100 orrialdetik gora. Arrazoi bigaitik: Bidalgoa askoz garestiago litzakelako batetik, eta bestetik ez litzakela sartuko daukoguzan eskutitz azaletan.

Alan da be esan bear, 100 orrialde gitxitzat joten dogula.

Interneteko lana be aitu bear dogu. Lan bikaiña zalantza barik.

Or agertzen doguz Euskerazaintzaren aldizkari guztiak.

Kardaberaz´en bilduma, Arrinda´tar Anes´en idazkiak eta liburuak, San Sebastian ta Zubillagatar Jose Marik (Latxaga) ta Latiegi´tar Bizentek Euskalerra ta eleizaren buruz idatzi dauzan liburuak, baita Umandiren Asmo Iztegia, iztegitintzan sartuta daukaguz, eta Goikoetxea´tar Iñakiren idaz-lanak be sartu genduzan.

Bizkaiko Foru Aldundiari diru laguntza eskatuaz.

Eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, idazle askoren liburu ta idazkiak sartuta daukoguz. Esate baterako: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Bizente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal, ZER eta Euskerazaintzaren aldizkariak eta abar.

Lan aundia da emen egiten dana. Aldundiaren laguntza be oso ona da.

Sartu doguzan idazkiak sartu doguzelako, mundu guztian lenengoak gara arlo onetan Euskerazaleen biztanleak 1.660.000 biztale baiño geiagorekin eta Euskera-zaintzarenak 590.000tik gora direzela.

LORTZEKOAK:

- 1.- Euskerazaintza Aldizkaria ateraten jarraituko dogu besterik esan ezean, urtean bitan.
- 2.- Euskerazaleak Alkartearen etxean eta Aguraineko Klaretar lekaretxean illero, jagokun illearen eguenean, batzarrak egiten jarraituko dogu. Batzar agi-rien ardurea Atutxatar Paulok daroa.
- 3.- Interneteko lanakaz be jarraituko dogu.
- 4.- Gure Batzarra, ontzat dago artuta Eusko Jaurlaritzan.

Amorrortu ta Barroeta´tar Klaudio



EUSKALERRIAREN EDESTIA IX.

Aurkezpena.

Euskalerriko edestiaren VIIIIn atalako sarreraño, ta sarrera orreitan gogoratzeko be, len:

-Euskalerrriaren demokrazizko Batzar legeak, nundik jαιο ta zelangoak izan ziran ikusten doguz.

-Geroago eta IVn gizaldian, zelan I Konstantinok, Erromatar Kaisertzaren maldaberea ikusita, ta Izadi onen giza ardi-talde lez bideratzeko, Kristau eleiztarrakaz katolikotasunean batzangotzeko aberkide-tuz, dogmaren arauz zinpetu zirala asmatu ebezan norkerizko lege guzti orreik, arik eta Godo´ak Vn gizaldian Erromatar kaisertza menperatu ondoren, katolikotasunezko erlijio orregaz jabetu zirala, Mauritarrak agertu ziran arte, ikusten dogu.

-Bai, Europako mendebal onetan bereala, Erromatar-Godo oneik katoliko aberkuntzaren erlijio barriagaz, euren etsai aundi Mauritarrak kanporatu edo baztartzeko alegiñetan:

“Godo onek ariñautik erromatarren ordegotza artu, eta Toledon ezarri eben kaisertzagaz, erromatarren ari orretatik, Europa, katolikotasunezko aberkuntzan batzangotzen asi zirala, arik eta Mauritarrak agertu ziran arte.

Frantziren lurraldeko Normandiaren ingurutan, keltiar-frankoek sarrerako erregetzaz gain, Naparroako erregetza sortu zala, eta erdiugarte onetan Naparroagaz batera Asturiaseko erregetza sortuz, ezagutzen zan Mundu au, katoliko erlijioan ezartzeko ari bidetik, zelan sortuko ziran, Leon, Gaztela ta Aragoiko erregetzak koloziariozko legeakaz, katolikotasun al-osokerizko menperatzaille edo goitik berako mende erazko legeakaz, gure Euskal Demokraziaren Askatasunezko legeakaz berdinkatzeko, gaurko egunerarte egin daben antzera”⁽¹⁾.

-Bai VIIIIn atalean bide batez, ta Kondaño´n omenez, berak ikertutako *“Las Confirmaciones y el Pase Foral”*aren lan ederra aurkeztu dogula, gure Batzarraren Lege Zarrak, argitasun geiagoagaz ikusi dagiguzan. Eta bai euskal lege Zar orreik daukien argi ta indar guztiagaz, Europa osorako ezarri gure zan aberkideko lege mendean batzangotuta, katolikotasunezko erlijio ori bere norkerizko barnetik agertzen diran, menperatzail eritizizko lege orreikaz, berdinkatzeko lagundu zedin. ***Ja noiz ezartzen garan, berezko ta benetako demokrazi baten zentzunezko itxuran, Europa ta Munduak eskatzen dauskuzenak zentzututzeko.***

-Foru Baimena edo zergaitik sortu zan Pase Forala be argitu gendun, Aragoiko IIIn Fernando eta bere emazte I Isabel katolikuak gero, Bizkaiko Jauntza edo Bizkaitarren Artekaritza artu ebenean, jakiteko zergaitik egin bear izan eben ainbesteko ziñezpen

(1) Mendebaleko Europa osoaren eritzia orduko denboratan, Euskalerrriarena izanda, Askatasunezko Demokraziarena izan zan.

edo zinkunde, Bizkaiko Jauntzaren ardurak erabilteko. Bai eta, nungo bidetik eta zergaitik agertu ziran gure Euskalerrira, atzerritar-jauntzazko lotura orreik.

-Argitasun orreik eginda, eta ikusita Europaren orokortasunean, katolikotasunezko aberkuntz ori ez zala lortzen inñundik inñora, erabilten ziran kolonizaziozko menperatzail legeak, euren almenezko mugaraino elduta, ibilgaitzezkoak biurtzen ziralako, guzur orreik, politikazko arazoak baiño besterik ez ebalako sortzen.

Eta alderantziz, erri-jaurkintzaren etorkizunerako denborak argi geiago bear ebalazako, Frantziko Iraultzan sartu giñan: *“ez etenbageko odoljarioaren gudakaz, ez bakezko alegiñakin al zan era bidez erabagitzeko, lortzen zana”*, katolikotasunaren sasi-jainko menperatzail lege orreik, ainbeste guzur utsagaz, lokaztu egiten ebena.

Eta Frantziko iraultzan sartu ondoren, lege zar guztiak kendu ta ainbeste gizon-emakumeai lepoak moztu *“Egia, Askatasun eta Bardintasun”* idazpuruzko izenean, alegiñ guzti orreik giza seme-alabaren eskubide guztien gaiñetik egin ziralako, ez zan lortu ezer.

Napoleon agertu zanean, leenengo errepublikea ezereztu ta legezko gauza guztiak leen erregeen alosokerizko agintaritzan eta katolikoan erlijiozko menperatzail legeetan ostera ezarri ebazalako.

5. *Euskalerrriaren Edestian, IXn atalaren Sarrera.*

Garrantzi aundiak euki ebazan Frantzian sortzen ziran gauzak, Europa, ta obeto esanda, munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako⁽¹⁾.

“Edestian zear, ainbeste millaka biderrez saioak egin eta gero”, aldi onetan Mundu au katolikotasunezko eritzi orreikaz bideratzen ebazan jakintsu aundiak⁽²⁾, frantzez gizarzteagaz saiatu ziran: *“Ta nundik batzangotu, ta artalde lez bideratu, Europako gizarte guztia, euren katolikotasunezko agindutara”*.

Euskalerrriarentzat zer ezanik ez, milla urte askotan demokrazien askatasunezko zentzua bere Baitan oituratuta sinis-bete orreik eukinda, Euskalerrriaren gizartea izan dalako, euren menpetasunezko saio orren aurkako etsai aundiena. Edo bakarra ?.

Katolikotasunaren aberkidetasunezko norkeriaren guzurrak Euskalerrrian, kalte aundiak egin dabez. *“Norkerizko aberkuntz orrein guzurrak, sasi-jaintasunezko maitetasun lez sartuta, ainbat maltzurrezko guzurraren lokatz artetik urten ezinik gabiltzalako”*.

Badagoz errigizartearen maillan be, katoliko edo edozein menpetasunezko batzango eritziaren aurka, berez prestatzen gaituen gauzak, norberaren gandik asi ta, batkatzaren ardurazko guzak diran: Aitaren-etxea, nor beren ezkon-etxea, seme-alabak, auzotasuna, erria, lurralde, ta norberen aberriko askatasunen zentzuzko arrazoiak zapaltzen dabezanean. Nai eta edestiko etorkizunean, or ibili bear odoljariozko ekintza gogor baten, goitik berako menpe eritzi orreik, ezarri gure dabenaren aurka.

Ez da txarrena ori.

Txarrena, 1.693ko urtetan konturatu ez egitea, JAUNGOIKO IRASLEAK Izadi oneri ipini eutsozan legearen aurka dabizela.

(1) Munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako = Europako Mendebal eta Ekialdeko lurraldetan beintzat, dan guztia edo erri guztien erregeak “Katolikotasunezko Aberkuntz orregaz lotuta geratu zalako. (2) Jakintsu Aundiak = euren ustez.

Orregaitik, eta gure Euskalerriko Edestiagaz aurrera egiteko:

-Frantziko I Felipetik asiko gara.

-Gero espainitarren II In Isabel erregeñagaz sortu ziranak ikertu ondoren, karlistadako gudatan sartzeko.

6. Frantziko Orleans´tar I Luis Felipe erregea edo ta Portugaleko errege I Karlos´en semeentzat, Braganzako I Luis Felipe erregea.

1773ko urtean Urrillaren 6an jaio zan Parisen, Frantziko erregetzan asken errege izango zan I Luis Felipe au. Iraultzaren ekintzakaz, Frantzia Laterritu eben frantzeza-ren konstituzio barriekin, *“frantzezaren errege”* izenburuagaz ipini ebena.

1.773ko urtetik 1.793ko urteraiño, Txantreseko Dukea izan zan.

1.785eko urteraiño izan zan Baloiseko Dukea.

1.789ko iraultzaren urtetan I Luis Felipe *“Égalité”* au, *“Txantres Uritar”* izenagaz be esagutu zan, Txantreseko Dukadoaren izen burua be eroaten ebalako, edo *“Égalité Fils”* ez izena be eroaten ebalako.

Eta 1.793ko urtetik, bere aita il zanean 1.830eko urterarte, Orleanseko Dukea, III In Luis Felipe´ren izenagaz.

1.830eko Uztaillaren 31tik, 1.830eko Dagonillaren 9arte izan zan frantzezen orokorrezko bigarren arduraduna.

Eta 1.830eko Dagonillaren 9tik 1.848ko Otsaillaren 25ko bitartean, bere aurreko alosokerizko errege Xn Karlos´eri, iraultzaren arduradunak Frantziko erregetza iztea beartu eutsosenan, I Felipe izan zan frantzezaren konstituziozko erregea, Andorrako Printzearen izen buruagaz batera. Erregetza orreri, Uztaillaren erregetza deituta, ille orren 30ean igon ebelako frantzezaren erregetzara.



Louis Philippe

Frantziko I Luis Felipe erregea, bere armaría eta bere izenpea.

I Felipe onen denboran, lantegi-gintza laster edo azkar ugarituteagaitik, aundi-kien⁽¹⁾ igoeragaitik, eta ezer-gabeko aiton-ume⁽²⁾ edo ta langilletzak⁽³⁾ sortutakoagaitik, ezagutuko zan bere erregetza.

I Luis Felipe onek bere erregetzan, izen-goitiko auekas ezagutu zan: “*Uritar Errege*”⁽⁴⁾, “*Diru Etxe Arduradunaren Erregea*”⁽⁵⁾ edo ta “*Kale Zoztor edo Kupel-Babes’eko Erregea*”⁽⁶⁾.

1.850eko urtean Dagonillaren 26an, Ingalaterrako ego aldean dauan Surrey’eko konderrian 76 urte eukazala il zan.

I Luis Felipe, frantzez konstituzioaren barriko erregeen aita, “*Philippe Égalité*” en izen buruagaz esagutu zan IIn Luis Felipe Orleanseko dukea, XVIIn Luis Frantziko erregearen leen maillako lengusua zan, eta ama, IIn Luis Felipeen emazte, Borbon’ar Luisa Maria Adelaida.

7. *I Luis Felipe’ en bizi-kondaira*⁽⁷⁾.

I Luis Felipe au, XIIIIn Luisetik etorten zan leiñukua zan, eta Orleanseko IIn Felipe aita ta Borboneko Luisa Maria Adelaidaren semea. Luisa Maria Adelaida au XIVIn Luisen leiñukua izanda.

Baloiseko I Luis Felipe onek, bere jaiotzatik euki eban ondorengotasunezko Jaun aundiaren izen buru ori, 1.785eko urtean bere aitite Orleanseko I Luis Felipe il zan arte. Ordutik aurrera Txantreseko Dukearen izen burua artuta.

1.781eko urtean, bere aita Orleanseko Duke IIn Luis Felipek, bere maitale izan zan Jenlis’eko Felizite idazlari eta jakin aundiko emakumearen eskuetan itzi eban, I Felipe semearen ikasketak bideratu egiezan.

Emakume onek, I Luis Felipeen errege seme au, irakaspidezko eraikera gogor baten ezarrita, arrotzasunezko izkuntzak ikasten ipini eban leenengo ikasketetan.

Eta I Luis Felipe au, bere artu emoneko izketetan, Aleman, Ingeles, Italiano ta Gaztelatar izkuntzazko arloetan, ondo baiño obetoko jabetza artuta egoan.

Jenlis’eko andereaurre onek, bere Felipe ikasleagaitik esaten eban:

Printzea zan, eta gizona egin dot berarekin.

Traketsa⁽⁸⁾ zan, eta gizon trebe bat egin dot beragaz.

Aspergarri eta gogaikarri bat izan⁽⁹⁾ zan, eta bioztun’ezko⁽¹⁰⁾ gizon baten biurtu dot.

Zeken eta zurkaitzezko⁽¹¹⁾ gizona zan, eta ezin izan dot biotz-oneko gizonean biurtu.

Politika maillan, nor berak gura dauan beste ezku-zabalekoa⁽¹²⁾ izango da, baiña biotz oneko⁽¹³⁾ gizona ez.

(1) Andikien = burguesia. (2) Ezer-gabeko aiton-ume = proletario. (3) Languillera edo languilletza = proletariado. (4) Uritar-Errege = rey ciudadano. (5) Diru-Etxe Arduradunaren Erregea = rey de los banqueros. (6) Kale-zoztro edo Kupel-Babes’ en Erregea = rey de las barricadas. Azkeneko izen au, 1.830ko urtearen iraultzan eta 1.848ko urtearen iraultzan, igon eta kendu ebelako erregetzazko aukititik ipini eutsoen. (7) I Luis Felipe’ en bizi-kondaira = Biografia de Luis Felipe I. (8) Traketsa = holgazan, torpe, grosero, toscó. (9) Aspergarri eta gogaikarri = Vengable, molesto, inoportuno, pelmazo, nauseabundo. (10) Bioztun = valiente, animoso, magnánimo, noble. (11) Zeken eta Zurkaitzezko gizona = avaro, roñoso, duro, insensible, insumiso. (12) Ezku-zabaleko = liberal y todo lo que se quiera. (13) Baiña biotz oneko gizona, ez = pero generoso no.

8. *Frantziko Iraultza.*

1.789ko urtean Frantziko Iraultzaren asikeragaz asi zan I Felipe´ren ikas bidea.

Bere aitaren antzera, iraultzaren babesle edo aldegille amorratua zan.

1.791ko urtean eta koronelaren guda-maillagaz, guda-dragoien 14n taldean alkar-tu zan.

1.792ko urtean guda asi zanean, General ordearen maillara igon eban, eta François ta Dumouriez´tar Txarlesek aginduten eban Iparraldeko gudaloztera bialduz, Balmy eta Jemappes´eko borrokatan egon zan.

1.792ko urtean Iraillaren 21etik aurrera antolatuz, 1.793ko Urtarrillaren 17an XVIIn Luis iltera zigortuz, eta 27ko egunean lepoa moztu eutsoenetik aurrera, sortu zan Frantzezaren Igo Errepublikeari: **“Urte-egun onetatik, 1.804ko urtearen Lorailan 18garren egun bitartean, egon ziran iru biltzar, eta errepublika antzeko gobernu ezber-dinari”** deitzen jako.

1.793ko urtearen Jorraillan, XVIIn Luiseri lepoa moztu eutsoen ostean, Dumou-riez Jenerala alde egin eban aurkaritzaren gudalozteetara, eta bere lagun I Luis Felipe joan zan lez, onek atzerrian egingo ebazan 1go Errepublika⁽¹⁾ ta Napoleonen kaisertza denborak, arik eta 1.815eko urtean amaitu ziran arte.

9. *1.793–1.815eko urte bitartean, I Luis Felipe´en erbesteratzea.*

I Luis Felipeen atzerritartasuneko denborak, estutasun aundikoak izan ziran di-ruen aldetik, errege sendi lez Frantzian euki zituzen ondasunak, baituta euki ebazalako. Bai eta bada ezpadan, bere izena inñundik agertu bage.

1.793ko urtearen Azillan, eta bere arreba Adelaida ta Jenlis´eko andere aurrenea-gaz, alkarrezko barriak eukin eta gero, Suiza aurrean, Rin-goiko Reitzenau´ko erritxoar-en eskolan egon zan irakasle lez.

Ikastetxe orren sukaldaria zan Banzori´tar Mariannegaz maite mindu zan, eta be-ragaz seme bat eukinda, berton jakin eban bere aita Orleanseko II Luis Feliperi, lepoa moztu eutsela.

1.795eko urtean, Eskandinabiatik egin eban bidai bat txangolari, eta orren ostean, onartu eban Ameriketara joatea, atxilotuta euki ebazan Antonio Felipe eta Luis Karlos anaiak askatzen ba ebazan.

Iru urte egin ebazan Ameriketako lurraldeetatik:

Leen aldiz Filadelfiara joan zan, askatu ebazan bere anaiakaz alkartuta.

Gero, Nueva-York eta Boston´etik be ibili zan Frantzez irakasle lez, bai ta gaur jatetxe zaarrena dan **“Union Oyster House”**ko ostatuan, bizi toki lez artuta.

1.797ko urtean Koz´eko lur muturra⁽²⁾ ikustera joan zan, eta bertan ikusi eban, zelan Eastman erria udaletxe bitan banandu zan. Udal batek, baleiteke bere omenez izatea, Orleanseko izena artu ebala.

Esan leike be, berton ezagutu ebala Orleanseko⁽³⁾ Snowtar Isaak, Ingeles txalu-pa-espetze batetik iges eginda, Ameriketaren askatasunezko guda denboratan.

(1) Igo Errepublikaren denbora = 1.792ko urtean Iraillaren 21etik, 1.804ko urtean Lorailaren 18rañño iraun eban. (2) Koz Lur muturra = Cabo Cod. (3) Orleáns = Frantziren Orleanseko Uri ta Dukearen lurraldea.

1.797ko urtean I Luis Felipe Boston´en egoala, Frantziko Laterrien aurka, fruktidorren 18n⁽¹⁾ eguneko matxinada egon zala jakin eban, eta bere ama erdiugarte onetara atzerritu ebela jakin ebanean, bereala arduratu zan Europara itzultzen, bere anaiakaz batera.

Ameriketako Orleansera joan ziran, gero Abanara joan, eta ortik peninsula onetara etorteko asmotan. Nai asmo orreik, beste erabagi bat artu bear izanda, frantzezak espaintarrakin gudan egon ziralako.

Abanara eldu ziranean, Ingeles itsas-ontzi baten eraso artu eta gero, urte bete baiño geiago egon ziran iru anaiak ontzi-txartelak aurkitu ezinik Europara etorteko, arik eta espainitar agintariak, Abanatik bota arte.

Ori ikusita, Baamas´erantza joan ziran, Eskozi-Barrira joateko, eta bertan, Ingalaterrako IIIIn Jorje´en seme Kent´eko Dukeagaitik onartuak izanda, Ingalaterraraño joan ziran gero, 1.800eko urtearen Urtarrillan elduta.

10. *I Luis Felipe´en ezkontza.*

1.808ko urtean, Palermoko kaian lurreratu zan Orleans´eko Dukea, Napoleonen gudako erasoaren ekintzagaitik, Bi Siziliko I Fernando erregeak, bere erregetza ezarri eban lekuan.

Nápoles artu eben Napoleonen gudalozteak, eta Napoleonek, Borbon´tar leiñuaren amaiera aldarrikatu ondoren, bere anai I Bonaparte´tar Jose ezarri eban lenengo Napoleseko errege le zeta gero espainitarren errege aulkian⁽²⁾.

1.809ko urtean Azillaren 25ean Palermon, I Luis Felipek, bere emaztea izango zan Bi-Siziliako Borbon´tar Maria Amelia Printzea ezagutu eban, I Fernandoren alaba zana, eta urte-egun oneitan ezkondu ziran.

Eta ezkontza onetatik 10 seme-alaba jaio ziran:

-1.810eko urtean Iraillaren 3an, Orleanseko **Fernando Felipe Dukea**, 1.842ko urtean Uztaillaren 13an il zana. Bere seme Orleanseko Felipe Pariseko Kondea izango zan, frantzezaren erregetzarako eukiko eban errege-naia.

-1.812ko urtean Jorraillaren 3an, **Orleanseko Luisa Maria** jaioko zan, Beljikako I Leopoldo erregearen emaztea izango zana, eta Beljikako IIIn Leopoldo ta Mexiko´ko Kaiser-Andrea izango zan Karlotaren ama zana. 1.850eko urtean Urrillaren 11n il zan Orleanseko Luisa Maria au.

-1.813ko urtean Jorraillaren 12an **Orleanseko Maria** jaio zan, Württemberg´eko Alejandrogaz ezkondu, Württemberg´eko Alejandroren (1.804-1.881) ama izango zana. 1.839ko urtean Bagillaren 6an il zan Orleanseko Maria au.

-1.814ko urtean Urrillaren 25ean jaio zan **Nemourseko Dukea Luis Karlos Felipe Rafael**, Bitoriako Sajonia-Koburgo-Gotha´gaz (1.822-1.857) ezkondu zana, eta Eu´ko Konde, Brasil´eko Kaiser Orleanseko Gastonen aita izango zana. 1.896ko urtean Bagillaren 26an il zan.

(1) 18 de Fructidor = duodécimo (12) mes del calendario Republicano francés y tercero del verano. Bere leen eta askeneko egunak, Dagonillaren 18 eta Iraillaren 16ko egunakaz bateratu egiten ziran.
(2) Bonaparte´tar I Jose = nacido en Corte y muerto en Florencia. Su hermano Napoleón le hizo rey de Nápoles entre los años de 1.806-1.808, y rey de España entre los años 1.808-1.813 con el sobrenombre de Pepe Botella. Se exilió en Suiza a la caída del imperio Napoleónico, volviendo durante los cien días de Napoleón, y exilarse después de Waterloo en los E.U., donde vivió entre los años de 1.815-1.832 bajo el nombre del conde de Survilliers.

-1.816ko urtean Epailaren 28an jaio zan *Orleanseko Frantzizka*, eta 1.818ko urtean il.

-1.817ko urtean Bagillaren 3an, *Orleanseko Klementina* jaio zan, Sajoniako Augusto Koburgo-Gotha´gaz ezkondata Bulgariako I Fernandoren ama izango zana.

-1.818ko urtean Dagonillaren 14an, *Orleanseko Frantzizko Joinbilleko Printzea izango zana* jaio zan, 1.900eko urtean, Brasilleko I Pedroren alaba Frantzizkagaz (1.824-1.898) ezkonduko zana, eta Orleanseko Frantzizka alaba eukinda, au bere lengusu Orleanseko Roberto, Txantreseko Dukeagaz ezkondu zana.

-1.820ko urtean Urtarrillaren 1ean, *Penthibre Dukea Karlos* jaio zan, ta 1.828ko urtean il.

-1.822ko urtean Bagillaren 16an *Aumaleko Dukea Enrike* jaio zan, eta Salermoko Printzea Leopoldoren alabeagaz, Bi Siziliako Borbon´tar Karolina Augustagaz (1.822-1.869) ezkondata, euki zituzen semeak bera baiño ariñago il zirenak. Bera 1.897ko urtean Loraillaren 7an il zan.

-1.824ko urtean Uztaillaren 31n *Montpensier´eko Dukea Antonio* jaio zan, espainitar VIIIn Fernando eta onen alaba IIIn Isabel´en aizta Luisa Fernandagaz (1.832-1.897) ezkondu ta gero, espainitarren errege-seme izendatuko ebena⁽¹⁾. Euki eban lenengo alaba Orleanseko Maria Isabel, Pariseko Kondea izan zan Orleanseko Felipegaz ezkondata, bere bostgarren alaba, Orleanseko Maria de las Mercedes´ek, irugarrena neskaren artean zana, IIIn Isabel espainitar erregeñaren seme XIIIn Alfonso, bere lengusuagaz ezkonduko zan.

11. I Luis Feleipe´en erregetza.

Uztaillako erregetza, eta 1.848ko Iraultza edo Kupel-babesak⁽²⁾:

1.814ko urtean Napoleon atxilotu ondoren eta XVIIIIn Luis frantzezaren errege aulkian ostera ezarri ondoren, I Luis Felipe au Frantzira itzuli zan.

I Luis Felipe onen erregetza, bere aurreko errege Xn Karlosek, alosokerizko erregearena jaurri ebana baiño, frantzezaren konstituzio barriko erregetzarena jaurri eban.



1.810eko urtean Royal Paris´eko Jauregia.

1.814ko urtean I Luis Felipe erregeak, bere etxe bizitza lez artuko ebana.

Lenengoetan dirudunen laguntza euki eban, frantzezaren diru arloa zabaltzen ta gorantza joan zalako, guztiz langintzazko iraultza gogor baten sartuta, dirudun ta langilleen arteko aldakuntzak, gero ta aundiagoak izan ziralako.

(1) Erregearen seme izendatuko ebena = al que nombrarian hijo de rey. (2) Kupel babesak = barricadas en las calles de Paris.

Iraultzako illea zalako, Uztaillako izena emon eutsoen matxinatuak erregetza oneri, nai bera erregetzara igon ebenean, Dagonillako 9a izan.

Europako beste errege guztiak orregaitik, *“Kale Zoztor”* edo *“Kupel Babeseko erregea”*⁽¹⁾ deituko eutsoen I Luis Feliperi.

Eta 1.848ko kupel babesaren iraultzak, baztartuko eban I Luis Felipe bere erregetzatik, II In Errepublikaren bideak zabaltzeko.

Bera ikuspegi orren aurrean, nai aginduteari zaletasun aundia erakutsi arren, zentzudun eta ixilkoi agertu zan bere erregetza guztian. Jakin ebalako dirudunen eta diruak egiten eban aurrerakuntzazko zabaltasunaren laguntza euki ebalako, goian esan dogun lez.

I Luis Felipe a ta guzti baiña, apurka apurka, erregetzaren aldeko laguntzaren eske ibili zanetik, 1.840ko urtetik aurrera, Guizot´en⁽²⁾ laguntza eske ibili zan.

Ingalaterraren aldera urbidu zan erritarren arteko politikan, bildurra euki ebalako ango ugarteetatik agertuko jakon erasoari, eta orregaitik bide ortatik sinatu eban “Primera Entente Cordiale” Ingalaterragaz, Lur-Arteko Itsasoan frantzez ta ingelesak euki eben eztabaidakaz amaitu ebena.

I Luis Felipek emon eban urrengo urrats edo oinkada, Bienako erregetzagaz urbiltzea zan, garrantzi aundia euki ebalako bere erregetasunarentzat, Europaren alosokerizko erregeagaitik onartua izan zedin.

1.846ko urtean I Luis Felipe Frantziko errege onek baleiteke, Ekuador jaupidezteko an egon ziran errege leiñuekaz, zeozer eukitea.

Mitxelena ta Rojas´tar Frantzizkok⁽³⁾, Londresen, Ekuador´eko Lendakari ordezkioak egiten egoala esaten eban lez: *“Flores´tar Juan Jose ariñauko lendakariak, asmatzen egoala erregetzazko jaurkintz bat Ekuador´entzak”*. Europako errege askoren artean, onartua izan zana, Ameriketara euki ebazan kolonizaziozko lurraldeak errege leiñu edo eritziagaz jaurritzeko.

Mitxelenak, Frantziari salatzen eutson ekintza orren errudun lez, Ameriketara euki ebazan lurraldeen jabetasunak aurrera eroateko, jaurkintzaren era ezberdiñakin saiatzen ibili zalako.

Frantzezak, Ameriketara euki ebazan kolonozaziozko jabetza orreik aurrera eroateko, alde batetik: *“Eukezan printzeak eskeintzen ebazan aundikeriz”*. Eta gauza alguzidun lez: *“Amerikarren arteko ezkontzakin”*, zaindaritz edo jaurkintza orreik aurrera eroatea gura eben.

(1) Kupel babeseko erregea = rey de las barricadas. (2) Gizot´tar François P.G. = 1.787ko urtean Nimes´en jaioa, eta 1.874ko urtean Normandiako lurraldetan, Bal-Ritxer errian il. 1.830eko urtean dipitadua izan zan, eta 1.840-1.848ko urte bitartean leen ministrua. 1.848ko urtean berak Thiers´ekin euki ebana aurkaritzaren erruz, urte onen iraultza beartu eban, bera Ingalaterrara iges egin bear izanda. “Revue Française” irasi eban. 1.826-27ko urte bitartean, “Ingalaterrako Iraultzaren edestia idatzi eban”. 1.828ko urtean Europaren Jendekuntzazko edestia be idatzi eban. 1.830ean Frantziko Jendekuntzaren edestia. 1.849ko urtean “Frantziaren demokrazia”. 1.863ko urtean Frantziko Biltzarren edestia idatzi eban. Eta abar. (3) Mitxelena ta Rojas´tar Frantzizko au 1.830ko urtean dipitadua izan zan; eta 1.840-1.848ko urte bitartean Frantziako leen ministrua. Guizot´ek Thiers´ekin euki eban aurkaritza sortu eban 1.848ko iraultza, Guizot´ek Ingalaterrara iges egin bear izanda. “Revue Française” irasi eban; 1.826-1.827ko urte bitartean: “Histoire de la révolution d´ Angletérre; 1.828ko urtean: “Histoire de la civilisation en Europe”; 1.830: En France”; 1.849: “De la Démocratie en France”; 1.863ko urtean: “Historia parlementaire de France”; eta abar.

Eskeintza orreikaz, amerikarren lurralde ezberdiñak, euren nortasunezko sinismenetan jaurretzeko euki ebazan askatasunezko gogoak, leen moztuteko. Baita gazteak euki zituzen aberritasunezko gogo barrien itxaropenak, apaldu, makurtu, edo ezereztu zitezten.

Eta bigarren, asmatutako ekintza orreik aurrera erodateko bear zan dirua, I Luis Felipek emoten ebazan diruakin egiteko.

Londresen, Arjentinako lendakariaren ordezkioak beteten egon zan Moreno´tar Manuelek beste aldetik, susmoa eukan: Ekuadorren frantzezak egiten ebazanak itzurazkoak zirala bakarrik. Berak, Bi-Siziliaseko Borbon´tar Maria Kristinaren bigarren ezkontzako irugarren seme, Muñoz ta Borbon´tar Agustiñeri eskaiñi eutson Ekuadorreko erregetza, bitarteko edo itxurazkoa bakarrik zala, uste ebalako.

Asken baten, Frantziko errege I Luis Felipe aldetik bideratuta egoala dana, Utrex´eko ongundean sinatu zan beste zatiagaz amaitzeko, eta denboreagaz, Orleanseko etxea Hispano Ameriketarantza urbiltzeko.

Arjentinako lendakariaren ordezko Moreno onek euki ebazan susmotik, Orleanseko Antonio Montpensier´eko dukea, Frantziko I Luis Felipe erregearen bederatzigarren semea izan zana, espainitarren Maria Kristinaren alaba, eta In Isabelen aizta zan Borbon´tar Luisa Fernandagaz ezkondu ondoren, Ekuadorren bidetik, Ameriketan Borboi´tar erregetza ezartzeko agertzen jakon.

Flores´en egitamu oneik asken baten, arrazoi askoagaitik ez ziran bete.

Frantziko I Luis Felipeen erregetza bere asken illonetan, orokorrez sortutako lanik-eza ta diruaren ezagaz marratuta egoan, erria ezin ebalako aurrera urten, aurkitu zan larritasunezko egoera orren bidetik.

Estutasunezko aldi orreik, ez ziran diruagaitik bakarrik, arlo orreri: política, dirulegeak, ordezkaritza, erri-ondasun, eta Ekuanduzko arloetara zabaldua egon ziralako.

Eta dan guzti ori, I Luis Felipeen erruagaitik sortu zan, onek Guizot´en alosokerizko politikari jarraituteagaitik, ez ebalako ikusi, zelango arrizkuan izten eban bere erregetzazko leiñua.

Bere erregetzaren uzte-agirian I Luis Felipek esan eban, 1.848ko urterarte Loubreko espainitar gela nagusian, batuta egon ziran liburu bildumak, margozki, eta margoial´ak, bereak zirala.

Eta onartuta I Felipe´en eskabide ori, 1.853ko urtean saldu zan norgeiagoko enkante baten⁽¹⁾.

12. *Frantziko In Errepublikoa.*

Frantziko In Errepublika, 1.848ko urtearen Otsailako 25ean, eta 1.852ko Abenduaren 2ko urte-egun bitartean, ezarri zan politikazko agintaritza izan zan.

Eta nai denbora laburra izan arren politikazko jaurkintza ori, erabagi aundien denbora izan zan, denbora onetan: *“Gizon guzien autarkia”* legeztu, ta *“Joputza edo etsaimende edo menpetasunak”* ezereztu ziralako, bai langilleentzat, *“Lantegiak ugaritu”*, guztientzat ogi bideak zabaldu zitezten.

(1) Norgeiagoko enkante baten saldu zan = se vendió en una subasta.

Lenago sortu ziranak.

Xn Karlosen aurka egin zan iraultzaren ostean, Orleanseko I Luis Felipek euki eban gaiñeko izen askoren artean **“Jauntxoa”** izenagaz deitzen eutsoenagaz igon eban frantzez erregetzara.

I Luis Felipek errege aulkira igonda, **“Anditasunezko Eskutitza”** ostera berrezkurata, egin bear eban jaurlintzan, esku luzeko neurriak artu bear ebazan.

Ezan konturatu baiña, neurri orreik, dirudunai laguntzen eutsela bakarrik, langille, jakintsu, eta diru gitxiko giza taldeen gaitz edo guztiz aurkakoa zalako.

Ez eban gizon guztien autarkia askatzen, ori izan zalako be maillako giza auek itxaroten ebana, autarki osoa dirudunen ta aundikien eskuetan egonda, zerga geienak, bemaillakoak ordaintzen ebazalako.

1.845eko urtetik aurrera, Frantzian diru-urri⁽¹⁾ ta lanen-eza ondatsua edo sakona egoan, lantegiak sarratuz, lan-eza ta gosea, nunai zabaldu ziralako, Frantziko lurralde guztian.

Diru gitxi eukenak eta ikasleak, langillearen jazarraldira alkartu ziran, eta gobernu-ko agintariak konturatu ziran orduko, Erri-Zaiñak ez eben gura matxinatu gazte arei ertsaldiko indarririk egin, eta ekintza orreitan sartuta, I Luis Felipek itzi bear izan eban bere erregetza, bigarren errepublikari ate guztiak zabalduz.

Errepublika biak.

IIn Errepublika, ezberdintasun aundia euki eban, ekitaldi bien artean sortu zana-gaz.

1.848ko urtean Otsailatik, Jorraillaren 23ko egunerarte, frantzez barrien aberriaren batzarretan, errepublikaren bein-beiñeko edo aldiko batzarra, zentzudun errepublikanoakin osotuta egoan: **“Alphonse de Lamartine, Garnier-Pagés, Arago, Crémieux eta Marie”**.

Errepublikar ertzeko: **“Ledru-Rollin, Marrast, Flocon”**.

Eta Sozialistak edo Gizartekoak **“Louis Blanc eta Albert”**.

Ia bi illabete eskas edo laburretan gizon oneik, Frantziko lurraldean politika arloari, iñoz emon jakon aurrerakuntza emon eutsoen. **“Gizarte edo ta Demokraziaren Errepublika”**ko lez deituta batzorde oneri.



1.848ko urtean Pariseko kupel matxintasuna.

(1) Diru-urri = crisis, escasez de dinero.

Gizon guztiaren orokorrezko lenengo autarkian lurraren jabedunak, euren serbitzura euki ebazan nekazarien bozka edo autarkia kontrolatuz, lortu eben frantzez aberitar barrikoak, eskumako politikara eroatea.

Eta ertzezko errepublikano, ta gizartekerizko edo sozialistak jaurkintzatik kenduta, bost lagunekin osotu eben gobernuak: *“Arago, Lamartine, Ledru-Rollin, Marieta, ta Garnier Pages´ekin”*.

1.848ko urtean Bagillaren 23tik-26rarte, eskumatar gobernuko arduradun oneik, artu ebazan neurriakaz, Pariseko erritarrak aurka urten eutsoen, eta bereala artu ebezan kaleak, kale-zoztor edo kupel-babesean ipinita.

Laster ipini ebazan gobernuaren eskumatar oneik erria guda-legean, Kabaignak jeneralaren agindupean, Bagillako matxintasunak deitu ziran borroka oneik geratzeko.

Bideak zabaldu ebazanak gordetzaille ta agintaritzazko Errepublika batera.

Bigarren Errepublikatik, bigarren Kaisertzara.

1.848ko urtean Abenduaren 10ean, gizonaren orokorrezko autarkiaz aukeratu eben Bonapartetar Luis Napoleon⁽¹⁾ Errepublikaren Lendakaritzarako, Bonapartetar I Napoleonen loba zana. Eta *“Lendakari-Printzea”*ren izenagaz deitzen eutsoenai.

Konstituziozko legearen aginduz, lau urteko lendakaritza euki ebena, eta urte orreik bete ondoren, ezin ebena ostera aukeratu, beste lau urteko agintaritzarik beteteko.

1.850eko urtetik aurrera, Bonaparte´tar Luis Napoleon onek, etenbageko ikusketak asi zan egiten Frantziko lurraldeetara, bera ostera aukeratu egien Errepublikako Lendakari lez.

Bonaparte au izan zan. 1.808ko urtean Jorraiaren 20an jaio zana, eta Italiar matxinatuekin ibili zana Aita Santuaren aurka.

Espetxera be sartu eben I Luis Felipe´en aurka egitearren, eta Suiza´ra erbesteratu zan bere sendi guztiagaz, Borboiak sartu ziranean.

1.848ko urtean Frantzira itzuli zan I Luis Felipe kendu ebenean, eta berak irabazi ebazan 1.848ko Abenduaren 10ean ospatu ziran erri-autarkiak, alde aundiz.

1.851ko urtean Abenduaren 2an, konstituzio ori aldatzeko egoala eta batzarkidearen ezetza ikusi ondoren, laterizko matxintasun aundi bat antolatu eban, urte-egun onetan eroan ebana aurrera, frantzez lurraldeko toki arriskutsuak, guda mutillakaz artuta.



1.848ko urtean frantzezaren matxinadak.

(1) Bonaparte´tar Luis Napoleon onen izen osoa = Tzarles Louis Napoleón.

Oso gogorra izan zan, Luis Napoleon onek egin eutsoen eraso bere aurkakoari.

Eta 1.851ko urtean Abenduaren 21ean ostera baieztu eben Luis Napoleonen agindua, urte ta egun onetan berak egin eban beste maltzurrezko erri-autarki bategaz, erriar geienak autarki barik itzi ondoren.

Eta dirudunek bakarrik emon ebelako euren bozka, auteskunde ori batzuen autarkian biurtu zan⁽¹⁾, erlijio katolikua ikasbideak zabaldu ebazanak, ta Aita Santu agintaritzaren aurkako matxinadak geratzeko, orko aldetik artu eban laguntzagaz lortu ebena.

1.852ko urtean Urtarrillaren 14an, Konstituzioa aldatu eban, Lendakariaren agintea 10 urteraino zabaldua, eta Laterriko batzarkideen eskubideak murriztu ondoren, agintaritzaz, jaurkintzaren ekintzazko⁽²⁾ ardurapean ipini eban.

1.852ko urtean Azillaren 7an, beste erri-autarki bategaz emon eutsoen amaiera bigarren Errepublikari, bigarren Kaisertzazko agindua sortuz.

Eta 1.852ko urtean Abenduaren 2an, dirudun eta erriarrak bere alde euki ebazalako, bai ta Austerlitz´eko borroka eta I Napoleonen koroatzea gogoratzeko, “III Bonaparte´tar Luis Napoleon” izendatu eben frantzezen Kaiserra 10 urterako, eta berriz aukeratzeko be, eskubide osoagaz.

13. *II In Isabel erregina lez, bere erregetzazko Aurkezpenaren sarrera.*

1.713an Loraillaren 10ean Vn Felipek, emakumezkoak errege ondorego jarraipenetik kanpo izten eban Salikako lege agertu eban.

1.789an IVn Karlosek ezereztu eban Salikako lege ori, nai ta aldarrikatu barik geratu.

VII In Fernando lengo iru ezkontzatik ondorengo barik egonda, Napoleseko Maria Kristinagaz laugarrenez ezkondu zanean, aurdun geratu zan au.

1.808ko urtean Loraillaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VII In Fernando Balenzaiko gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Bonapartetar I Jose, espainitarren errege aulkian ipinteko.



Isabel de Borbon

II In Isabel espainitarren erregina – bere armaria – eta bere idazpea.

(1) Batzuen autarkia = plebiscito censitario, donde sólo votaban las clases adineradas. (2) Ekintzazko arduradunen artean geratu egian = para que el poder quedase en manos del ejecutivo.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotar Mariano Luis, bere ordezkoko ministroa, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministroa izendatu ebazan, eta Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, I Bonapartetar Josek, itz eta izenpea emon eban Bizkaiko Jaun lez.

Napoleonentzat baiña, gauzak, okertzen asi jakozan ortik aurrera, eta Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, Europako Laterritasunari begituta, berak Euskal izaera, Frantzez biurtu gura eban.

Frantzezak IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpiko zaletasunean marratuta, katolikotasunaren aberrikuntzan menpetu ta batzangotzeko eritzi ori. Asmo oiekaz gura izan ebelako, Munduaren ekandua, Kaizar baten agindupean elburutu zedin.

1.810eko urtean Iraillaren 24an espainitar gudal nagusiak, Europa guztirako Aita katolikoan aolku bidez, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkokoak egiten egon zirala, ta Frantziko iraultzari begituz, *“espainitar konstituziozko jaurgo barri ori”* sortu eben, eurak aitu edo gura eben espainiar guztientzako, Galizia, Kataluña eta Euskalerrriak goiko Jaungoikuaren bidetik, Bereztasunen azturazko erri lez lortu genduzan Euskal Lege, Nortasun, izkuntza, izatasuna ta eskubideko askatasunak kontuan artu barik. Eta guda bidez ezartzea erabagitu eben.

Gudalburu nagusiak emen, guda indarragaz arrotuz, eta erregearen gaiñetik kokatuta, irasitako jaurgo barri ori sasi-jainko bat lez, danez gain ezarri gura eben.

Baiña begitu zer agertzen da emen: “espainitar gudal nagusiak, erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela”.

Gudal nagusi aiek, zelan egin ebazan gauza areik, erregearen gaiñetik, eurak ez ba ziran inñor, lege orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori European, azpiko aolku orrekaz, laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezen ?.

Danok dakigu, diru zalekerien aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gaiñetik European aolkulari nagusi ta bakarra 1.693 urtetan.

Gudal nagusiak, erregeari gaiñean ipini jakozan antzera baiña, Aita Santuari diru gordetzaille aldekoak ipini ote jakoz gaiñean?.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VIIIn Fernandok ezereztu ebezan Euskalerrri eta Bizkaiaerentzat batez be menpeko lege orreik.

Baiña leen espainiar gudataldeakaz, eta gero Frantzesarenakaz ia bost urtetan, iru bider orren aldizkan ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan gure Euskalerrri maite onetan: *“Batzuk Frantzez zale, eta beste batzuk espain zale egin zirala”*, euskal gizarteen Baita naspildu ebana, gero espainitar jaupideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiagor naastuko zana.

Orregaitik, Kadizen egoan espainitar gudal gorte edo guda yaurlari⁽¹⁾ agindupean sortu zan konstituzioaren sasi-legezko jaurgo barri ori, Mendizabalek⁽²⁾, Bizkaian ipini gura eban, Euskalerrriarentzako Zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez, espainitarren beste lurralde bat geiago izan zedin. Eta orretaz alegindu zan.

(1) Guda yaurlaria = gobierno militar. (2) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa judutar sendi baten.

Espainitarren gizarte guztia emendik aurrera, alderdikidetu egingo zan, espainiar konstituzioaren alde edo jaurgu barriagaz aurrera egin gura ebenak, eta lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritzza gura eben artean. Wellingtonek, Rodrigoko Uria artu ebenetik, Salamankara joan zan, Frantzezaren gudalozteai bideak ebagitzeko, Madrid eta muga bitartean.

1.812ko urtearen Uztaillaren 22an Wellington dukeak, bere 7 talde Ingeles gudari aundi, espainitar ta Portugez talde bi nagusiekin, sasigudako lanean lagunduta egon zana Portugaletik asita, Arapiles⁽¹⁾ erriko mendietan aurkitu ebazan Marmont Frantzez mariskalaren gudalozteak, ta borroka orreitan irabazi ta gero menperatu ebazanean, Andaluzitik bota ebazan.

1.812ko urtean Urrillaren 17an, indar eta maltzurkeri aundi auteskundean aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariak, Kadizen egoan guda yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainitarren jaupidezko agiri orreik izenpetzeko.

1.812ko urtean Azaroaren 1erako antolatu ziran, espainitarren jaurgoko agiri barri orreik, Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero sinatu zitezzen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812ko urtean Abenduaren 13an jaurgu orreri ziñ egin ondoren, Euskalerrriaren iru lurraldeko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako, espainitarren eritziko ordezkariak aukeratu egiezzala.

Euskalerrri ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartu ebana. *Eta Espainitarren guda nagusien artean, guzur eta maltzurzasunezko norkeri alegiñak, goratzen joan ziran ezin besterarte.*

1.812ko urtean Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

1.813ko urtean Bagillako illa erdian, ostera urtetan dabe Prantzez gudalozteak Bilbotik.

1.813ko urtean Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen menperatzen dauz Napoleonen gudalozteak, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, espainitarren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñalari esaten, *“espainitar ordezkariagaitik iñork ez eguela txarto barbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraultetaren eritzia sartu ez zitezzen”.*

Eta orretarako, espainitarren eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an, *“Te Deum”* ak abestu eguela agindu eben, *“espainitarren jaurgu zaleak ekarten eban askatasun omenez”?*

Nora begira daukie eleiztar katolikuak jendekuntzazko ekanduak ?. Goiko Jaungoikuak bereztu euskuzan legeari, edo eurak irasita daukien *“urrezko zekor”* ari ?

1.813ko urtean Abenduaren 11n, Frantziko lurraldean eta I Napoleonek, VIIIn Fernando atxilotuta eukan Talleyrand en gazteluan ospatu zan Balenzay´ko ongundean, onartu bear izan eban VIIIn Fernando´ren erregetza, espainitarren askatasunezko borrokari amaiera emonda.

1.814ko urtean Epaillaren 7an askatu eban Napoleonek VIIIn Fernando, berentzat Muga txartela emonda, Balenzay´etik urteteko.

1.814ko urtean Epaillaren 13an VIIIn Fernandok espainierantza urten eban, I Jose Frantzirantza joan zan bitartean. Eta Toulouse ta Perpiñan´era joanda, Epaillaren 22ko egunean Figerasen, espainitar Kopons guda nagusia urten eutson bidera.

1.814ko urtean Otsaillaren 2an Kadizeko gortetik guda nagusiaren aginduz: eurak egin eben konstituzioaren legezko, 173ko lege gaiaren gora beran, *“VIIIn Fernando erregea, iñork ez egiala ontzat artu, ez obedigarri be, arik eta 173ko gai lege orreri ariñago, ez badautso ziñez itz moten”* aldarrikatu eben.

(1) Arapiles = Salamanca ondean daua Arapiles erritxo.

VIIIn Fernandok ez eban onartu, guda nagusiak beren gainetik, emoten ebazan agindu orreik eurengana joateko, eta Palafoxe deituta, Jerona, Tarragona, ta Reus ´etik Zaragozara joan zan, Aste Santua bertan ospatzeko.

1.814ko urtean Jorraillaren 16an Terueletik joanda, Balentzian sartu zan VIIIn Fernando.

Berton euki ebazan itxaroten Borbon ´tar Luis kardinala eta Toledoko artx-apezpikua, errege ondorengo taldearen lendakaria, eta 1.812ko urtean aldarrikatu ziran askatasuneko neurriaren zalea zana. Bai ta, Madrilleko Rosales ta Mozo ´tar Bernardo gortearen arduradunak, alosokerizko eritziaren aldeko 69 diputadu bideratzen ebazanakaz, berari agiri bat emoteko.

"Manifiesto de los Persas" deitu jakon agiri orreri, VIIIn Fernandok kadizeko gorteak ezerutzuz, alosokerizko legeak berrezkuratu gura ebazalako.

1.814ko urtean Jorraillaren 17an Elio guda nagusiak, Bigarren guda loztea ipini eban erregearen serbitzura, bere eskubideak berrezkuratu egiezen.

1.814ko Loraillaren 4an VIIIn Fernandok Balentziatik, espainitar jaungo zale guda nagusi ordezkarri orreik, Kadizetik guda-keiñuz agindu ebazan lege guztiak, ezereztu ebazan, Perez Billamil ta Lardizabal ´tar Migelek idatzi ebazan agiriakaz, eta gure Foru Legeak, ostera ezarri ziran betiko erdutasunean.

1.814ko Urrillaren 15ean VIIIn Fernandok, ostera baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez.

Eta, 1.814ko Abenduaren 14an Napartarri beste agindu batekin, euren erregetzazko eskubideak berrezkuratu eutsozan.

1.814ko urtean Loraillaren 5ean VIIIn Fernandok, bere ankan oin-zainar gaixotasunaren eraso gogor bat eukin eta gero urten eban Madrillerantza, leen eta bere aurretik joan zedin, Egia ´tar Prantxisko Gaztela Barriaren orokorreko kapitaiñ guda nagusia lez izendatuta, bideak garbitu egiazan aurkari ta etsaien erasoetatik.

1.814ko urtean Loraillaren 11ko gauan egin zan Laterrizko matxinada ori, Egia ´tar Franzizkok gortearen ezereztasuna eskatuz, eta Perez ´tar Antonio Joakin lendakariak, ezeren arazo barik egin ebana.

1.814ko urtean Loraillaren 10etik 13arte, VIIIn Fernando Aranjuezen egoan itxaroten, bideko arazo guzti orreik garbitu egiezen, eta Madrillerantza urten eban, bere erregezko aulkian jartzeko.

1.819ko urtean IVn Karlosek⁽¹⁾, Napoleonen atxilotasunetik aske geratuta, erdiugarte edo peninsulara itzuli barik, Erromara joan zan, eta bertan bizi zan, il zan arte.

1.819ko urtearen Abenduan, Bonaparte ´tar I Jose ´k, erakustoki eder bat egiteko eukan asmoari, VIIIn Fernandok oratuz emon eutson erantzuna, "El Prado"ko⁽²⁾ erakustoki ederra zabaldu, ta "Ekialdeko Jáureguia"⁽³⁾, "Eguzkiaren Ateagaz"⁽⁴⁾ batera egin ebazalako. Askeneko Eguzkiaren ate au, amaitu barik geratu zan.

VIIIn Fernandoren eskuetatik be "Espainitarren Aberriko Masoi Biltzar Aundia"⁽⁵⁾ barriritu zan, bera izanda bere lenengo Maisu Aundia⁽⁶⁾.

VIIIn Fernandok, 1.814ko urtetik 1.820ko urterarte Kadizeko gorteak atara eben konstituzioa kendu eban, eta ostera ezarri eban lenauko erregeen alosokerizko jaurkintza, liberalkerizkoai erasotuta.

(1) VIIIn Fernandoren aita. (2) El Prado ´ko Erakustokia = Museo del Prado. (3) Ekialdeko Jauregia = Palacio de Oriente. (4) Eguzkiaren Ateagaz = Puerta del Sol. (5) Espainitarren Aberriko Masoi Biltzar Aundia = Gran Lojia Nacional de España. (6) Bera izanda leen Maisu Aundia = siendo Fernando VII el primer gran maestro.

1.820ko urtean, osteraz azten dira gure Foruen aurkako erasoaldi gogorak, guzuz, maltzur eta indarrezko bidetik, Euskal gizartearen Arrazoizko Baita lokaztu egingo dauana, eta urtearen aldaketako bidean Euskal Nortasuna ezereztasunezko amiltegi bideratuko dauana.

1.820ko urtean, iru urteko gudarien matxinada bat asi zan, ekintza orregaz Laterriaren konstituziozko barrien legeak eta Kadizeko aginduak osteraz ezarri ta, ondasunak askatuz⁽¹⁾.

Eta buru beroko liberalak edo askatasunezkoak alboratu egiten ziran neurrian, VIIIn Fernandok, Kadizeko konstituzioaren legeak ontzat artzen ebazala itzurak eginda, bere alioskerizko legearen atzean ibili zan, geroago San Luisen 100.000 gudariak⁽²⁾ lortuta.

1.820ko Urtarrillaren 1go egunean VIIIn Fernandok, 1.812an espainitar guda nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregaren nagusitza osteraz aldarrikatu ebalako.

Riegotar Rafael koronel ordezkari guda nagusiak, San Juaneko Buru edo Kabezas´etik, 1.812an Epaillaren 19an Kadizen guda nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaurgu barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko al osokeriaren aurka matxinatu zan, eta guda nagusiak ortik aurrera euki eben liberalaren laguntzagaz indar asko artzen joanda, euren adierazpeneko Foru Itza⁽³⁾ bidez, erasoaldi gogorak egin ebazan, gure Foruko lege Zarraren aurka. Edestilari batzuk esaten dabe, Euskalerrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Foruen goraberakoa.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdi Ugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako.

Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidorri, gure Lege Zarrak babestu egian, laguntza eskatu geuntzelako.

Borrokalde andi ta geienak, Euskalerrian egin ziran, euren batzango mende asmotan, emen egon zalako espainitar kaizertza ezartzeko arazoaren ardatza.

IVn Karlos eta VIIIn Fernando Napoleonengandik atxilotuta egon ziranean, guda agintariak asi ziran indarra artzen, eta gure Euskalerrian gudu antzez⁽⁴⁾, euren gizon jaurgu zaleak ezartzen.

1.820ko Epaillaren 7an espainitar guda nagusiak beartuta lortu eben, 1.812an Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik, VIIIn Fernandok izenpetzea.

Eta 1.820ko urtean Epaillaren 18an, Gernikako Batzarkidei Epaillaren 24an batzartzeko agindu eutsen, gure Foru edo Euskal Legeak, 1.812an Urrillaren 18an euskal ordezkari gezur zaleak, Kadizen ziñatu ebazan espainitar lege barriekaz egokitzeko.

Espainitarrak, Euskaldunai ainbeste amuru eukinda, mende joku orrean bitartez, bere lurretan ereiten ez ziran obariagaitik be, zergapetu gura ebazan, adibidez: Garagar, zikirio edo zekale⁽⁵⁾, olo⁽⁶⁾, ilar nabar edo txixirioagaitik⁽⁷⁾, eta ez edozer gauza, 14.000.838 erleko diru kopurua izan zalako.

Maltzurrezko joku orretan baiña, espainitarrak zerga orreik ezin ebazan aurrera eroan, Bizkaiak, lenago bere Jaun erregeari antolabidezko lanagaitik ordaintzen ebazan, ezereztu barik euki ebezalako.

(1) Ondasunak askatuz = desamortización de Mendizábal. (2) San Luisen 100.000 gudariak = gudaletze au Frantziko XVIIIn Luisena izan zan. (3) Foru itza = Gurentzat Euskal Legea da. para los españoles privilegios. (4) Gudu antzez = estrategia militar, estrategikamente. (5) Zikirio edo zekale = centeno. (6) Olo = avena. (7) Ilar nabar edo txixirioak = garbanzos.

1.820ko urtean Epaillaren 25eko denbora onetan, espainitarrak mogimendu larregi egin ebezan gure Euskal Legeak, euren jaurgo Santu barriaren barruan urtuaz, espainitar lurralde guztietan nortasunezko ezberdintasunak aienatzeko, eta Euskaldunak euren izatasunezko Nortasuna galduta, espainitar biurtu zitezen.

1.820ko urtean Jorriallaren 1etik aurrera, Bilboko Udalak lankidetasun aundia erakutsi eban espainitar jaurgo zale guda agintariekin, Udal arduradunak ziñatuta euki eban espainitar *jaurgo politikua* Jorriallaren 2a aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsonean, Bilbaotarrak espainitar biurtu zitezen.

Bilbaok urte onetan, 587 gogozko edo oldezko gudari euki ebazan.

1.820ko urtean Bagillaren 17an Mendiolar Bizente Antonio lege gizonak, au esaten eban, askatasunaren gora beran: Jaurgo barri ori⁽¹⁾, politikaren askatasuna, gizartearen askatasuna, eta askatasunezko gogoetagitik⁽²⁾ berba egiten zanean, erri gizonen kasketaldi edo naikeriaren⁽³⁾ eskuetan itxita, atsegiñezko ipuin bat izango zala geien.

1.821eko urtean Urtarrillaren 1ean, Bilbon egon ziran naitazko edo oldezko guda mutillak⁽⁴⁾, espainitarren gudaolzte biurtu ziran, eta orduan Bizkaiko zenbatzaille zanak, Bentadestar Pablo koronelak, gudaolzte ori bideratzeko aurreratuta, Urtarrillaren 2an urten eban Gezalaren aginduan, Bizkaiko errietatik egon ziran ainbat matxinatuak atxilotzeko.

1.821eko urtean Urtarrillaren 16an, Bediatar Lorenzo Antonio ordezeko koronelak, iñor ezin zala bere lurraldean mugatxartel edo igaro-txartel⁽⁵⁾ barik ibili, eta bera barik arrapetan ziranak, 10 erleko nekepean zigortuta geratuko zirala agindu eban.

1.821eko urtean Urtarrillaren 26an, agindu baten bidez, sendagille ta irakasleen kontrol aundia egin eban, eta gogorkerizko zigorraren keiñaduragaz zemaitu⁽⁶⁾, euren agindutik kanpo ez zitezen ibili.

1.821eko urtean Epaillaren 19 ta Jorriallaren 10eko jaiak ospatzeko, Bizkaiko agintari Bediatar Lorentzo Antonio ordezeko koronelak, etxeetan, bakotzak bere neurrian argitu edo apaindu egiazala agindu eban, eta beste ainbeste espainitar askatasunezko Loraillaren 2garren eguna ospatzeko.

1.821eko urtean Iraillaren 24an guda nagusi liberalak, gudarien agerketa aundi bat egin eban, espainitar jaurgo barriaren berregintzak lortu ebezalako⁽⁷⁾.

Nundik nora eta zer lortu, gaur ia 200 urte beranduago arazo bardiñaren aurrean aurkezten garanean ?.

Gaur argi ikusten dogu, zapaltzaillezko asmo orreik, katoliko kaizertzaren asierako gogo bardiñean daukiezala.

Ez dakit zertarako baiña, euren goitik berako aberri katoliko jabetasunean, jaurritu gura dabezan nortasun aundiko errigizarteetan kalte aundiak egiñez gain, daukien berezko eritzi demokratikoaren aurkakoak diralako, sekula euren etxeko jaurekintzan ezin dabenean ezer burutu edo zuzendu, dan guztia euren kontrolpean eukiteko, danak lapurrak biurtzen direlako ?.

A ta guzti: nai ta Burgos, Leon, ta Sebillatik guda indar geiago ekarri, legeak indarrez euren aldera aldatu, Euskal gizartearen ibilteko bideak igaro txartelakaz kontrolatuta euki, eta gure artean euren guda zerrendak erakusten dauan lez, beartasunezko premiñak bultzatuta edo zal-

(1) Jaurgo-Barri = nueva contitución. (2) askatasunezko gogoetagitik = ideas liberales. (3) Erri-gizon'en kasketaldi edo naikeriari = arbitrariedad de los hombres públicos. (4) Naitazko edo oldezko guda-mutilak = milicianos voluntarios. (5) Muga-txartel edo igaro-txartel = pasaporte. (6) Zemaitu = amenazar. (7) Espainol jaurgo-barria'ren berregintza lortu ebezalako = el logro en la reconquista e implantación, de las nuevas leyes o derechos constitucionales españoles.

tzaille asko egon ziralako, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan, ezin eben gauza aundirik euren mendetasunezko asmakuntzara burutu, erri geienak matxinatuta egon ziralako.

1.822an Epaillaren 1ean Bizkaiko guda agintari Bediatar Lorentzo Antoniok, agindu au bialdu eutsen Bizkaiko Udal guztiari: **1.820ko Epaillaren 19an espainitar jaurgoa ziñatu zan eguna, eta 1.808ko Loraillaren 2an espainitarren askatasunezko egun biak ospatu egiezala.**

1.822ko urte guztia, matxinatuakaz zeregin bardiña eukin da, Bilbao babesteko arresiz inguratzen asi ziran, diruaren ezagaitik amaitu barik geratu zana.

1.822ko urte onen Abenduko illean, Seoanetar Antonio guda agintariak, arrapetan ziran matxinatuak ez egiezala tiroz il agindu eban, eta ille orren barruan urkamendi edo garrote billean il ebazan mutil bi.

1.823ko urtean Otsaillaren 24an, Seoanetar Antonio guda agintaria Bilbotik, agiri gogor bat zabaldu eban, erregetzaren legezko iraspena berrezkuratuaren aurka.

Artean, Frantzezaren aurka egitekoen aitzakiagaz, euskal gizartea keiñadura bidez kikildu gura ebana, eta bere aldarriketa ori; **Viva la constitución!; Viva la unión!** berbakaz amaitu eban.

1.823ko urtean Epaillaren 8an Saldubako⁽¹⁾ gudaletgitik Ballesterosek, bere aginduan egoan bostgarren guda lurraldeari, Frantzez eta erregezko lege zarren adizkideai beste ainbeste agertu eutsen. Bilbaoko Euskaldunentzat, Seoanetar Antoniok meatxuzko keiñu bardiñakaz egin eban antzera.

1.823ko urtean Jorraillaren 2an Prantziako XVIIIIn Luisen gudaletzteak, Borbontar Luis Angulemako dukearen agintean Baionan egon zirala: **“Erregearen legezko iraspena berrezkuratzeko, 100.000 gudariek Auñamendiak igaro ta espainitar lurraldetara aldatuko zala agindu eban”**. Jorraillaren 22an Foru Aldundiak, Bizkaiko erri guztietatik zabaldu ebana.

1.823ko Jorraillaren 9an Zumarragan egoan orokorrezko gudaletgitik Zaldun taldeari, orrezko agindu bat bialdu⁽²⁾ eutsoen, agertuko zan eraso orren kontura.

Eta Bilbaon egoan Euskalerriko guda nagusi Kesadatar Bizenteri: VIIIn Fernando erregeagaz batera, Angulemako dukea beren 100.000 gudariakaz espainitar lurraldeetan sartuko zala, eta ez egiala Bilbo arrizkuan ipini, alperreko alegiña izango zala ta, agindu eutsoen.

1.823ko Jorraillan, Borbontar Luis Angulemako dukeen aginduan sartu ziran peninsula edo Erdiugarte onetara, Frantziko San Luisen 100.000 seme gudariak.

1.823ko urtean Urrillaren 1ean VIIIn Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintaritzan aldarrikatu eban, eta ararte Kadizetik guda nagusiak agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu ebazan.

1.823ko urtean Azillaren 13an, eta Riego il ebenetik egun bi beranduago, VIIIn Fernando Madrillen sartu zan.

Eta espainitarrentzat emen asiko zan, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, guda agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian ibili ziralako.

1.823ko urtean VIIIn. Fernandok, gudaalburu jaurgozaleak beartuta, espainitarren jaurgo barriari, ziñezko itza emon bear eutson. **“Eta emen ikusten da, zelango saio pilla egin ebazan Batikanoko aolkulariak, Europa ta Mundu au katolikotasunaren erlijiozko aberkidetzan batzangotzeko”**.

(1) Saldubako o nombre eusquérico de Zaragoza. (2) Agindu bat bialdu eutsoen = que no se inmiscuyceran para nada, al inminente ataque de los 100.000 hijos de San Luis.

1.823ko urtean Urrillaren 30ean urten eben Prantzezak Bilbotik, eta euren ordeztu oiñezko iru txanberga⁽¹⁾ eta zaldun talde bat⁽²⁾ etorri ziran.

1.823ko urte onen askenetan, VIIIn Fernandok, espainitar guda-buru jaurgu barri zaleak beartuta, espainitarren konstituzio barriari zinez itz eman bear eutson, *“Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquía”* esaten ebana, eta gero, *“Sin detrimento de la unidad constitucional Española biurtuko zana”*.

VIIIn Fernando ortik aurrera ez eban inkiziziorik barriz ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ta.

Eta guda agintariak beartuta, erregeak espainitar jaurgu zinau ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan ziran batzangotasunezko jaurgu aldera urbiltzeko.

Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan asmo orren azpitik ?.

Kontuan eukin bear da orregaitik, onein asmakuntza, erri ezbaridinako Foru Legeen gainetik, Erdiugarte onen lurralde guztiko bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orre in bidetik, aukeratuko ebezan barriro, Fueroaren edo Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

Eta 1.823ko urte orretatik aurrera, espainitarren Laterriak dauka, “Estado Católico Español en izena”.

“Euskalerrria, Kataluña ta Galiziak, berezko azturaren eskubidez daukien jendekuntzazko Aberri ta izkuntzak, kontuan artu bage”.

Norkeriaren, Erromatar-Godo-Espain-Katoliko-Merkantil-Aberkide oneik, euren asmakuntz barri onetan, Goiko Jainkoaren baimena eukiko ote eben ba, Berak irasitako Lege en aurka joan, eta eurak nai ebena egiteko ?.

1.824ko urtean Urtarrillaren 6an, 5garren guda taldearen ordeztu, 800'eko gudari taldetan banandutakoai, beste 600eko gudari batalloi bat bialdu eutsoen Bilbora.

1.824ko urtean Epaillaren 3an, guda amaitutzat emon ebelako, liberal guda agintari nagusiak Bizkaiko batalloiaren guda mutilak azkatu egiezala agindu eban.

Euskalerrrian eta Bizkaian batez be, eskeko asko ugaritu ziran urte onetan.

1.824ko urtean Loraillaren 7an, Alonso ta Baldenebrotar Eladio izendatu eben Bizkaiko zuzentzaille⁽³⁾.

1.829ko urtean Urrillaren 21-22ko egun bitarteko gauan, azpi joko bat agertu zan Gazteizen, egon ziran gudutalde armatuak matxinatzeko, ta Santander inguruan matxinatuta ibili zan Lastratar koronelari botaten eutsoezan erruak.

Antza, Euskalerrriko legearen aurka, Auñamendietara aldatutako mugak, ostera Ebro ibaira aldatzeko mogimendua izan zan.

1.829ko urtean Abenduaren 9an VIIIn Fernandok, Napolesen jaioa eta bere loba zan Borbontar Maria Kristinagaz, laugarrenez ezkondu zan.

1.830eko urtean Epaillaren 5ean VIIIn Fernandok baiña, 1.823an guda nagusiak beartuta espainitar jaurguoi zini egin eutson ostean, *“ez zala beren borondatea, muga orreik ostera aldatzea, erantzun eban”*.

Eta guzuraren bidez, gure Euskal Legeak ezereztuteko alegiñetan emendik aurrera, gero ta nabariago ikusiko doguz guda buruak ibili eben maltzurkerizko indarrak.

(1) Iru txanberga = tres batallones. (2) Zaldun-talde bat = un escuadrón de caballería. (3) Zuzentzaille = corregidor.

1.830eko urtean Jorraillaren 3an Madrileko la Gaceta aldizkarian agertu zan, VIIIn Fernandok, Ley Sálica zelan ezereztu eban.

Eta espainiar ondorengo guda sortuta, gure Euskalerrarentzat zoritxarreko ondorioak eka-riko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.830ko urtean Epaillaren 31n VIIIn Fernandok, bere alaba IIn Isabel izango zana, sei illa-bete jaio aurretik, bere aita IVn Karlosek 1.789an agertu eban legeagaz, 1.713ko urtean Vn Felipek ezarri eban Salikako legea ezereztuteko onartuta, emakumezkoai ortik aurrera, baimena emon eutsen, erregetzazko aulkian ezarri zitezen.

Karlos Maria Isidro izan zan, VIIIn Fernando bere anaiaren ondorengoa ia onen errege denbora guztian, arik eta VIIIn Fernandok lege ori aldarrikatu arte.

1.830eko urtean Urrillaren 10ean jaio zan Madrillen IIn Isabel, VIIIn Fernandoren alaba, gero bere bizitzan *“Betillun etorkizunetzko erregiña”* edo *“Umetxo Erregiña”*⁽¹⁾ deituko ebena.

1.832ko urtearen Iraillan VIIIn Fernando San Ildefonsoko eguras etxean oso gaisorik egoan-ean, bizkor ibili ziran Karlos Maria Isidroren aldekoak, espainitar agintaritzaz artzeko, eta uts egin arren, Kalomardetar Frantzizko espainitar ministruak, Fernandoren eskutik lortu eban izenpetzea, Karlos bere anaiari izendatzen eban erregetzazko agiria.

1.832ko urtean Urrillaren 1ean baiña, Fernando osteraz bizkortu zanean, Kalomardetar Frantzizko ministrua eta euren alde egon ziran agintariak jaurkintzatik kenduta, ezereztu eban sinatu ebana, eta eskubideak osteraz joan ziran IIn Isabelen alde.

1.833ko urtearen Epaillan Karlos Maria Isidrok, bere anaia VIIIn Fernando ez ebalako euki nagusitasunik Sálikako lege ori ezereztuteko aldarrikatzen eban, 1.713ko Loraillaren 10ean Vn Felipek ezarri eban Ley Sálica ori, 1.789an euren aita IVn Karlosek ezereztu ebanean, aldarrikatu barik geratu zalako, eta bere loba IIn Isabelen Asturiaseko printzea izatea ez ebalako on artzen, iges egin bear izan eban Portugalera.

1.833ko urtean Iraillaren 29ko arratsaldean il zan VIIIn Fernando, eta bere alaba IIn Isabelen izenarekin, egun berean egin eban espainitarren erregiña, bere ama, Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzan.

Eta Euskaldunentzat, VIIIn Fernandorekin joan ziran betirako, ararte ugarterdi onetako erregeakaz euki gendun epai edo antolamenduzko artekaritza, espainitar guda buru nagusien maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari, ate guztiak zabaldua.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIIn Fernando il zanean, Vn Karlos Maria Isidro bere anaiak, IIn Isabel bere lobaren Asturiaseko erregin gai izatea ez ebalako on artzen, ez eta urte ta egun orreitan, IIn Isabel erregiña izendatuta, bere ama Borbon Bi Siziliako Maria Kristinak, erregezko jaurkintza orreik ordezkatu egiezan gutxiago, Vn Karlosek Abarkatar Joakin, guztientzako ministrua izendatuta, gudaletze eta guda nagusiaren laguntza eskatu eban.

Guda nagusien artean ez eban euki aipameneko laguntasunik, nai ta Portugaleko errege I Migelen onspena euki.

1.833ko urtean Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama guda nagusiak, Karlos Maria Isidro VIIIn Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu eban espainitarren errege, eta oldezko gudariakaz⁽²⁾ Logroño artu ta gero, Nafarroara aldatu zan, euren aldekoekin bat egiteko⁽³⁾. Eta emen asten dira karlistadako ondorengo borrokak, nai espaitarren artean, nai Euskalerra ta Kataluñan.

(1) “Betillun etorkizunetzko erregiña au” edo “Umetxo Erregiña au” = “La de los tristes destinos”, edo “La reina castiza”. (2) Oldezko gudariakaz = soldados voluntarios. (3) Euren aldekoekin bat egiteko = reorganizar sus ejércitos.

Karlistaren guda asieratik Bizkaian, lurraldeko baltzu edo batzar bi egon ziran: Bilboko lurraldearen Aldundia eta espainol jaurgo zaleakaz egon ziran erriak.

Eta Durangon egoan gudu Aldundian, Karlosekin egon ziran erriak.

Eta urte onetan argitaratu eben espainitar guda nagusiak, Peninsula onen lurralde guztien eskubideak bardinduko eban antolamena.

Erromatar-Godo-katoliko aberkuntz lez, nortasun bereziko gizakiak batzangotuz, zorro baten sartzeko arauak asmatuta.

Egiko araukaz batera, estandaka etorriko direnak edesti guztian, ikusten dogun lez, leerkaituak ezin dabelako poxpolloakaz batera Juan, eta gitzia, poxpolloak sua-piztuta eroaten ba dabe.

1.833ko urtean Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurgo edo konstituzio barriaren agindua.

1.833ko urtetik 1.868ko urteraino izan zan II In Isabel espainitar erregeiña, Vn Felipek 1.713ko urtean asmatuta, ezarri eban Salikako legea. VII In Fernandok konstituzio barri orren laguntzan, Salikako lege ori ezereztu ebalako esker. VII In Fernandoren anai Vn Karlos Maria Isidrori, Frantziko iraultzaren baiño lenautik alosokeriaren erregetzazko taldekoaz lagunduta egoanari, erregetzaren bide guztiak moztuta.

1.904ko urtean Jorraillaren 16an il zan Paris´en II In Isabel.

14. *Oar txiki bat emen.*

325eko urtetik aurrera emen eta Europaren edesti guztiko etorkizunean Nizeako eleiz batzar orretatik, frantzez barriaren iraultzara arte, eta iraultzaren ostean Europa ta Amerika guztian, egin ziran odoljariozkoaren amaibako saio gaiñetik, zenbat saio egin bear ote dira, Jaungoikuak Izadi ta giza au bereztu eban aurka, beste au, eta gaur arte egin diran saioak egiteko ?.

Astoak, saio bategaz bakarrik erabagitzen dabe, leku baten baten miñ artu ezker, bere bizi guztian, andik joan edo aldatu ez egiteko.

Eta astoak edo belarri luzekoak, ulermen ori euki ezker, gu Omosapiens´en izena euki ?.

Nabari da, bizitz onen arrazoizko antolamenduan, izen guztiak ez dagozela eurak bear daben lekuan ipinita.

Eta dan guztia, Jaungoikuak ezarritako Berezko legearen kanpotik beti, asmatu ziran konstituzio barrien legeak, Europa ta Mundua katolikotasunaren aberkidetzan biurtzeko.

Frantziko iraultzan, erregearen aloskerizko legeak kendu ziran ainbeste lepo moztu ta gero, Napoleonek bere kaisertzarako oster berrezkuratu ebazanak.

Eta bere maldaberan, ta oraindiño arrokeri guztiagaz, berak sortu ebazan legezko berrizkuntzak or geratu ziran, norkeriaren katolikotasunetzko alosokeri ori, aurrera joan zedin.

Argi ikusten da, katolikotasunaren aberkidetasunerako, norkeriz asmatu ziran lege ta etenbageko saio guzti oneik, 325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean sasijaintasunetzko legeak asmatu ta ziñezkintzatu egin ziranetik, nai zoritxar aundiak ekarri arren edesti guztitik, ez dirala ikutu, eta giza ta errigizarteko eskubidearen gaiñetik egiñaz gain, aurrera egin dabela ezereztu begirun barik, Goiko Jaungoikuak gai´agaz batera, erritartzeko bereztu ginduzan lege guztiakin kontuan euki barik, edo obeto ezanda, zapalduz joan arren.

Bereztasunaren kanpoko norkerizko arrazoen asmo orreik, guztiz guzurrezkoak dira, eta Nizeatik ona guzur oiek aurrera eroateko, beste aibeste ziñezkintzazko guzurraikin aurrera egin bear izan dogu, *“Guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako”*.



II In Isabel ume zala.

Orregaitik esaten eban Zelaia eta Ibarra ´tar Adrianek: *“la verdad está sepultada bajo montañas de mentira”*.

Emen Laterritu ginduzan, bakotzak euki genduzen nortasunetik kanpo, Europa ta Amerikako lurraldearen errigizarteak, gaur daukaguzan maltzur ta guzurrezko “Estados”en agindupean bizitzeko, ezereen ardura barik, eta nortasunik-bage morroi lez, euren agindutara.

Eta txarrena ez da ori: *“Txarrena, guzurrean bizitzea beartzen gaituela da”*.

“OMOSAPIENS ete al gara ?.

Ludi onetan, bereztasunaren legezko arrazoiak, edozein lekutik ikusi leikiezan, aurpegi aurrean daukaguz beintzat !.

Nire aldetik gaur dakitena, zentzuz bizi gura ba dogu: *“Nizean aita santuaren irudia arduratu ebelako Munduko giza-semé en ardurakaz, arduragabetu egin ziran Mundu, Europa, eta Ameriketako gizarteak, ostera euren berezko arduratan ezarri bear direla. Mundu onetan zentzuz, eta ganoraz bizi gura ba dogu”*.

“BEREZTASUNAREN EKANDUZKO LEGEETAN: EZ DAGOELAKO BESTE ORDEZKO BIDERIK”.

Gizaren arteko artu-emoneko ordezkariak konpondu edo bide zuzenetik eroateko, ez dagoelako beste biderik, Goiko Jainkoak ipini euskuzan lege bidetik joatea baiño.

BERA DALAKO IZADI ONEN SORTZAILLEA.

Eta ez, erromatar I Konstantino, I silvestre aita santua, Osio gotzaiña, Rekaredo godotar, eta Napoleon, Hitler, Mussolini, Franko, ta Mola bezelakoak.

15. *II In Isabelen ume aldia.*

II In Isabel, VII In Fernando espainitar erregea ta bere emazte Bi-Siziliako Borbon ´tar Maria Kristinaren alaba izan zan.

VII In Fernando bere aita, Maria Kristinakin ezkondu orduko, iru bider egon zan ezkondu ta, baiña bera ilten zan ordurako, iñoregaz ez eban lez euki ondorengotasunik, beartuta agertu zan beste saio bat egiten, Maria Kristinagaz ezkondu ta.

1.830eko urtean Isabel jaio zanean VII In Fernandok, bere alaba ainbaten itxaropenezkoa zala ikusita, 1.830eko urtean Salika ´ko legea aldatu eban bere alaba Isabelen alde, eta bere anai Vn Karlos Maria Isdroren kalterako.

1.830eko lege au, 1.789ko gorteak baieztu eben legea baiño besterik ez eban ekarten legearen baimeneko aldetik, eta 1.789ko legeen izen berorregaz ezagutu zan.

Espainitarren aldetik lege ori aurrera eroanda, IIIn Isabeleri ate guztiak zabaldu eutsoezan erregiña izateko, VIIIn Fernandok ez ba eban beste seme alabarik eukiten.

1.832ko urtean jaiou zan Luisa Fernanda izan zan IIIn Isabelek euki eban aizta.

Eta 1.833ko urtean Irailaren 29an bere aita VIIIn Fernando ilda, iru urte bete barik eukalazala igon eban IIIn Isabel eregetzazko aulkira, bere ama Maria Kristinaren errege ordegetzazko ardurean.

IIIn Isabelen jaiou ta ergetzara igoteak, VIIIn Fernandoren anai Borbon´tar Karlos Maria Isidoren aurkaoa zan, eta bera izan zan IIIn Isabel Asturiaseko Printzea lez izendatze debekatu ebena, bai ta gero erregiña egien aurkako be. Karlos Maria Isidrori aurkaritza orrek, erbeste-raztea beartu eutsona. Bereala asi ebena, IIIn Isabeli eta Karlistaren aurkako ondorengo guda zital ori.

Maria Kristinak eroan eban errege ordegetzaren ardurea, leenengo Karlistaren gudan.

IIIn Isabelek, ez eban ikasketarik euki bere gaztetasunezko urteetan, bere ama Maria Kristinak eukan ardura nagusia erregeen ordego lez, naikoa izan zalako bere maitale Muñoz´tar Fernando sarjentoa zaintzea, ta urtero eukiten ebazan sabelaldi edo aurbideakaz, bere alabeagaz arduratzeko.

1.840ko urtean Urrillaren 17tik, Baldomero Esparterok artu eban errege ordegoen ardura ori, arik eta 1.840ko urtean Uztaillaren 23an kendu eutsoen arte.

Eta irugarren errege ordegetza ez dagian sortu, IIIn Isabeleri, adintsu izateko urteak beratu eutsoezan, 14 urtetik berak euki zituzen 13 urtera, 1.833ko urtean Azillaren 8an ekintza onegaz, Isabel adintsua zala aldarrikatuta.

Azillaren 10ean emon eutson ziñezko itza konstituziozko legeari.

16. *Karlistadako guda onen Ondoriozko aurkeztaldi laburra.*

Emen argi ikusten da goian aipatu dodana, guda-mendeko batzangotasun asmo orren aurka, ez ebela balio ezerk.

Kristautasuna, eskubitarren kaisar katoliko aberkide fazista biurtu ta alderdikidetu ebenean, munduko gizarteari, izan dan lapurketarik aundiena egin eutsoelako.

Europan ortik aurrera, amaibako irudietan izan leikezan ordezeko agintariak aukeratzeko arloak, Jaun erregezko erakundeak irasi ziran Munduko gizartearen antolaketarako, eta bereztasunaren arrazoizko legeak, katolikotasunaren norkerizko zentzura aldatu ebenetik, mendetasunezko batzango asmo orren aurka, ez ebalako balio ezerk ⁽¹⁾.

Mendeko asmo orreik, Munduko gizartearen eskubideen gaiñetik ezarri, eta Izadian bizitzeko aukeratu bear doguzan mozkin guztien kontrola euren eskuetan artuta, gudal agintariak asmo orren serbitzura indartu ziran, norkerizko batzango mende elburu orreik, garaipeuduz geratuta gaurko egunerarte, Europa eta Munduaren berezko errietan eta Euskalerrri ta Kata-luñagaz ikusten dogun lez.

Edesti guztiko gudal buru nagusi orreik, katolikotasunaren erlijioa *“urrezko txekor”* edo *“ikur lez artuta”*, batzangotasunaren merkataritzazko ondasundun serbitzura agindu ba dabe, VIIIn Fernandoren agintaritzan gaiñeratu ziran, eta ostean daukaguzan laterrietan naiz errege

(1) Ni las leyes de arbitraje que se crearon para la función de los reyes, señores, o, cualquier otra figura de dirección que las posibilidades nos facilitasen valen nada, ante la imposición de esas ideas amorales e imperialistas amparadas con la fuerza de las armas. Pues se hicieron con la dirección moral y el poder del mundo.

edo lendakariarenak euki, ostonduta dabilzan katolikuen aolkularitzazko alegiñakaz agindu dabe gaur arte.

Kontuan jausi bear geunke, Europa, ta Erdiugarte onetan Euskalerrriak, espainitarraikin ortik aurrera, borroka asko euki ba-doguzela, danak izan direla, norkeriaren asmo zikiñ mende orreri buruz.

Eta nabarmenekoa, Frankok odoljariozko gurutzada santuaren izenean, Erdiugarte onetan egin ebana, menperatasunezko Nacional Katolicismo ori indarrez ezartzeko.

Sozialistak zer dira gaur egunean. Ez ziran jai... zapaltasunezko eritziaren aurka?.

Dana dala, egia da, Mundu onen gizarteko dan guztiak, Baitan lokaztuta gagozela, Berezko Gai ta Gizaren eskubideen gaiñetik, merkataritzaren ondasunezko eritziak ezarri gurean⁽¹⁾ dabilzelako, bizitzarako bear dan guztia, asmo orren Laterritutako kontrolpean eukiteko.

Zer esan nai dau orrek, Morroitasunduta, diruaren serbitzura bizi bear garela ?.

Gure bizitzan ekintza orrek, Ankaz gora bizi bear garela esan nai dau.

Egi ote da ?.

Gaur, European daukaguzan Laterriak dira, geratzen diran menpekotasun orren erakusle edo agertzaille nabarienetakoak, euren barneak oraindiño, Ludi onen Kaisergotzazko asmo elburuakaz irasita dagozelako.

Eta Munduko gizarteak gaur, daukan jakintzaren aurrean barre egitekoa izanez gain, mingarria izaten bada, ez gara konturatuko antzerki arrunt edo trakets joko bat aurkezten gabiltzala?.

Ez ziñeztekoa da, gaurko belaun aldiaren arrazoizko gizak, ikuskizun au emon leikenik.

Nobel saria merecí ote dabe ?.

Ni, enintzen arrituko.

17. ***Euskalerrrian, karlistadako gudaren asiera.***

Euskalerrrian, Kataluñan, eta Bizkaian batez be, ezin da esan Katalan ta Euskal Legearen aurkako borrokak dirala, bai eta Bizkaitarrak Jaunagaz, edo gero espainitar erregeakaz ongundean euki genduzan artekaritzaren ezereztuteko alegiñak, 1.833ko urtean asi zirala.

Mundu onetan, katolikotasuna irasi zan aberkidetasunezko ziñezkintzan, dogma edo norkeriaren zentzuan oiñarritzeko legeakin, IVn gizaldiko asieratik ekarten daualako, katolikotasunean kolonizatuta batzangotzeko alegiñ ori.

1.820ko Urtarrillaren 1go egunean VIIIn Fernandok, 1.812ko urtean espainitar guda nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregearen nagusitza ostera aldarrikatu ebalako.

1.812ko urtean Epaillaren 19an, Riegotar Rafael koronel ordezeko guda nagusiak Kabez de San Juanetik, Kadizen guda nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaurgo barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko al osokeriaren aurka matxinatu zan, eta guda nagusiak ortik aurrera euki eben liberalaren laguntzagaz, indar asko artzen joanda, euren adierazpeneko Foru Itza⁽²⁾ bidez, eraso aldi gogorak egin ebazan gure Lege Zarraren aurka, eta espainitar erregeakaz euki gendun artekaritzagaz.

Edestilari batzuk esaten dabe, Euskalerrrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Forueren goraberakoa.

(1)Ni las leyes de arbitraje que se crearon para la función de los reyes, señores, o, cualquier otra figura de dirección que las posibilidades nos facilitasen valen nada, ante la imposición de esas ideas amorales e imperialistas amparadas con la fuerza de las armas. Pues se hicieron con la dirección moral y el poder del mundo. (2) Foru itza = Gurentzat Euskal Legea da. Para los españoles privilegios.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdiugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako.

Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidrori, gure Lege Zarrak babestu egiazan, laguntza eskatu geuntselako.

Borrokaldi andi ta geienak, Euskalerrian ta Kataluñan egin ziran, euren batzango mende asnotan, nortasunezko lurralde orreitan egon zalako espainitar kaizertza ezartzeko, arazoan ardatza. Eurak izan ziralako Demokraziaren askatasunezko arloetan zentzunduenak, menperatzaile kaisertzaren eritziak ezarri zitezen gure lurraldeetan.

IVn Karlos eta VIIIn Fernando Napoleonen aldetik atxilotuta egon ziranean, guda agintariak asi ziran indarra artzen, ta gure Euskalerrian gudu antzez⁽¹⁾, euren jaurgio gizonak ezartzen.

1.820ko urtean Epaillaren 7an espainitar guda nagusiak, VIIIn Fernando beartuz lortu eben, 1.812ko urtean Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik izenpetzea.

Eta 1.820ko urtean Epaillaren 18an, espainitar guda nagusiak Gernikako Batzarkidei, Epaillaren 24an batzartzeko agindu eutsen, 1.812ko urtean Urrillaren 18an euskal ordezkari saltzailleak azpikeriz, Kadizen ziñatu ebezan Foru edo Euskal Lege barriak espainitarren lege barriekaz adoxtuteko.

1.820ko Epaillaren 25eko denbora onetan, mogimendu larregi egin ebezan espainitarrak, gure Euskal Legeak, euren konstituziozko jaurgio Santu barriaren barruan urtu egiezen, eta euren ustezko katoliko espainitar lurralde osoan, desberdintasunak ezereztu ebezan, Katalan eta euskaldunak euren izaerazko nortasunak galduta, espainitar biurtu zitezen.

1.820ko Jorraillaren 1etik aurrera, Bilboko Udalak lankidetasun aundia erakutsi eban espainitar jaurgio zale guda agintariekin, Udalak ziñatuta euki eben espainitar jaurgio politikua Jorraillaren bian aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsonean, Bilbaotarrak espainitar biurtu zitezen.

1.821eko Urtarrillaren 1ean, Bilbon egon ziran naitazko edo oldezko guda mutillak⁽²⁾, espainitarren gudaolozte biurtu ziran, eta orduan Bizkaiko zenbatzaille zanak Bentadestar Pablo koronela, gudaolozte ori bideratzeko aurreratuz, Urtarrillaren 2an urten eban Gezalaren aginduan Bizkaiko errietatik, matxinatuta egon ziran ainbat mutil atxilotzeko.

1.821eko Urtarrillaren 16an, Bediatar Lorenzo Antonio ordezkari koronelak, iñor ezin zala bere lurraldean mugatxartel edo igarotxartel⁽³⁾ barik ibili, eta bera barik arapatzen ziranak, 10 erleko nekepean zigortuta geratuko zirala agindu eban.

1.821eko Urtarrillaren 26an, agindu baten bidez, sendagille ta irakasleen kontrol aundia egin eben, gogorkerizko zigorraren keiñaduragaz zemaituta, euren agindutik kanpo ez zitezen ibili.

1.821eko urtean Epaillaren 19 ta Jorraillaren 10eko jaiak ospatzeko, Bizkaiko agintari Bediatar Lorentzo Antonio ordezkari koronelak, etxeak, bakoitzak bere neurrian argitu egiazala agindu eban, eta beste ainbeste espainitarren askatasunezko Loraillaren 2garren eguna ospatzeko. Zer ote gendun guk, Loraillaren biko egun orregaz ?.

1.821eko Iraillaren 24an guda nagusi liberalak, gudari agerketa aundi bat egin eben, espainitar jaurgio barriaren berregintzak lortu ebezalako⁽⁴⁾.

Nundik nora eta zer lortu, gaur ia 200 urte beranduago, arazo bardiñen aurrean aurkezten garanean ?.

(1) Gudu antzez = estrategia militar de guerrillas, estrategikamente. (2) Oldezko mutillak = soldados voluntarios. (3) Muga-txartel edo igaro-txartel = pasaporte. (4) Espainol jaurgio-barria ren berregintza lortu ebezalako = el logro en la reconquista de los nuevos derechos constitucionales españoles.

Gaur argi ikusten dogu, zapaltzailezko asmo erreik, kaizertzaren asierazko gogo bardiñean daukiezala. Ez dakit zertarako baiña, sekula euren etxeko jaurkintza ezin dabenean burutu edo ta zuzendu.

A ta guzti: Nai ta Burgos, Leon, eta Sebillatik, guda indar geiago ekarri; legeak indarka euren aldera aldatu; Euskal gizartea igaro bideko txartelakaz kontrolatuta euki; eta gure artean, euren guda zerrendak erakusten dauan lez, beartasunezko premiñak bultzatuta edo zaltzaille asko egon ziralako, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan, ezin eben gauza aundirik euren mende asmakuntzara burutu, erri geienak matxinatuta egon ziralako.

1.822ko Epaillaren 1ean Bizkaiko gudal agintari Bediatar Lorentzo Antoniok, agindu au bialdu eutsen Bizkaiko Udal guztiari: **“1.820ko urtean Epaillako 19an espainitar jaurgoa ziñatu zan eguna, eta 1.808ko urtearen Loraillako 2an espainitarren askatasunezko egunagaz, biak ospatu egiezala”**.

Guk, zer ote eukiko gendun, beartasunezko agindu orrekaz ?.

1.822ko urte guztia, matxinatuakaz zeregin bardiña eukin da, Bilbao babestuteko arresiz ingurutzen asi ziran, diruaren ezagaitik amaitu barik geratu zana.

1.822ko Urte onen Abenduko illean, Seoanetar Antonio gudal agintariak, arrapetan ziran matxinatuak⁽¹⁾, ez egiezala tiroz il agindu eban, eta ille orren barruan, urkamendi edo garrote-billean il ebazan mutil bi.

1.823ko Otsaillaren 24an, Seoanetar Antonio gudal agintariak, agiri gogor bat zabaldu eban Bilbotik: erregeen legezko iraspena, berrezkuratzearen aurka. Artean, Frantzezaren aurka egitekoen aitzakiagaz, euskal gizartea keiñadura bidez kikildu gura ebana, eta bere aldarriketa ori ; **Viva la constitución ! ; Viva la unión !** berbakaz amaitu eban.

1.823ko Epaillaren 8an Saldubako⁽²⁾ gudalgetitik Ballesterosek, bere aginduan egoan bostgarren guda lurraldeari, Frantzez eta erregezko lege zarren aurkako beste ainbeste agertu eban. Seoanetar Antoniok Bilbaoko euskaldunentzat, meatxuzko keiñu bardiñakaz egin eban antzera.

1.823ko Jorraillaren 2an Prantziako XVIIIIn Luisen gudalozteak, Borbontar Luis Angulemako dukearen agintean Baionan egon zirala: **“Erregearen legezko iraspena berrezkuratzeko, 100.000 gudariekin Añamendiak igarota Espainara aldatuko zala agindu eban”**. Foru Aldundiak Jorraillaren 22an, Bizkaiko erri guztietatik zabaldu ebana.

1.823ko urtearen Jorraillan, Borbontar Luis Angulemako dukearen aginduan sartu ziran Erdiugarte onetan, Frantziko San Luisen 100.000 gudari semeak.

1.823ko urtean Jorraillaren 9an Zumarragan egoan orokorrezko gudalgetitik, agindu bat bialdu eutsoen Bilbaon egoan Euskalerriko gudal nagusi Kesadatar Bizenterik: **“Fernando erregeagaz batera, Angulemako dukea beren 100.000 gudariakaz espainitar lurraldean sartu zala, eta ez egiala Bilbo arrizkuan ipini, alperreko alegiña izango zala ta”**.

1.823ko urtean Urrillaren 1ean VIIIn Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintza aldarrikatu eban, eta gudal nagusiak ararte Kadizetik agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu eban.

Espainitarrentzat emen asiko zan, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, gudal agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian ibili ziralako.

1.823ko Urrillaren 30ean urten eben Prantzezak Bilbotik, eta euren orde, oiñezko iru txanberga⁽³⁾ ta zaldun talde bat⁽⁴⁾ etorri ziran.

(1) Orduan Matxinatuari be, eurak diran izenagaz Fazistak zirala esaten eutsoen. (2) Saldubako = desde Zaragoza, porque ese era su verdadero nombre en Euskera. (3) Ziñez itz eman bear eutson = le hicieron jurar a la fuerza la constitución de Cadiz de 1.812. (4) Txanberga = batallón. (4) Zaldun-talde bat = un escuadrón de caballería.

1.823ko urte onen askenetan VIIIn Fernandok, espainitarren guda buru jaurgozaleak beartuta, espainitarren konstituzio barriari, ziñez itz emon bear eutson⁽¹⁾.

VIIIn Fernando ortik aurrera, ez eban inkiziziorik barriz ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ebalako. Bai euskaldun Bizkaitarrakaz be, espainitarren kanpo euki eban artekaritza bertan itzi bear izanda, guda nagusiak ortik arrera Bizkaitarrai, espainitarak izango bagiñan lez beartuz.

Eta guda agintariak beartuta, erregeak espainitar jaurgoa ziñatu ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan ziran batzangotasunezko jaurgu aldera urbiltzeko. Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan asmo orren azpitik ?.

Kontuan eukin bear da orregaitik, onein asmakuntza, erri ezbarदिनेको Foru Legeen gainetik, Erdiugarte onen lurralde guztiko gizaren bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orre in bidetik, aukeratuko ebezan barriro, Fuero edo Katalan ta Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

1.824ko urtean Urtarrillaren 6an, 5garren gudu taldearen orde, 8 euneko gudari taldetan bananduta 600 gudari euki eban beste batalloi bat etorri zan Bilbora.

1.824ko Epaillaren 3an, guda amaitutzat emon ebelako, liberal gudu agintari nagusiak Bizkaiko batalloiarren guda mutilak azkatu egiezala agindu eban.

1.824ko urtearen Lorailako 7an, Alonso Baldenebrotar Eladio izendatu eben Bizkaiko zuzentzaille⁽²⁾.

1.833an Iraillaren 29an IIIn Isabelek iru urte eukezala, VIIIn Fernando bere aita il zan, eta bertan izendatu eben erregiña lez IIIn Isabelen izenarekin, 1.833-1.840 urte bitartean, bere ama Maria Kristinaren errege ordezkotzaren jaurkintzan.

1.829ko Urrillaren 21-22ko egun bitarteko gauan, azpi joko bat agertu zan Gazteizen, egon ziran gudu-talde armatuak matxinatzeko, eta Santander inguruan matxinatuta ibili zan Lastratar koronelari bota eutsoezan erruak.

Euskalerriko legearen aurka, Añamendietara aldatutako mugak, ostera, Ebro ibaira aldatzeko mogimendua izan zan antza.

1.829ko Abenduaren 9an VIIIn Fernandok, Napoles´en jaioa eta bere loba zan Borbontar Maria Kristinagaz, laugarrenez ezkondu zan.

1.830eko Epaillaren 5ean VIIIn Fernando bildur, 1.823ko urtean guda nagusiak beartuta, espainitarren jaurguari ziñ egin eutson bidetik, **“ez zala beren borondatea muga orreik ostera aldatzea, erantzun eban”**.

Euskal Legeak guzurraren bidez ezereztuteko alegiñak, eta guda buruen indarrezko maltzurkeriak emendik aurrera, gero ta ugariagoak ta nabaritasunezkoak ikusiko doguz.

1.830eko Jorraillaren 3an Madrileko la Gaceta aldizkarian agertu zan, Fernandok Ley Sálica zelan ezereztu eban.

1.830eko Urrillaren 10ean jaiou zan Isabel, VIIIn Fernandoren alaba.

1.832ko Iraillan VIIIn Fernando San Ildefonsoko eguras etxean oso gaisorik egon zanean, bizkor ibili ziran Karlos Maria Isidroren aldekoak, espainitarren agintaritzaz artzeko, eta nai ta uts egin arren, Kalomardetar Frantzizko espainitar ministruak, Fernandoren eskutik lortu eban izenpetzea, Karlos bere anaiari izendatzen eban erregetzazko agiria.

(1) Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquía esaten ebana. Y que luego se convertiría en = Sin detrimento de la unidad constitucional Española. (2) Zuzentzaille = corregidor.

1.832ko Urrillaren 1ean baiña, Fernando ostera bizkortu zan, ta Kalomardetar Frantzizko ministrua eta euren alde egon ziran agintariak jaurkintzatik kenduta, ezereztu eban berak sinatu ebana, eta gauzak ostera joan ziran II In Isabelen alde.

1.833ko Iraillaren 29ko arratsaldean il zan VII In Fernando, eta egun berean bere alaba, II In Isabelen izenarekin egin eben espainitar erregiña, ama Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzazko ardurean.

Eta VII In Fernandorekin joan ziran betirako, ararte espainitar erregeak Bizkaiakin euki eban artekaritzazko epaiketaren antolamendua, maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari ate guztiak zabalduta.

1.833ko Urrillaren 1ean VII In Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro Molinako kondea, Portugaleko I Migel printzea bere adiskidea zanagaz egoala, Abrantesetik, bera izendatu zan espainitarren errege.

1.833ko Urrillaren 2an Arabako ordezkari Uhagontar Pedro Paskualek Madriletik oarpena bialduta, gabeko ordubi ta laurenak ziranean eldu zan Bilbora, VII In Fernando il zanaren berria, eta zer egiteko premiñ aundian aurkitu ziran Bizkaitar Aldundi ta erritar guztiak.

1.833ko Urrillaren 4an Bizkaitarrak, Karlos Maria isidro izendatu eben Bizkaiko Jauna, eta Foruak berrezkuratzeko errege barriaren aldeko ordezkarien orokorrezko batzarra antolatu zan, Orbe ta Eliotar Jose Mari Baldespinako Markesa zuzendari zala.

1.833ko Urrillaren 4an, Ingalterra ta Frantziko kontsuladuetatik, Bilbaoko Udaletxera bialdu ebezan agiri bi, euren menpekoak eta eukezan etxeak babestu egiezan.

1.833ko Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama gudal nagusiak, Karlos Maria Isidro VII In Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu eben espainitar errege, eta oldezko gudariakaz Logroño artu ta gero, eurakaz Nafarroara aldatu zan euren aldekoakin bat egiteko⁽¹⁾.

Eta emen asten dira karlistadako ondorengo borrokak, nai Espainan, nai Euskalerrian.

Karlistaren guda asieratik Bizkaiian, lurraldeko baltzu edo batzar bi egon ziran: *“Bilboko lurraldearen Aldundi ta espainol jaurgozaleakaz egon ziran erriak. Eta Durangon egoan gudu Aldundian, Karlosekin egon ziran erriak.*

Eta Erdiugarte onen lurralde guztiak zorro baten sartzeko, urte onetan eta Laterriaren izen buruagaz jaio ziran, espainitarren lurraldeak edo probintziaren antolamendua.

Errege bi batera ezin, eta gaiñera, eritzizko sinismenean aurkakoak izanda gitxiago, anai arteko guda piztu zan, Katalan eta Euskaldunak, anaien arteko guda orren zorroan sartuta.

Euskalerrian batzarrak euren biltzarkideakin, Vn Karlosen alde sartu ba ziran borroka oneitan, Karlosek, beste erribatekoak giñela jakin ebalako zan, eta gure Demokraziaren Askatasunezko Lege Zarrak babestuko ebazala ziñ eginda, beragaz joan ziran karlista edo ondorengotasunezko borroka onetara.

1.833ko urtean Urrillaren 7an Bilbaon baiña, Frantzizkotar Aita Negretek, beltz izkribu⁽²⁾ bat argitaratu eban gure Foruakaz ez ebana euki zer ikusirik, erlijioa eta leialtasunaren izenean: *“gudarako Jainkoaren babesa gura ezker, Karlos Maria Isidroren atzean joan zitezzen”* esaten ebana.

Jakin gura neuke, aita Negrete Prantzizko orrek, noren aolkua eukan edo zer gura eban, gure eskubideko jauntza alboratuz, errege ta erlijiozko katolikotasun naste borrhaste orreikaz euskal gizartearen sinismena geiago nastuz, berezko legearen aurka ta zentzunbageko aberri asmakuntzan barria zan, espainitar Laterriaren katoliko aberkuntz lokatzetara bideratzeko.

(1) Gero, oldezko-gudari auk Nafatar kideakaz batera izango zan Zumalakarregiren asierako guldaloztea. (2) Beltz-izkribu = panfeto, libelo, escrito en el que se denigra o infama a personas o cosas.

1.833ko urtean Azaroaren 2an Zumalakarregi ta Imaztar Tomasek, espainitar guda nagusi liberalak, beragaz zalantza asko eukinda ez ebelako jakin ze alderditan egoan, iges egiten dau Iruñako gudaitegitik.

1.833ko urtean Azaroaren 14an Zumakarregi, Nafar karlistaren guda nagusi izendatu eben, eta Zumalakarregik alde bietatik gauzak argi geratu zitezen, Vn Karloseri eskatuz, bertan ziñatu ebazan onek, Nafarroako Foru, Bizkaitar Jauntza eta erregezko legeak.

1.833ko urtean Abenduaren 5ean, konstituzio barriaren guda nagusiak, guda-karlista nagusiak atxilotu gura ebazalako, Aldundiko jaurkintzaren ordezkioak, Iturralde koronelaren Agilarreko etxean batu ziran, eta Nafarroako 1go Karlistaren batzar lez izendatuta geratu zan batzar au.

1.833an Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eben Zumalakarregiren guda nagusitasuna.

1.833an Abenduaren 7an Zumalakarregi ipini eban Araba ta Bizkaitarren lurraldeko guda nagusi lez. Eta erabagi onegaz Zumalakarregi, Ego Euskalerriko lau lurraldearen guda buru nagusi geratuta, Nafarroa egokitu eban, bere orokorrezko guda agintaritzaz lez.

18. *1.833-1.839ko urte bitartean, karlistadaren lenengo guda.*

19. *Europak:*

Europako lurraldea, katolikotasunean aberritzeko batzango zaleak, urduritasun aundiz begitzen eban karlistaren aurkako borroka au, Napoleonek porrot egin ondoren, euki ebezan batzangotasunezko asmoak, urrun geratzen ziralako, Europaren Berezko Errigizartean alde.

Eta borroka auek nai ta Europa Laterrietan batzangotzeko alde ibili ziranak irabazita, Laterri zatizka orreik geiegi zirala usten ebalako, Hitlerregaz, Europa osoa menderatzen joan ziran beren lurralde guztia agintaritzaz baten batzeko.

Baiña, Berezko Legearen aurka diralako eritzi orreik, European gaur ainbeste gizaseme ilda gero, asieran euki genduzan bardiñezko arazoen aurrean kokatuta gagoz.

2.010eko urtean Ekaiñaren gaurko egunetan, Sitges en batzartu diran jakintsu orrekin eritziaren, Europaren lurraldeko jaurkintza, Berezko edo Jendekuntzazko errien gainetik, daukaguzan menpetzailletasunezko laterrietan iraun egian alde dagoz.

Jakintsu orreik ez dabe gura ba, danok arduradunak izan gindezan ?.

Noren ardurak gurako ote baiña, Nortasunezkoarenak ala Norkerizkoarenak ?.

Noiz argitu, edo noiz arte, betiko zentzugabekeri orregaz ?.

Izadi au merkantil lez artuta, irabazteko leku bat lez ikusten dabenentzat, ala, berezko edo Jaungoikuaren legeditasunak erakusten daben bidetik, Izadi au, gizaren ekanduzko banakuntza lez edo bardintasunezko ordezkari bat bezela ikusten dabenentzat ?.

Europa, Afrika, eta Ekialdekoak katolikotasunean batzangotzeko eritziakentzat, euren aberastasunezko batzango arloetan, berdintasunezko ordezkari batzangotzat, nortasunezko asmakuntzaren gora beran, asko jokatzen ebelako, asi ziran erri ezberdin borondatean aurka, katolikotasunean batzangotzeko borroka onek.

Orregaitik, Erdiugarte au euren ustez, espainitar katolikoarena bakarrik izanda ??, oneik, katoliko aberkidetzan batzeko, irabaziko mozkin guztiak euren eskuetan bear dabez, aberri katolikoaren kontrola, euren eskuetan egon zedin.

Eta idazlan onen zentzuan ezartzeko, Zumalakarregi il zan arte, beren eraso aldiko borrokatari sartuta, alde bietatik aukeratu ziran guda nagusiaren bizitza aurkeztuko dautsuet. Bai eta, alde biak, zelako laguntza euki ebezan Europaren Laterriko errien aldetik.

Konturatu gaitetzen, Europaren lurralde guztia katolikotasuneko erlijioaren zentzuz, eta asmatu eben konstituziozko erri barrien laterriko jaurkintzan antolatze, zelako nasteak egon edo sortu ziran, errigizarte ezberdin eritziako zentzuetan, Peninsula onen gizaseme alabak alde baten edo bestean jokatu egien.

Kontuan artu bear geunke, orainarte egin diran menperatzailetasuneko ekintza guztiak, katolikotasunaren aberkeriko norkegiagaz, guda nagusiak euki eben guda indar, eta sal-erosle merkantil liberalaren diru bidez egin dirala. Europa osoan erlijiotik asita, nagusi orreik gaur lez, euren eskuetan euki dabelako, bizitzeko bear doguzan tresneri guzti orreik.

Nortzuk eta noren alde egin zan borroka au ?:

-Europar, In Isabelen buruz: nortasun bageko edo norkei barri aldeko katolikoan aberkide-tuz batzeko zaleen, espainitarrik, Prantzia, Britania Aundia, eta Portugal izan ziran.

-Frantzia ta Britania Aundia, orduko lantegi zalekerian⁽¹⁾ ta diru gosean⁽²⁾ aurreratuen artean egon ziranak, Portugaleri be diru laguntza emon eutsoen, denbora orreitan espainitarren antzera ibili zalako.

-Frantzia, Portugal eta Britania aundiak bialdu eben laguntza: espainitar erri-dirutzaren iraspenari dirua emonda, prestamen edo baikuntzaren eran⁽³⁾, ta guda mutillakaz.

-Britania Aundiak: Jorje Lazi Ebans guda nagusiaren agindutara, oldezko gudariekaz osotutako Britaniako laguntzaile taldea⁽⁴⁾, eta Royal Nabik beren itsas ontziekak, itsas bazterretatik inguratzeko laguntzarekin.

-Prantzezak: Atzerritar Talde edo Legioa. Eta orrez gain, Añamendiko muga eta espainitar itsas bazterrek zainduz.

-Portugalek: Das Antaseko Baroi guda nagusiaren agindupean, laguntzalle talde bat.

-Eta Vn Karlos Maria Isidoren alde: Errusia, Austria, Prusia, Napoles eta Aita Santua Eleizaren Laterriagaz⁽⁵⁾.

Zelako jokoa euki eban emen, eleiz katolikuak, bera izanda katolikotasunean aberkidezeko batzango zale?.

Eta gero ikusiko dan lez, Karloseri laguntza aundia emon arren, geien itxurazkoa zala esaten dabe edestilariak. Goitik ostonduta agintzen eben katolikotasunaren batzango zaleen erpeak, luzeak izan ziralako, guda nagusi batzuk saldukeri asko egiezen.

1.833ko urtean Iraillaren 29an bere alaba Isabelek iru urte eukezala, VIIIn Fernando il zan, eta bertan izendatu eben erregeña lez IIIn Isabelen izenarekin, 1.833-1.840 urte bitartean, bere ama Maria Kristinaren errege ordezkoztaren jaurkintzan.

1.833ko urtean Urrillaren 1ean VIIIn Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro Molinako kondeak, Portugalen I Migel printzea, ta bere adiskidea zanagaz egoala, Abrantesetik, bera izendatu zan espainitarren errege.

(1)Lantegi zalekerian = industrialismo. (2) Diru gose edo zalekeria = merkantilismo. (3) Prestamen edo baikuraren eran = en forma de créditos para el tesoro. (4) Britaniako Laguntzaile Taldea = la legión auxiliar Británica. (5) Eta Aita Santua ta Eleizaren laterriagaz = y el Papa con el estado pontificio. Y esto difícilmente se entiende, por que la iglesia católica, es la que organizó a los nuevos constitucionalistas, y también a las viejas leyes de las todopoderosas monarquías, con lo que optó por las dos hasta que una quedase vencedora, pata volcarse por entero a esa nueva constitutiva, con la que amparar el sempiterno Nacional catolicismo.

1.833ko urtean Urrillaren 1ean eldu zan Euskalerrira, VIIIn Fernando il zanaren barria, eta Donosti ta Iruñako Uri nagusiak geratu ziran II Isabelen alde, espainitar gudalozte indartsuak euki ebezalako gudaletgiratuta.

1.833ko urtean Urrillaren 2an Arabako ordezkari Uhagon´tar Pedro Paskualek Madrilletik oarpena bialduta, gabeko ordubi ta laurenak ziranean eldu zan Bilbora VIIIn Fernando il zanaren berria, eta zer egiteko premiñ aundian aurkitu ziran Bizkaitar Aldundi ta erritar guztiak.

1.833ko urtean Urrillaren 3an, Gazteiz eta Bilbaoko Uriak gudu indar gitzi euki ebezalako, Vn Karlosen alde geratu ziran, eta Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Bilboko matxinatuak eta Aldundiko batzar kideak bideratu ebazanakaz, Mota zuzendaria⁽¹⁾ eta Aldundiko Uhagon ordezkaiak baitu edo atxilotu ebazan. Eta Bilboko erria izan zan Vn Karlosen ikurra leen goraldtu ebana.

1.833ko urtean Urrillaren 4an Bizkaitarrak, Karlos Maria Isidro izendatu eben Bizkaiko Jaun lez, eta Foruak berrezkuratzeko, errege barriaren aldeko ordezkarien orokorrezko batzarra antolatu zan, Orbe ta Eliotar Jose Mari Baldespinako Markesa, zuzendari zala.

1.833ko urtean Urrillaren 4an, Ingalterra ta Frantziko kontsuladuetatik, Bilboko Udaletxera bialdu ebezan agiri bi, euren menpekoak eta eukezan etxeak babestu egiezan.

1.833ko urtean Urrillaren 4an, Zea ta Bermudeztar Franzizkok aldarrikatu eban IIIn Isabelen aldeko agerkaia, Vn Karlos Maria Isidrorentzat eragozpen andienetarikoa izango zana, errege aulkian ezartzeko.

1.833ko urtean Urrillaren 4an, Orduña ta Balmaseda matxinatu ziran, eta iges egin eban Portugalete´tik, euki zituzen agintariak.

1.833ko urtean Urrillaren 5an Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Karlosen aldeko Aldundia sortzen dau Bilbon.

1.833ko urtean Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama guda nagusiak, Karlos Maria Isidro izendatu eban errege Vn Karlosen izenarekin.

Errege bi batera ezin konpondu, eta gaiñera, eritzizko sinismenean aurkakoak izanda gixiagi, anai arteko guda piztu zan.

Eta Euskalerraren batzarrak, biltzarkide ta bai Foru Aldundikoak, Vn Karlosen alde borroka oneitan kokatu ba ziran, Karlosek, euskaldunak beste erri ezberdin batekoak garela jakinda, gure Askatasunezko Lege Zarrak babestuko ebazala ziñ egin ebalako, beragaz joan ziran euskaldunak, karlista ta isabelinoaren arteko borroka onetara.

1.833ko urtean Urrillaren 6an, Lorentzotar Manuel, IIIn Isabel´en guda nagusiak, Nafarroaren Arkoseko lenengo borrokaldian, karlistaren guda nagusi Ladron de Zegamatar Santos, eta beste 30 lagun atxilotu ebazan.

1.833ko urtean Urrillaren 7an Bilbaon baiña, Frantzizkotar Aita Negretek beltz izkribu⁽²⁾ bat argitaratu eban, gure Foruakaz ez ebena zer ikusirik, erlijioa eta leialtasunaren izenean, gudarako Jainkoaren babesa gura ezkeru, Karlos Maria Isidroren atzean joan zitezen.

Jakin gura neuke, Aita Negrete Prantzizko orrek, noren aolkua eukan edo zer gura eban, gure euskal jabetasuna alboratuz, errege ta erlijiozko katolikotasun naste borrate orreikaz, gure Euskal gizartearen sinismena ainbat nastezko lokatzetara bideratzeko.

1.833ko urtean Urrillaren 7an, Berastegitar Balentinen aginduan, Bernedo, Badayoz, Laguardia eta Baldegobiako guda mutillakaz Gazteizeko ateetara joanda, an egon ziran Isabelen

(1) Zuzendaria = corregidor. (2) Beltz-izkribu = panfleto, libelo, escrito en el que se denigra o infama a personas o cosas.

guda indarrak Donostira iges egin bear izan eben, eta bera sartu zan Urian Vn Karlosen ikurra goralduta.

1.833ko urtearen Urrillan, Gipuzkoako Aldundia Azpeitian egon zan, zer gertatuko zarenen zai.

1.833ko urtean Urrillaren 8an, Oñatin lenengo txinpartak biztuten dira, matxinatuak Alzaa gudal nagusiak bideratuta.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Lardizabaltar Inazio saiatzen da Seguran.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Iruñako Aldundia Vn Karlosen alde egoan, baiña Uriaren ormatik kanpo liberalaren guda indar asko egon ziralako, Uriaren gizarteari, bakea eta agindupea bakarrik agindu al eutsen, nai ta Aldundiak eukezan 8 arduradunetik 3 bakarrik Isabelen aldekoak izan.

In Isabel'en aldeko liberalak, Donostia, euren Euskalerriko gualtegi kapitain nagusi lez izenduta euki eban, eta bera izan zan liberalaren zaindoki indartsuena.

Gertakizun oneik sortu ziranean, laster asi ziran Donostiko dendari, aberats eta liberal merkatariak, Sagastitar Joakin agindupean Uriaren babesa antolatzen. Ez geienak In Isabelen aldekoak ziralako, bildurrez, an egon ziranak, Nafatar Karlosen aldekoak ziralako baizik.

Beste Uri nagusiak be laster asi ziran antolatzen, urte onen Azaroen Iruñak, erritarren guda talde bat antolatuta.

Bai Bizkaiko Aldundiak 200 edo 300 erritar, Aranatar Antonio, Orbegozotar Gabriel eta Lizarratar Migelen agindupean. Gazteizen, Baldes gudal buru liberalak aginduta, beste erri talde bat izkillatuz, Uranga karlistaren erasotatik babesteko.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Kastañontar Federiko gudal nagusi kapitainak, gualtegi nagusia Donostitik, Tolosara aldatzen dau, eta Azpeitiko erria, Iturriagatar Karlos Bernardoren aginduan, Vn Karlosen alde kokatzen da.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Nafarroako Sola'tar Antonio errege ordeak, Ladron de Zegamatar Santos, tiros il egiela agindu eban.

Kontuan euki bear dogu, In Isabelen aldekoak denbora oneitan, uritarrak zirela eta Karlosen aldekoak nekazariak geien.

Eta karlistak nai ta saio aundiak egin, inoz ez ebazan Uri nagusirik menperatu.

1.833ko urtean Urrillaren 11n, matxintasuna Bilbotik asi, ta Santander, Araba eta Gipuzkoara zabaltzen doala, Oñatin, Alzaaren agindupean "Jainkoa, Lege Zaar edo Foruak eta Aberri ta Erregea"ren izenean matxinatu ziran.

1.833ko urtean Urrillaren 12an Irunen, Urtizberea gudal nagusiak karlistaren beste saio bat egiten dau.

1.833ko urtean Urrillaren 14an, Nafarroako Solatar Antonio liberal errege ordeak, guda legea aldarrikatzen dau, eta Karlosen aldeko gudal nagusi Ladron eta Zegamatar Santos, Iruñan tiros il eban, guda onen leenengo odol aitorle izan da.

1.833ko urtean Urrillaren 17an, Madrilleko jaurkintzatic Vn Karlos Maria Isidro euki ebazan jabetasunezko lurak eta diruak liberalaren legez kendu eutsoezanean, bere erantzunean iru gauza oneik esan ebazan: "**Jakiñean geratzen naz**"; "**Ikusiko dogu nork daukazan eskubide geiago**"; "**Nik, neureak erabiliko dodaz**".

1.833ko urtean Urrillaren 18an, karlisten leenengo batzarra eratu egiten da Azpeitian, eta Gipuzkoako agintari lez, Lardizabaltar Inazio Koronela izendatzen dabe.

1.833ko urtean Urrillaren 20an, Erasotar Benito Frantzisko karlista gudal nagusiak, Iruña mendetu gurean porrot eginda, Frantzira iges egiten dau.

1.833ko urtean Urrillaren 22an, lenengo gudaloztearen mogimenduak azten dira eta Vn Karlos'en aldeko 3.600 gudarien talde batek, liberalaren aurkako lenengo borroka eukiten dau Tolosan.

1.833ko urtean Urrillaren 22an, Nafarroako Aldundiak, Iturralde gudal nagusiaren gudalozteari adierazi eutsen: *"Nafarroan, sekula ez zala egon Salikako legerik"*.

1.833ko urtean Urrillaren 25ean, Altamirako kondeak erregetzaren ikurra eroala izendatu eben II In Isabel, espainitarren erregina lez.

Arauko-jai onen ekitaldi au ospatu zanean, nai ta batzuk onartu arren, Europaren Iparraldeko errien ordezkari guztiak urten eben espainitarren lurraldetik, eta Zea ministruak, Austriaren Metternitzeko printzea alegindu ebanean, II In Isabel baieztu egien, onen erantzuna: *"gogoratuko zala, Urrillaren 4an berak aldarrikatuko agerkaiak emoten ebazan emaitzak ikusi ondoren"* erantsun eutsen.

1.833ko urtean Urrillaren 30ean Donostiko liberalak, II In Isabel, erregina lez izendatzen dabe, Aldundiko ordezkariak oiualdi orretan agertu barik. Ordezkarien ustean beti lez, leen, erregearen il otoizketak ospatu bear ziralako.

A ta guzti, Donosti izan zan lenengoa, II In Isabeleri, leialtasuna eskaiñi eutsona.

1.833ko urtean Urrillaren borrokak asi zirenetik, Isabelen liberalak karlistai, fazizta lez euki ebezan, eta arrapatzen ebezan gudari guztiak, tiroka iltzen ebezan, karlistak mendeku edo ordain lez bardin eginda. Barrundiko Eredia errian izan ziran, odolkoiezeko fusilamendu orreik.

1.833ko urtean Azaroaren 1ean, Erreterin sartzen dira 40 karlista, eta aurkitu ebazan janari ta zaldiak eroan ebezan.

1.833ko urtean Azaroaren 2an espainitar liberal gudal nagusiak ez ebelako jakin, Zumalakarregi ta Imaztar Tomas, ze alderditan egoan jokatzan, eta beragaz zalantza asko euki ebela jakin ebelako Tomas'ek, iges egiten dau Iruñako gudaltegitik.

1.833ko urtean Azaroaren 5ean karlistak, Iruñako Aldundiari eukin Uri ordegotzari jaramon egin barik, Agilarreko Iturraldetar Franzizko koronelaren etxean egiten dabe lenengo batzarra, karlistak uste ebalako Aldundiko batzarkideak, liberal gudalozteagaitik baituta egon zirala.

1.833ko urtean Azaroaren 14an Zumakarregi, Nafarroako karlistaren gudal nagusi izendatu eben, eta bertan Vn Karloseri, baldintza onen eskaera bidez: *"Nafarroako erregetzaren Foruta Legeak zaindu egiazan"* ziñez itz emoten premiari eban.

1.833ko urtean Azaroaren 15ean Lizarra'ko uria karlistak, Nafarroako erreñuaren jaurlaritza lez izendatu eban.

1.833ko urtean Azaroaren 21ean, Lorentzotar Manuel'ek, liberal gudal nagusiaren agindupean egoan Sarsfieltar Pedro gudal nagusia, Urizarreko be-aldean Karlosen aldeko Merinotar Jeronimo apaizaren gudu indarrak aurkitu ta ezereztuta, Gazteizen sartzen da, eta nai ta agintariak tiroz il, garaipeneko parkazioaren ondorioz, Gazteizeko guda taldea⁽¹⁾, Burgos, Ribabellosa, Aiala eta Billanuebako batalloi talde karlistak, liberalaren gudaloztean geratu ziran.

1.833ko urtean Azaroaren 25ean, liberalaren aldeko Sarsfieltar Pedro gudal nagusiak, Bilbo menperatzen dau.

Eta Sarsfield'ek, bere Erdiugarte onen Iparraldeko nagusi tasunetik egindu eban parka-
mena, Madrillen txarto artuta, ta gaiñera, Bizkaia menperatzeko 80.000 gudari geiago eskatu

(1) Guda taldea = regimiento, equivalente al "tercio".

ebalako, agintaritzatik kendu eta Baldestar Jeronimori emon eutsoen agintaritza ori, Sarsfield, Nafarroako erregearen ordezkoa izendatuz.

Eta Gazteiz ta Bilbaoko Uriak liberalaren agindupean jausita, Kastañon guda nagusia oillartuta, Gipuzkoaren Foruak izan ezik, Nafarroa, Araba ta Bizkaiko Foru edo Lege Zarrak ezereztu egiten dauz.

Onen ostean espainitarrak, Ugarte erdi onen lurraldea, 49 lurraldeetan banandu ebenean, Nafarroa, espainitar beste lurralde bat lez geratu zan. Eta emen asten dira Euskalduntzat, Foru edo Lege Zaarraren leentasunak guda onetan.

1.833ko urtean Azaroaren 30ean Federiko Kastañon guda nagusi kapitaniak Tolosatik, Urrillaren 14ko gudu legearen bidez, Bizkaia ta Araba guda legepean ezarri ebazan.

1.833ko urtean Abenduaren 5ean, guda konstituzionalak atxilotu gura ebazalako, Aldundiko jaurkintzaren ordezkook, Iturralde koronelaren Agilarreko etxean batu ziran, eta Nafarroako 1go Karlistaren batzar lez izendatuta geratu zan, batzar au.

1.833ko urtean Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eben Zumalakarregiren guda nagusitasuna.

Eta erabagi onegaz Zumalakarregik, Ego Euskalerriko lau lurraldeen guda nagusi geratuz, Nafarroa egokitu eban orokorrezko guda agintaritza lez.

1.833ko urtean Abenduaren 14an, Donostiko batzarkide batek, In Isabel izendatu eban erregeña lez, Errenteriko batzarra, Olañeta zinegotziagaz ordezkatuta egonda.

1.833ko urtean Abenduan Zumalakarregik bere guda lozteakaz, zabaltasunera urten barik, bere guda indarragaz, trebetasunezko almen edo egokitasuna⁽¹⁾ emoten dau, eta eraso txiki aldiak ugaritu ondoren, liberalaren Kastañon guda nagusiak bere asarre bizian idazten dau: ***“Euskal lurralde onetan ez dagoela euren aldeko zintzotasunik, Donostia eta Eibarrek erakusten dauana baiño”***.

1.833ko urtean Abenduaren 21ean Sarsfield´eri ordezkatu eutsen Baldes´ek guda agintaritzan, eta Noriegatar Jeronimok, Gazteizeko gazteen arteko batalloi bat izkillatzeko agindu eban.

1.833ko urtean Abenduaren 24an Bizkaiaren Foru Aldundiko liberalak, euren atsekabea agertu eben, erriko Udalak ez eutsielako emoten laguntzarik.

1.833ko urtean Abenduaren 29an Lizarrako Merindadearen Berruezako ibarrean, Nazar eta Asartako erritxoetan Zumalakarregik, borrokazko leenengo saioa egin eban liberalaren Lorentzo, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño guda nagusiaren aurka, eta bala edo tiroin gitxi euki ebazalako, alden du bear izan eban.

Baiña pozik, bere guda mutillai nai ta borroka baiño ariñago, ***“etsaiari lepoa emoten eutsotz, berak tiroka ilgo ebazala esaneko agiñak erakutsi ba eutsezan”***, ondo baiño obeto borrokatu ziran, liberalaren 350 guda mutil il eta besteak iges aldi ipini ebazalako, Lorentzo eta Oraaren gudu indarrak.

Tomasek, garaipen onen ostean, Lizarrako merindadean Ameskoazeko ibarrean txokoratzen da, eta ortik sasi gudan ainbat irteera eginda, 1.835erako Euskalerriko osoagaz egin zan.

1.834ko urtean Urtarrillaren 8an Eibarko Udaletxeak, karlistak egin eben eraso ostetik, 14-70 urte bitarteko erri gizonak ta 100 emakume izkillatu ebazan.

Eta Jauregi ta Jauregitar Gaspar´ek Nafarroan, liberalaren guda nagusi izan zanarentzat, 180 gazte gudari izkillatuak antolatuta ebazan.

(1) Almen edo egokitasuna = aptitud, idoneidad, habilidad, competencia, acomodación.

1.834ko urtean Urtarrillaren 15ean Maria kristina erregeiñak, Zea ta Bermudeztar Franzisko kentzen dauz jaurkintzatik eta bere ordezt Martinez de la Rosatar Franzisko ipini eban.

1.834ko urtean Urtarrillaren 17an, Zumalakarregik, Aezkoa ta Orreagako lurraldeakaz egin zan, eta gero Salazar eta Erronkarin sartzen da.

1.834ko urtean Urtarrillaren 22an: Karlistaren garaipen auek, guda gogortu egiten dau, eta liberalak erregezko agindu bategaz, erritarrak bildurtu gurean, au esaten eban: Arrapetan ziran fazizta guztiak, Afrika, Filipinas eta Kubako kolonietara bialduko ebazala.

1.834ko urtean Urtarrillaren 24an, Nafarroako Solatar Antonio erregearen ordeztakoak: *“Etsaiaren aldaketa edo mogimenduak, ez ebazanek salatzen, Alkate, zuzendari edo ta apaizak atxilotu egingo ebazala”* agindu eban”.

1.834ko urtean Urtarrillaren 27an karlistak, Orbaizetako izkilluen lantegiekaz egiten dira, eta Donostia inguratzen dabe, postaren mezuak ebagita.

1.834ko urtean Urtarrillaren 27an, Kastañon gudal nagusiak euskaldunak, *“Gizatxar lez”*⁽¹⁾ zelakotu ebazan.

1.834ko urtean Otsaillaren 11n Zumalakarregi keiñatsu, Nafar Aldundikoak eriopetu ebazan.

1.834ko urtean Epaillaren 2an, Kesadatar Bizente Jenaro kristinoa, ordain edo mendekuaren⁽²⁾ politikan azten da.

1.834ko urtean Epaillaren 2an Oñatin, Esparteroren indarrak zirikitzen dabez.

1.834ko urtean Epaillaren 16an karlistak, Gazteiz erasotzen dabe, eta Zumalakarregik Urian sartuta, Jauregitar Gasparren 118 txapelgorri tiroka il ebazan ordain.

Baiña Esparteroren gudaloztea Gazteiz askatzeko urbiltzen egoala jakin ondoren, alde egiten dau Gazteizetik.

1.834ko urtean Epaillaren 22an karlistak, Portugalete inguratzen dabe.

1.834ko urtean Epaillaren 29an Zumalakarregi oartuta, Espartero urbiltzen egoala, Gazteizetik urten eta Muro ta Abarzuzaren bitartean menderatzen dauz Kristino liberalaren indarrak, auek Lizarrarantza alboratu bear izanda.

Zumalakarregik emendik aurrera, zaldun guda edo sasi gudako guduxkak⁽³⁾, amaibakoak ugaritzen asi zan, Liberalaren gudalozteentzat oso galbidetsu edo arriskukoak biurtuz ibilbi-deak, eta ortik aurrera emon jakon asiera benetako borrokari.

1.834ko urtean Jorraillaren 10ean, espainitar gortekoen aginduz, Martinez de la Rosatar Franzisko antzerkillea bialdu eben Euskalerrira argitu ebazan erregetzazko araudi barriakaz, eta Euskaldunak, Frantzisko iraultzaren batzangotasun eritzi edo mendeko araudien eragipenak, espainitarren oikuntzagaz⁽⁴⁾ alkartzen ebazala ikusita, Euskalerriko lurraldeetan ez ziran onartu lege orreik, gure oiturazko Lege Zarrak alboratzen ebezalako.

Eta Donostiakoak izan ezik, Euskalerraren iñungo Aldundi edo ta Udaletxerik ez ebelako lege orreik onartzen, diruaren zigor gogorrekaz, beartu ebezan eritarrak, araudi orreik ez ebazan sinatzen edo ziñezpena emoten, bai ta ordezkariak, euren biltzarretara ez ba ebezan bialtzen.

1.834ko urtean Loraillaren 20an Bizkaia ta Nafarroako Aldundiak ez dabe onartzen, erregezko agindu orreik, ordezkarien auteskunde gora beran agintzen ebana, eta Uztailaren lenengo egunetan ostera, zigor gogorren diruakaz eta Kadizeko araudi barri ori sinatuazota, beartuta geratu ziran euren lege batzarretara ordeztakoak bialtzen, nai ta euskaldunak, euskal batzarretara joan bear ziran ordezkariak, aukeratzea lortu.

(1) Gizatxar = canalla. (2) Mendekuaren = Venganzas. (3) Zaldun gudak edo sasi-gudako guduxkak = escaramuzas en guerra de guerrillas. (4) Oikuntzagaz = al uso, costumbre, o tradición española.

Eta beartutako ekintza oneik izan ziran, Euskaldunak gogortu ebazanak, lau lurraldeak Karlosen aldean geratu zitezten. Lau Uri nagusi, Getariko San Anton eta Beobiko gaztelu erriak izan ezik.

1.834ko urtean Loraillaren 20-26 egun bitartean Zumalakarregik, Kesada liberal gudal buru nagusiaren indarrak menperatzen dauz, eta Agurain erri inguruko Opakuan, O'Donnell gudal nagusia atxilotuta, Altsasu ta Urbasapean, ainbat guda tresneri lortu eban. Urrengo egunetan, Araba ta Nafarroako Udalak, karlosen aldera aldatu ziran.

1.834ko urtean Uztaillaren 9ko arratsaldean Vn Karlos Inglaterratik iges eginda, Frantzitik sartzen da Euskalerriko Egoaldean, Zugarramurdiko bidetik.

Eta egun berean, Kesadatar Bizente Jenaro Kubatarra kenduten dabe espainitarren gudal agintari nagusitik, Jorraillaren 21 eta 22an Altsasun, Loraillaren 26an Muez, eta Bagillaren 19an Dallon, Zumalakarregik astindu ederrak emon eutsozelako, Rodil ta Gallosotar Jose Ramonengaitik aldatuta.

Lukurreri ta gogorkeri baten biurtu zan gudaren nor geiagoko ordainketa au, Dagonilla ta Iraillan Arantzasu ta Berako lekaidetxeak erre ebazanean. Bai Zumalakarregik, Etxarri Aranzan bildur ziran gudariai aurrera egiteko, tiroz iltzeko agindu ebanean. Eta Urrillaren 14an Lorentzo gudal nagusi liberalak, karlistaren alde egon ziran alkateai tiroz iltzeko keñuak eginda, karlista gudarien gurasoak erbesteratu egingo ebazala eta abar.

1.834ko Uztaillaren 12an Vn Karlos Elizondora etorri zan, Auñamendiak Dantxarineako mugatik aldatuta.

1.834ko Uztaillaren 12an Zumalakarregi'tar Tomasek, Baztaneko Elizondon Vn Karlosegaz batzartuta, Euskal Lege edo Foruak ziñeztuazo eutson, eta onek onartu ebazan Zumalakarregik eskatzen eutsona, Vn Karlosek Zumalakarregiri, bere gudalozteen aintzindari⁽¹⁾ nagusi izendatuta.

1.834ko urtean Uztaillaren 26an Zabala Vn Karlosen gudal nagusiak, Eibarreri, Donostikoak lez liberalaren eritzikua zalako, erasotzen dautso, eta Eibartarrak euki eben gizon izkiviludunez gain, oldezko edo gogozko emakumearen batalloi bat antolatu eban, Zabalarri aurre egiteko.

1.834ko Uztaillaren 30ean Zumalakarregik Artazako mendatean, Rodil, Karrera, Espartero, Manzanedo eta Lorentzo espainitar Kristinatarren gudal buruzagai, astindu ederra emon eutsen.

1.834ko urtean espainitarrek, Zumalakarregiren aurka ezin ebelako ezer egin, ta ainbeste astiñaldi artuta bildur, Ingalaterra, Frantzia eta Portugalarrari laguntza eskatuz, laukoteko baltzu bat egin eben, Europako errege liberal aldetik laguntza aundiak artuz, Euskalerrri ta Katalunia-ko erriak, galzorian eukezalako.

Orregaitik ikusten da argi emen, liberalak, katoliko aberkideen izenean batzangotzeko berezko errien menpekotasun oiek, Europa ta Mundu osorako, arazo gogorrek izan zirala, alosokerizko, liberal edo aberats eritzikoak diruen billa edo ta nai berezko errigizarteak menperatzeko, Goiko Jaungoikuaren lege guztiak zapaldu arren, beti jaurkitu gura izan dabelako berezko errigizarteen eskubide gaiñetik gaur lez.

Ekintza fazizta auek aurrera eroateko gaiñera, K.o.325eko urtetik antolatu eben Katoliko aberkidearen erlijio orregaz, euren aldeko sasi-jainkoaren agindu lez biurtu ebazan egiten ebazanak, eskubidearen jabedun lez agertzeko, norkeriz asmatzen dabezan guztiak.

(1) Bere gudalozteen aintzindari nagusi = jefe supremo de los ejércitos karlistas.

Mundu onen edestitik zear guda txiki ta nagusiakaz, ainbat odoljariozko sarraskiak egin dabez eten bage, ezeren lotsa barik.

1.834ko Dagonillan, karlistak Bermeo erasotzen dabe.

1.834ko urtean Dagonillaren 9tik Azaroaren 4rarte Vn Karlosek, guda gogorrean asten da espainitarren lurraldetatik, Rusia, Prusia eta Austroungaro kaizartzaren laguntzagaz.

1.834ko urtean Dagonillaren 19an Zumalakarregik, San Faustoko arkaitz mendateetan, Karondolet baroi gudal nagusiaren indarrak menderatuz gain, 6.000 ogorleko, 3.000 izkillu inguru, ta espainitarren jaurlaritzatik edo gudal agintaritzatik mezuak emoteko, ibiltan eben itz berezien liburua⁽¹⁾ lortu eban.

1.834ko Iraillaren 5ean karlistak, Bergara erasotzen dabe.

1.834ko Iraillaren 14an Bianan, Vn Karlos Euskalerriko Ego aldera aldatu zanetik, Rodil eta Gallosotar Jose Ramon IIIn Isabelen gudal nagusia, bere atzetik ibili zan noz arrapauko eban, eta Zumalakarregiri parebako aukera agertu jakon euki ebazan 240 zaldun gudariakin saiatu ta talde ori atonduteko.

Karondolet baroi gudal nagusi liberalak, jakinda Bianan egoala Zumalakarregiren zaldun talde ori, bere 300 zaldun eta 600 gudariakin bertara joan zan, eta emem borrokatu ziran lenen-goz, karlistaren zaldunak, kristino liberalaren zaldunakaz.

Karlistak 200 zaldun liberal il ondoren, garaipen aundia lortu eben.

Eta Tomasek, emen egiztu eban bera gai zala, egizko gudalozte bat antolatzeko.

1.834ko urtean Iraillaren 18an Andetxaga, Sopelana ta Marrasa karlosen gudal nagusiak, Burgosen sartuta, Billarkaioaraino eldu ziran.

1.834ko urtean Iraillaren 28an Liberalak, Kesada gudal nagusiari ordeztu eutson Rodil eta Gallosotar Jose Ramon gudal nagusia kentzen dabe agintaritzatik, Zumalakarregiren aurka utsegite asko euki ebazalako. Lorenzotar Manueleri emonda kristinoen agintaritza ori.

1.834ko urtean Dagonil eta Iraillako ille oneitan, gudako borroka oneik lukurreri ta mendekuak izatera biurtu edo gogortu ziran, eta kristino liberalak, Arantzazu ta Berako lekaretxeak erre ebezan.

1.834ko urtean Urrillaren 14an, Lorentzotar Manuel liberalaren gudal nagusiak, karlistaren alde egiten eben alkateari, eriotzera zigortu ebazan, eta Vn Karlosen taldetan borrokatzen ziran mutillen gurasoai, erbeztartzeko zigorra agindu eutsen.

Eta zigortasun orreik gitxi ba ziran, beazun edo gibelesko ur beltzak⁽²⁾ zabaldu ziran Euskalerriko lurraldeetatik.

1.834ko urtean Urrillaren 21ean Zumalakarregik, Burgosetik Logroñora guda tresneriekin beteta joan zan sugurdiari eraso eutson, eta eroan eban guztiagaz geratu zan.

1.834ko urtean Urrillaren 27an Arabako Alegria eritxoan, Txintxetruko zelaikadan Zumalakarregik, Rodil eta Gallosotar Jose Ramonen agindupean egoan O'Doyle tar Manuel liberalen gudal nagusiari, astindu ederra emon eutson. Alde bietatik 600 gudari inguru il eta O'Doyle gudal nagusia, atxilotuta.

1.834ko urtean urtean Urrillaren 28an Zumalakarregik, Osma tar Joakin gudal nagusiari, Elizondoko Etxebarriaren bidean, ostatu inguruko lekuan, astindu ederra emonda, onek ez eban euki denborarik, zaldiari bira egiteko be, eta iges egin bear izan eban.

(1) Itz berezien liburua = libreto con las palabras codificadas en clave. (2) Beazun edo gibelesko ur beltzak = cólera.

Kesada berak ezarri ebazan guda lege bidetik, arrapetan ebazan gudariak nai oiñezkoak edo agintariak izan, danak tiros ilten ebazan, eta lege orreri erantzuna edo ordezkioak emoteko Zumalakarregik, Uztailaren 29an O'Doyle' tar Manuel tiros il eban.

1.834ko urtean Azaroaren 4an, espainitarren jaurlaritzak, Espoz eta Illundain ta Minatar Franzisko naparrari agindu eutson, Zumalakarregiren aurka joan zedin, ia geratzen ebazan Tomasen gudako trebetasunak.

Eta Espoz eta Illundai ta Minatar Franzisko naparra, bere gudaloztea antolatzen asita, bere aginpean beste napar agintari batzuk artu ebazan: Jauregi *"Artzaia"* ta Oraa *"Otso buru zuria"* esaten eutsoenai, bai Goienetxe, Iriarte, Gurrea eta abar.

1.834ko urtean Azaroaren 16an, Frantziaren Orleanseko I Luis Felipe erregearen itsas ministroa Hyde de Neubilleri, Lataillade moxorrotuak bialdu eutson mezua aipatu bear dogu: *"Añamendiren mugako mendikateak babestu egiazala, Euskaldunen betiko askatasuna begirunez artuta"*.

1.834ko Abenduaren 12an Fernandez eta Kordobatar Luis gudal nagusiak baiña, geiago bere agindupean egon zan Beraingo Oraa ta Lekumberritar Martzelinori esker, onek, Espoz eta illundain ta Minatar Franzizkorekin Napoleonen aurka ibilita, sasi gudako guduxkan jakintsua zalako, eta euki eben gudalozte sendoagaz, Zumalakarregiri irabazi eutson Berruezako ibarrean, Mendaza ta Asarta erritxoen bitartean kalte aundi barik, Tomasek iges egin ebalako.

1834ko urtean Abenduaren 15ean Arkijaseko leenengo borrokan, guda indar asko egon ziran alde bietatik.

Zumalakarregik baiña, Fernandez ta Kordobatar Luis, eta Oraa ta Lekumberritar Martze-liñoren guda indar aundiak, Ega ibaiaren baztarretik Arkijaseko basartera jakin ebazalako eroaten, berak urten eban garaipen aundiagorekin. Ekintza orregaz, Espoz ta Mina' tar Franzizkori erakutsita, nogaz borrokatzen ibili zan.

1.835eko urtean Urtarrillaren 1ean Zumalakarregik, Lekaroz, Irurita ta Elbetean sartuta, liberalak Elizondo babesteko euki ebezan indar ingurura urbildu zan.

1.835eko Urtarrillaren 2-3ko egunetan Zumalakarregik, Jauregitar Gaspar *"Artzaia"* esaten eutsoen liberalen gudal nagusiaren aurka, nai ta jakin arren onek Karratala espainitar gudal nagusiaren laguntza euki ebela, lortu eban Ormaiztegiko Zelaetan geratzeko.

Zumalakarregik ekintza orregaz, Jauregi ta beren txapel gorriaren ibillaldiak ebagiz gain, Espoz ta Minaren joan etorriko amarrukeriak moztu ebazan, ostean Baztaneko lurraldeagaz geratzeko.

1.835eko urtean Otsaillaren 4an Zumalakarregi azten da Elizondo inguratzen.

1.835eko urtean Otsaillaren 5ean Zumalakarregik, Lorenzotar Manuelen liberal gudu indarrak, oarkabetuta⁽¹⁾ euki ebazan Arkijaseko zubian.

1.835eko urtean Otsaillaren 6an Mina liberalaren gudal nagusiak, Okaña gudal nagusia bialdu eban Elizondo babesten, karlistak egin eutsen zelatakin baiña, Ziga errian babestu bear izan eban.

1.835eko urtean Otsaillaren 12an Zumalakarregik, elur aundiak egon arren, Ziga artzera joan zan, eta jakinda Espoz ta Mina' tar Frantzizko urbiltzen egoala, bertan itxi eban.

1.835eko urtean Epaillaren 12an Zumalakarregik, Espoz ta Mina' tar Frantzizkok bere naparrakin, Baztaneko ibarra artuta eukazanaren aurka joan zan, eta Gipuzkoatik asi ta Espoz

(1) Oarkabeen edo oarkabetuz = distraidos.

ta Mina´tar Franzizkok zabaldua euki ebazan gudal nagusiak, banan banan menperatzen joan da, Espozegaz, Etxarri Aranazeko Larremiar mendian aurkeztu zan, Tomasek bere aundienerikoko garaipena lortuz.

1.835eko urtean Epaillaren 14an Espozek bere iges aldian, Elizondoko karlistaren ingurutasuna apurtzea lortzen dau, eta bere asarre bizian erritarrat bosgarrenka berezitu ta tiros il da, Lekarozeko erria erre eban.

1.835eko urtean Epaillaren 19an Zumalakarregik, bere gudaloztearen indarrakaz babesteko, Etxarri Aranazera eldu zan, eta ariñago astindu ebazan gudalozteak, ostera aurkezten dauz Etxarrigaz geratu naian, eta gudalozte oneik menderatu ondoren, bere gudaltegira joan zan.

1.835eko urtean Epaillaren 21ean Frantzez Latailladeren zati biko bigarren mezuak:

1^a- *“Euskalerriko lurraldeak espainitarren erregetzatik kanpo, beti izan dirala Nortasunemezko askatasunekoak”*.

2^a- Eta *“Euskal erritarrengandik, Aldundiren orokorrezko diputaduen aginduak beti izaten dirala onartuak, Euskal Foru Legean lan egiten daben bitartean”* esaten eban.

1.835eko urtean Epaillaren 28an Esparterok, Bizkaiko Miraballes erria menderatu ondoren, Luyandoko erria erre eban.

1.835eko urtean Jorraillaren 6an Karnizer frantzez karlista gudal nagusia, Mirandako zubian liberalagaitik arrapauta, bereala tiros il eben.

1.835eko urtean Jorraillaren 7an Vn Karloseri bere ingurukoak zirikituta, ta erregetzazko agindu bategaz, Txao´tar Joseph Agustinek beartuta amaitzen dauz, Nafarroatik zear bi illabetan karlistaren lurraldeetatik aolkulari ta ikerlari egin ebazan ibilbideak.

1.835eko urtean Jorraillaren 8an, Espoz ta Minatar Franzizkok, bere gudal agintaritzaz aurkeztu eutsen, espainitar gudal nagusiai.

1.835eko urtean Jorraillaren 20-22 eguneko bitartean *“Artazako borrokan”* Zumalakarregi gudal nagusiak, Baldestar Jeronimori irabasten dautsoe.

Eta Zumalakarregik, Arkijas eta Auñamenditik Espoz ta Minaren aurka neguko guda gogorretan ibilita, berak Ameskoaseko Ega, Berrueza ta Lanaren ibarretan euki eban gudaltegira txokoratu zan.

Zumalakarregik, ez eban ibar onen auzuneak kaltetu gura, eta gudal liberalak bere billa agertzen ziranean, Ultzama ta Burundako mendarteak joko baten antzera ibiltzen ebazan gudaltegi lez, eurengandik iges egiteko.

Atzerritar asko izan ziran lerrokatu ziranak karlistaren taldeetan, gero guda onen gertakizunak, idatzita argitaratu egin ebezanak, eta aipatuena: K. F. Henningsen Ingelesa, Alfonso Barres de Molard, Alexis Sabatier frantziarrak ziran, bai ta Augusto von Goeben, Adolfo Loning, Felix Lichnowsky eta Gillermo von Rahden alemanenak.

Karl Ferdinand Henningsen liberalen aldeko Inglesak, denbora onetan esaten eban, In Isabelen gudalozteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren aztar edo asperkeriz egindako sarraskiak.

Eta 1.835eko Jorrai onetan, espainitarren gudako ministru Baldestar Jeronimok ikusita, Kesada, Rodil eta Espoz ta Minatar Franzizkok, ez zirala izan gai Zumalakarregi geratzeko, berak artu eban Iparraldeko gudaloztearen agintaritzaz.

Baldestar Jeronimo ministruak, Jorraillaren 14an Logroñotik Gazteizera elduta, 18an, Euskalerriaren Egoaldeko lau lurraldeai agindu bat aldarrikatu eutsen: *“Zuen onerako, eta zuek osatuten dozuen espainitarren Laterri osoaren lasaitasunerako, bearrezko eta barka ezinezkoa da, anai iltzaille ta biotz gogorkerizko borroka au amaitutea. . . .”*, esaten eban.

Eta limurtzaille lez, parkamena agindu eban amabost egun barruan, Zumalakarregiren gualoztetik alde egiten ebanai.

Baiña keñalari amaitu eban bere aldarriketazko itzaldia:

“Suaren eskuetara botako dodaz, matxin zaleak babesten dabezan ibar batzuen erriak zailantza barik, eta babestu, gure aldera etorten diran sendien etxe ta lurrak. Neurri au mingarria da, baiña gizartearen sentipen guztiak ixildu bear dira, nazioaren onak berba egiten dauanean”⁽¹⁾. (Noren aberria edo ta aberriaren onak ?. Nundik Lateria, Aberri ?).

1.835eko urtean Jorraillaren 19an Gazteizetik urten eban Baldestar Jeronimok 22.000 gudariek, 34 batalloietan bananduta.

1.835eko urtean Jorraillaren 20an batzartu ebazan Zumalakarregik, bere aginpean egon ziran gudal agintariak, eta 5.000 gudari 10 batalloietan bananduta naikoa zirala Jeronimoren indar aundiari aurre egiteko basati lur aietan esanda, borroka orren antolaketak asi zan prestatzen.

1.835eko urtean Jorraillaren 19tik-24ra Zumalakarregik, Amekoaseko Artaza erri inguruan ezereztu eban Baldesen gualozte andia, eta onek bere guda indarren babeserako Maeztu, Alsasua, Elizondo, Santesteban, Urdax eta abarreko gualalategiak utsik itzita, lau Uri nagusienak eta itsas bazterreko toki batzuk izan ezik, Ebro ibaiko Ego aldearen bazterreko mugara aldatu bear izan ebezan bere gualozteak.

1.835eko urtean Jorraillaren 25eko inguruan, Lord Edward Granbille Elliot liberalaren aldetik jakinda, Zumalakarregi Amekoasetik Berroezako ibarrera aldatu zala, bertara joan zan, eta Jorraillaren 27an Tomasegaz, egiune edo elkargo bat sinatu eban baldintza onegaz: **“Arrapatutako gudarien bizitza, nai kristino edo ta karlista izan, lotsean artu bear zala, gero eurokaz trukeak egiteko”**. Iru egun beranduago Baldes gudal nagusiak Logroñon sinatu ebena.

Karlistek ekintza orregaz beste garaipen bat lortu eben: **“Orraño liberalaren ustez, karlista gudariak, Fazizta lez itxuratuta euki ba ebazan, ortik aurrera, araupeguneko gudariak izatera aldatu ziralako”**.

1.834 eta 1.835eko urtearen Udabarri bitartean, Tomasek bere garaipen asko ta sendo bidetik, eukezan gudal nagusi artean, eziñ ikusi edo bekaizkeri⁽²⁾ aundiak sortu ziralako bai beintzat, Zumalakarregik, birriten uztea erabagi eban bere gudal nagusitasuna, Vn Karlosek baiña, ez eutson onartu, eta sendotu egin eban bere agintaritzan.

1.835eko urtean Loraillaren 1ean Sarasatar Juan Manuel karlista gudal nagusiak Gernikan, liberalaren Iriarte napar gudal nagusia menperatzen dau.

1.835eko urtean Loraillaren 15ean Zumalakarregik, Lizarran ezarri eban bere gualalategi nagusia.

1.835eko urtean Loraillaren 25ean Zumalakarregik, Ordizia inguratzen dau, bertoko libelak, euren gogortasun aundia erakutsita.

1.835eko urtean Bagillaren 2an, Zumalakarregiren Bizkaiko aizta-makil edo lantzadun zaldunak, Eraso gudal buru nagusiaren agindupean egon ziranak, Deskargako mendatearen bidean zer egoan ikustera joanda, Esparteroren guda indarrak ikusi ebazan, eta astindu ederra emonda gero, 2.000 liberal gudari ta amaibako guda tresneri arrapatuta, karlistak bereala jabetu ziran, Ordizia, Tolosa, Bergara, Eibar, Otxandio eta Durangoko erriakaz.

(1) Nazioaren onak berba egiten dauanean = cuando habla el bien de la nación Española. De qué nación hablamos, de la surgida con la constitución impuesta por la fuerza de las armas en 1.808, 1.812, 1.823 ?. Y donde estan el padre y la madre de ese sucedido o al menos cultural nacimiento ?. Jamás ha sucedido tal cosa con naturalidad por ser impositiva. Y Jamás lo ha hecho, por basarse en el imperativo romano-godo nacional católico invento que jamás ha sido aceptado, por ser contrario a la ley natural, partiendo del s.IV en el concilio de Nicea, para colonizar o reunir la vida de éste mundo a la idea de un imperio global católico. (2)Eziñ ikusi edo bikaizkeriak = envidias.

1.835eko urtean Bagillaren 8an espainitar gobernua, Frantzia ta Ingalaterrari eskatu eutsen, egin eben egiunegaz arduratu zitezela, eurak, Euskalerriko karlisten aurka bakarrik, ezin ebalako ezer egin.

Nork esaten dau karlistadako borroka au, ez zala Europarena ?.

1.835eko Bagillaren 10ean, Vn Karlos ainbeste guda garaipen bidetik biztuta, Europaren erri artekoetan onartu egiezan, eta bere bide orretatik dirua lortzeko, Zumalakarregiri, Bilbo inguratu ta artzea agindu eutson.

Zumalakarregi ez zan orren eritzikoa baiña, garaipen eta erreztasun aundiagoak ikusten ebazalako Gazteiz artuta, Madrillerantza bideratu bere indarrak, Madril errez menperatu leu- kelako. Baiña on artu bear izan eban Vn Karlosen eritzia. Eta Bilbora joateko artu eben erabagia, obeto ezin asi, Zumalakarregik Deskargako mendatean Esparteroren indarrak ezereztu ebazalako.

1.835eko urtean Bagillaren 10ean, Zumalakarregik, Lutzana, Banderas, Abando, Deusto, Mirabilla ta mendateen bizkarrak artu ondoren, Durangora joan da, euki eban gudalozte indar- tsuari azkeneko ikustaldia emon eutson, eta Bilbo inguratzeraz joan zan.

1.835eko urtean Bagillaren 12an karlistaren lau batalloien artean Bilboko ate guztiak inguratuta euki ebezan, eta Zumalakarregik Bilboko Uriari etsaimendu edo errenditzeko aukerea emonda, Bilbaoko gudal nagusi Mirasol kondeak, ezetzezko erantzuna bialdu eutson.

1.835eko urtean Bagillaren 14an asi ziran karlistak Bilbo bonbakin erasotzen, baiña libera- laren kañoiak sendoagoak izanda, kalte geiago egin ebezan karlisteren artean Bilbotarren artean baiño.

1.835eko urtean Bagillaren 15ean karlistek, Baztaneko gudaltegiak, Bergarara aldatzen dabez.

1.835eko urtearen Bagillako 15ean Zumalakarregi Bilbo inguruan egonda, ikusi gura ebazan Mirasol kondeak Uriari egin eutsozan arresizko sendokuntzak⁽¹⁾, eta Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuiñean dauan lenengo etxean, Kintana jauregiko bigarren solairu- ra igonda, balkoitik begira egoala, Iturriagako orma baten ingurutik, berreun metruko bitarte egoan lekutik, belaun azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumala- karregi egon zan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek ?, saldu- kerri bidez izatea, tiro ori jaurtin eutsona.

1.835eko urtean Bagillaren 16an Zumalakarregiren aginduz, Karlisten indarrak Erasoren gudal nagusi agindupean geratu ziran, eta onek Bilbo bonbakatzen iraun eban.

1.835eko urtean Bagillaren 17an, Zumalakarregi Zegamara joanda, Gerediaga, Gelos, Be- loki, Hurgess ingles sendagilleakaz, eta Telleriatar Franzizko "Petrikillo" esaten eutsoen sasi sen- dagilleagaitik sendatzeko ardurapean egon zan bitartean, Bagillaren 18 eta 24ko egun bitartean, liberalak, Bilboko gudarienezk erooten ebazan itsasontzi batzuk, ibaiaren aotik sartu gurean ibili ziran, karlistak baiña, ibaiaren agoa arriz betetako kabarrakaz zarratuta euki eban lez, atzera egin bear izan eben.

1.835eko urtean Bagillaren 19an Ingalaterrako gobernukoak espainitarakin egindako on- gundearen bidez, eta espainitarren gorteko gudaloztearen eskaerari erantzuteko, Lanzy Ewan- seri agindu eutson britaniako lejiño bat antolatu egian.

1.835eko urtean Bagillaren 25ean il zan Zumalakarregi tar Tomas, liberal gudal nagusien poztasun aundienagaz.

(1)Arrezizko sendokuntzak = fortificación de la ciudad.

20. *OARPENA.*

Orain, alde bietatik borrokatzen ibili ziran ospe aundiko guda nagusiak euren bizi kondairagaz, eta besteak aipatuta bakarrik aurkeztuko dodaz. 1.835eko Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik aurrera, ikusi dagiguzan, orduko guda nagusi oneik, euren sari guda izaeraren bizi bidetik⁽¹⁾, zelako azpikeri ta saldukerietan sartu ziran, Berezko Euskalerrria ta Kataluniako errigizarteak, Europa eta espainitarren arauzko mende zaleen morroiketara edo zerbitzura aldatu egiezan.

21. *Karlistaren Aldetik, aukeratu ziran guda-nagusiak.*

Tomasen bizitza, Merinotar Jeronimo Apaiza, Marototar Rafael, Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako III In markesa, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Cabrera ta Griñotar Ramon, eta Garzia ta Montoyaren bizi kondairak bakarrik aipatuko dodaz, besteen izenak nai ta garrantzizkoak izan, aitatu txiker bategaz zerrenda baten idatzita bakarrik, bestela lar luzeegi geratuko da idaz lan au.

22. *ZUMALAKARREGI ta IMAZ tar TOMAS.*

Emen, Zumalakarregiren bizi kondaira labur bat egingo dogu, jakin degun zelako aztura⁽²⁾ ta sinismenakaz lortu eban, bere guda nagusitasunezko trebetasun aundi ori.

1.788ko urtean Abenduaren 29an Ormaiztegin jaio zan Zumalakarregi ta Imaztar Tomas.

Bere aita, Zumalakarregitar Frantzisko Antoniok, ondo baiño obeto ezagutzen ebazan Foru edo Euskal Legeak, lotsagizun eta maitasunezko ustego edo sentipen aundian euki ebazanak, Euskal aberkoi aundia zalako.

Zumalakarregitar Frantzisko Antonio, Imaz ta Altolagirretar Maria Anagaz bigarrenez ezkondata, amaika seme alaba euki zituzen, Zumalakarregi ta Imaztar Tomas, zazpigarren jaiota.

Sendi jakituna zan, eta anaien artetik lau, apaiz eta legezko ikasketak egin ba ebazan, Tomasek legezko ikasketak eginda, berak gudaren ikasketak egiteko borondaterik euki ez arren, aitaren alegiñetik sartuko zan, gudu arlo orre in ikasketak egitera.

1.804ko urtean Iruñara joan zan, eta Ollotar Frantzisko Jabierren bulegoan asi zan lanean.

1.808ko urtean, Napoleonen aurkako borrokak asi ziran, eta Tomasek ogei urte eukazanean, Saldubako⁽³⁾ gudaitegira joan zan, Portilloren batalloian, Napoleonen aurka borrokatzeko.

1.808ko urtean Bagillaren 8an Lefevre, Napoleonen guda nagusiren bidez Tuteran, zigor aundia artu ta gero, ainbat borrokalditan kide izanda mendira joan zan Jauregitar Gaspar *Ar-tzaia* deritsonaren agindutara borrokatzeko, eta or egin zan basa-gerlari edo gudari⁽⁴⁾.

Basa gerlariaren idazkari lez, zeaztasun aundiagaz idazten ebazan, gudaldiko agiri guzti orreikaz bere bizkar ganean ibili barik, erri ezberdiñeko apaiz kide artean banatzen ebazan.

Eta basa gerlari taldea egokitasunean indartzeko, ezkutuan eroan bear ebazan antolazko idatz lan orreikaz, eta eurak emoten eutsioezan jakintza ta trebetasunagaitik, miretsi ta maisutasun aundia lortu eban gudarien artean.

Ainbat ekiñaldietan borrokatu zan, Azpiroz, Oiartzun, Kanpezuko Done Kurutzean eta Abariz mendikateetan⁽⁵⁾, teniente ordearen guda mailla artuta.

(1) Sari-guda izaeraren bizi bidetik = en su condición de soldados mercenarios. (2) Aztura = crecimiento del conocimiento, conocimiento empirico. (3) Salduba = Zaragoza. (4) Basa-gudari edo gerlari = guerrillero. (5) Abariz- mendikateetan = cordillera del Carrascal.

1.812ko urtean, guda-basa talde ori, Gipuzkoako gudari menpean ezarri eben *“ointalde”* izenagaz, Jauregitar Gaspar, koronel barria izendatu eben agindutara, ta bera teniente mailla artuta, ainbat borrokalditan ibili zan: Zumarraga, Urretxun, Belaskoango Subian, Unzue, Ataun, Urrestilla, Irurzun, Aretxabaleta, Bergara eta Loiolan.

1.813ko urtean Zumalakarregi, kapitan guda agintari egin eben, eta Deskarga, Sasiola, Mendaro ta Salinaseko borrokaldietan ibili ta gero, Freire guda nagusiaren agindutara aldatu zan, San Martzialeko borrokan artukizun aundia eukin da.

Guda amaituz, guda-lozte ortan geratu zan kapitaiñezko agintaritzagaz, agirien zaiñezko ardurakin, eta gudarako bear ebazan ikasketak osotzen.

Zumalakarregitar Tomas, Euskal Lege edo Furuen aldeko sinisle sutsua izan zan.

Eta orduko guda agintari geienak 1.812ko jaurgo barri baltzuaren⁽¹⁾ aldekoak izan da, Riegotar Rafael guda nagusia 1.820an VIIIn Fernando erregearen aurka matxinatu zanean eta *“Cabezas de San Juan”* etik 1.812ko konstituzio edo jaurgo barria aldarrikatu ebanean, Tomas euren aurkako susmopean euki-lako, 34 urte euki ebazala guda zerbitzutik alboratu eban, eta bakearen billa, Ormaiztegiko bere etxera joan zan.

1.822ko urtean Dagonillaren 22an Tomas Almandozen, Monkaioko markezagaz batzar-tzen da, eta onek Nafarroako taldearen bigarren batalloiko agintari lez izendatuta, Tabuenka liberal guda nagusiaren eskuetan egoan Benafarroako Karbas askatzera joanda, 600 gudari atxilotu ebazan.

Ortik, Ladron de Zegamatar Santos en agindupean ipini eben, eta ainbat garaipen lortu ebazan.

1.829ko urtean Otsaillaren 10ean VIIIn Fernando erregeak, Koronel maillara igoten dautso, eta guda nagusien artean beragandik sortu ziran zurrumurruzko susmoagaitik, Balentzia eta Extremadurako guda-loztea antolatzen bialduta, ortik, Ferrolera aberkoi gudarien jaurlari lez⁽²⁾ bialdu eben, Galiziako mendi bideak lapurretatik askatzeko.

Guda nagusi liberalakin ez zalako ondo konpontzen, espainitar jaurlaritzagaz asarratu zan, eta 45 urte eukezala Iruñako guda-ltegiara aldatu egien eskatuz, Karmengo kalean, gaur 33ko zenbakia daukanak, 21garren zenbakiko etxean bizi zan bere sendi zai, ta ain gogoko euki ebazan eizak egiten.

Guda buruak, bera erregetzaren aldeko ez zan izena ipini eutsoen, eta VIIIn Fernando- en eriotza gertatu zanean, Zumalakarregik jakinda, Nafartarrak Vn Karlos, VIIIn Fernando- en anaia erregetzat artuko ebela beldur, Iruñatik alde egin eban baserri- art jantzita. Eta Sarasako errira joanda, gobernuaren aurka matxinatuta egoan izkilludun talde bate- gaur aurkeztuta, euri- beren ezagutza emonda, agintari lez artu eban.

Uarte Arakilera joan da, Iturralde koronelagaz aurkitzen da, eta Ladron de Zegamatar Santos guda nagusiaren ondamenak jakin ebazanean, Iturralde bera baiño zarragoa izan arren, beren gaiñetik ipini eban guda-loztea- ren agintari.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIIn Fernando erregea il zan.

1.833ko urtean Azaroen 2an Zumalakarregitar Tomasek, guda nagusi liberalak, beragaitk susmo aundiak euki ebazalako, gabaz, alde egiten dau Iruñatik.

1.833ko Azaroaren 14an Nafarroako karlisten guda nagusi izendatu eben.

(1) Jaurgo barri baltzuaren = sociedad, alianza constitucionalista. (2) Aberkoi gudarien jaurlari lez = como gobernador civico militar.

1.833ko Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be, onartu eben bere gudal nagusitasuna.

1.834ko urtean Uztaillaren 12an Tomasek Baztanen Vn Karlosegaz batzartuta, euskal Lege edo Foruak ziñeztuazo eutson, eta onek onartu eban Zumalakarregik eskatzen eutsona, bere gudaloztearen gudal nagusi izendatuta.

1.834 eta 1.835eko urtearen Udabari bitartean, Tomasen garaipen asko ta sendo bidetik, beren taldeko gudal nagusi artean, eziñ ikusi edo bikaizkeri⁽¹⁾ aundietan sartu ziralako, Zumalakarregik, birriten uztea erabagi eban beren gudal nagusitasuna, Vn Karlosek baiña, ez eutson onartu, eta sendotu egin eban bere agintaritzan.

1.835eko urtean Bagillako 12an karlistek, lau batalloien artean, Bilboko ate guztiak inguratuta euki ebazan, ta urrengo egunean Zumalakarregi Bilbora joan da, ikusi gura ebazan lez, Mirasol kondeak Bilbon egin ebazan arresizko⁽²⁾ sendokuntzak, Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuñean dauan lenengo etxearen bigarren solairura igon eban, eta balkoitik begira egoala, Iturriagako orma baten ingurutik, berreun metruko bitarte egoan lekutik, belauan azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumalakarregi egoan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek saldukeriz izatea, tiro egin eutsona.

Berak ez eban gura ankarik ebagitea, eta lenengo sendabideak eginda berak lendik ezagutzen eban Zegamako Telleriatar Franzizko *“Petrikillo”*rena joan ziran tiroiña atara egian, baiña tiroiña baleike kota, zaborraldi edo tetanoserako prestuta egoalako, gorputzatik zabaldu jakon kota edo zaborraldi ori.

Zumalakarregitar Tomasen ikurra, *“Jaungoikoa ta Foru edo Lege Zarrak izan ziran”*.

Eta 1.835eko urtean Bagillaren 25ean Zegaman il zan Zumalakarregi ta Imaztar Tomas Abertzale sutsua.

Karlistadako gudan, bere anai Zumalakarregitar Migelek, bera baiño 15 urte zarragoa izan zanak, itxuraz, konstituziozko alderdiekin bere aurka jokatu ba eban gudal nagusi lez, 1.841eko urtean liberal lerrotan egon ziran ainbat euskal gudariekaz batera, Esparterori alegindu eutsen lez, Euskal Foru legearen alde egin egian, Tomaseri be, ainbat itxaropen emon eutson arlo orreitan.

1.846ko urtean il zan baiña Zumalakarregitar Migel, eta Gipuzkoako Aldundia Elgoibarren batzartuta, bien irudiakaz oroikari bat eraikiteko erabagitu eben, baiña orduko denboran dirurik ez egolako, gaur oraindiño erabagi ori bete barik daukagu.

23. *Merino´tar Jeronimo Apaiza.*

1.769ko urtean, Burgoseko Billobiado erritxoan jaio zan Merinotar Jeronimo gaztelar apaiza au, eta 1.844an Frantziako Lanon errian il.

Beren aita-amak nekazariak izan ziran, eta anai arrebaren artean bigarrena izan zan.

Lermara bialdu eben latiña ikastera, baiña anai zarrena il jakon lez, ostera etxera itzuli bear izan eban, nakazaritzaren lanetan laguntzeko.

1.790eko urtean berak 21 urte eukezala, Billobiadoko apaiza bere lagun aundiena il zan, eta Kobarrubiaseko erretorearen laguntzarekin, lortu eban abadetzaren ikasketak amaitu, eta lenengo Meza Santua Billobiadon emon ondoren, bertan apaiz lez geratu zan.

(1)Eziñ ikusi edo bikaizkeriak = envidias. (2) Arresizko sendokuntzak = amurallamiento, fortificación de Bilbao.

1.808ko urtean Urtarrillaren 16an Billobiadon, Napoleonen gudari bereziak agertuz, bera erritarren artean dala, eta ikusi erritar guztiei zelako galarazoeekin beartu eutsen gudal tresneriak Lermara eroan zedin, bere bizitza, guztiz aldatu zan.

Merinotar Jeronimok, bere esaneko atzalburuen artean: *“Jainkoak, Gizona zutik sortu eballa, eta iñoren aurrean ez eballa zetan bururik makurtu bear”* esaten eban.

Jeronimok, ziñez itz emon eban, geikeri orren aurka borrokatuko eballa, eta lenengoetan bere serbitzailleakaz erregearen ibilbidetatik Frantzezari erasotzen, gero bere lobagaz, eta apurka apurka inguruko erriakaz alderdikidetuta, bere gudaloztea bear eban agintariekaz antolatuta ondoren, sasi gudako trebetasunean, aipatuenetariko bat biurtu zan.

Berrogei urte beteteko eukezala, eta *“Burugogor”* deitzen eutsoen izenaren aipu edo baiezta emonez, Roan egon ziran Frantzezak bota ebazan, euren inguruko lurretan sua, trebetasun aundiz erabilita.

Geroago, Kobarrubiasen batu ebazan sasi gudan ibili ziran gidari guztiak, gaztelanian zelangoa jokoa eroan bear eben, jakin arazian ipinteko.

Roa, Aranda, eta Lermako udal batzarrak, ainbat gazte bialdu eutsoezan borrokan gudari lez laguntzeko, eta eurokaz ustekabeen, Rodrigo Urira joanda, suburdi bateri eraso eutsen Kintanako Zubi parean, eta eroan ebazan lerrauts edo bolbora, kañoi eta bonba askogaz geratuta, arrapau ebazan zaldi ta euren tresneriak, nekazariaren artean banandu ebazan.

Demandako mendikateetan babestuta egon zan lekutik, ainbat eraso egin eutsoezan frantzezai, eta len *“Gurutze Gorria”* ren xingola emon ba eutsoen, orain koronel gudu maillara igon eban.

1.809ko urtean Bagillaren 9an Jeronimo bere taldeagaz, Tordomarreko erritxoan dagoela, Burgosetik urtengo eben Frantzez guda talde bat Lermara joateko jakin eban, eta bertara joan da, Dukearen etxea erasota, frantzezak azpiratu ebazan.

Ostean eta inguruko errietatik, ainbat ikasle lerrokatuko ziran beren guda taldean, aien gazteen artean gero, espainitarren diruaren arduraduna eta Banketxearen lenengo jaurlari izango zan, Santillantar Ramon egoala.

1.809ko urtearen Uztaillatik aurrera, Burgos eta Balladolizen bitarteko ibilbideakaz arduratuko zan.

1.810eko urtean Urtarrillaren 22an Dueñaseko erri inguruan, 1.500eko Frantzez guda talde bateri eraso eutson, eta 200 frantzez gudari baiño ez eben lortu iges egiterik.

1.811ko urtean, Burgoseko *“Usaresen Zaldiko”* taldea irasi eban, eta 1.812ko urterarte Duero ta Lerma bitartean ibilita, Padilla eta Printze laguntzarekin, mugak babesteko lerro bat eraikita. Ortik, Kataluñara bialdu eben, brigadier gudal nagusien agintaritzagaz.

1.814ko urtean, Burgoseko gudategira gudal buru yaurlari lez joan zanean, eta VIIIn Fernando espainitar lurraldeetara itzuli zanean, Balentziako kalonjetza⁽¹⁾ emon eutsoen, eta bertan Gudal Kapitan nagusiak *“San Fernandoren Laureada eta IIIIn Karlosen Gurutz Andia gaz”* xingolatu ondoren, bere eritzizko zuzentasunagaitik, ango apaizakaz ez zalako ondo konponetzen, bere Billabodioren erriko apaiz ardurak osteratu ebazan.

1.820ko urtean, Riegok egin eban matxintasunaren aurka agertuta, VIIIn Fernandok bere guda taldea ezereztutea erabagi eban, eta Jeronimo, Fernandoren anai Vn Karlosen taldekoa egin zan.

1.833-1.839ko urte bitartean, Vn Karlosen aldeko borrokan ibili zan, gudal nagusi lez.

(1) Balentziako kalonjetza = canonigo de Valencia.

Eta 1.839ko Dagonillaren 31n Bergaran, Espartero ta Marotok lotsagabeko besarkada egin eben ostetik Frantziara iges eginda, Alenzonen biziko zan bost urtean, 1.844ko urtean 75 urte eukezala il zan arte.

1.962ko urtean ekarri ebezan beren gorputzaren ondarrak Erdiugarte onetara, eta Burgoeko Arlanza ta Solaranako ibar erdian dauan Lerma errian, Santa Klara lekaretxe aurrean illobiratu ebazan bere ezur ondarrak.

24. *Isern ta Maroto´tar Rafael.*

1.783ko urtean Murtziaren Lorkako erritxoan jaio zan, gizon guzurti, maltzurkerizko azpikerietan, eta saltzailletasunezko ekintzatan ibilten zan, Maroto ta Isern´tar Rafael au.

Napoleonen borrokan asi eban bere guda ikaskuntza, eta Zalduban borrokan egoala, zauritu ta atxilotu ondoren, iges egitea lortu eban.

1.813ko urtean Talaberako guda taldearen buru zala, Perura joan zan, 1.810etik askatuta egon zan Txile, ostera menperatzeko.

1.814ko urtean Rankaguako borrokan irabazle urten eban, eta Txileko Santiago uri nagusian garaille sartuta, Abaskal errege ordearen eskutik guda agintari maillan, koronelaren mailatik gora izendatu⁽¹⁾ eben.

Bertan, Kortez eta Garziatar Antonia oso aberatza izan zan emakumeagaz ezkondu zan.

1.817ko urtean Otsaillaren 10ean, Txileko guda kapitana nagusiak, Marotoren eskuetan ipini ebazan Txileko guda indarrak, eta Otsaillaren 17an, San Martin askatzaille guda nagusiak, Txakabukoko aldapan menderatu ebazanean Marotoren guda lortze orreik, Maroto zauritu, Markel Elorreaga il, eta bere lagun San Bruno guda nagusia atxilotu ondoren. Txilek ortik aurrera, bere betiko askatasuna lortuko eban.

1.817ko urtean Marotok, Uetxurabako erritik laguntza eskatzen eban, baiña Santiagora joateko agindua artu eban.

1.817ko urtean Otsaillaren 13an arratsaldeko ordu biak zirala, Santiagoko diru-etxe aurrean, 190.000 urrezko ta zillarrezko ogerlekoakaz zorroak beteta, mando gainetan ipini ebezan, ta 6.000 ogerleko⁽²⁾ zillarrezko trozkoetan⁽³⁾ egon ziranak ezin ebalako geiago eroan bertan itzita, urten eban Santiagotik.

Diru guzti au, eraso baten bidez, bidean galdu zala esan eben.

1.817ko urtean Otsaillaren 13ko gaba erdian Santiagon, guda nagusien batzarra egin zan, eta bertan Marotoren eritzia on artuta, Balparaisoko itsas portura joatea erabagi eben, itsas ontzietan gonda Perura joateko.

Maroto, Punoko⁽⁴⁾ jaurlari arduradun nagusi lez izendatu eben, eta De la Serna errege ordeagaz lagun eginda, onek ez eutsolako jaramonik egiten Puno babesteko egiten eutsoezan eskaerari, bertan itxi bear ebazan alkarizketa orreik.

1.824ko urtean Dagonillaren 6an Marotok, De la Serna errege ordearen aginduan egon ziran liberal guda lortzeak, bere agindutara artuz, Peruko Juninen zelai zabaletan, Bolibartar Simonen aginduan egon ziran Amerikar errepublikako indarraren aurka egin eban borroka, galdu eban, eta bereala asi ziran biok antolatzen, andik bost illabetera euren artean izango zan azkeneko borroka nagusia.

(1)Koronel baiña geiago = brigadier. (2) Ogerleko = pesos. (3)Trozko = lingote en bruto. (4) Puno = Peruko Uria Bolibiako mugan, Titikaka ur geldiko aintziraren ertzean erri bien bitartean kokatuta dagoena.

Maroto, Fernandez ta Esparterotar Baldomerogaz euren saripeko guda mailla aundiatzeko, Ameriketaren kolonizaziozko gudatan ainbeste espainitarren guda nagusi askogaz ibilita, lagun aundiak egin ziran, Euskaldunak konturatu gindezan nondik etorten jakien eukin adiskidetasuna, 1.839ko urtean, Bergaran egin zan saldukerizko besarkadari adierazpena emoteko.

Orduko ta gaurko kolonizazioaren batzango, eta diru-zalekeri denboratan, guda-buruak, saripekoak izanez gain, goian aipatu dogun aolkularitzazko bidetik, eurak ezartzen ebazan konstituzioaren norkerizko lege orreik gure berezko errietan guda-indarrez, daukaguzan morroitasunaren Laterrizko aberri barri oneitan egokitu gindezan, eta European eurak izan ziralako indartsuenak, beregandiko⁽¹⁾ Nortasun bereziaren eskubidekoak, gaurko morroilpe⁽²⁾ onetan aurkitzen gara.

1.824ko urtean Abenduaren 9an egin zan Ayakutxoko azken borroka nagusia, espainitar mende-zaleen gudalozteak De la Serna errege ordeak bideratuta, eta Amerikan Errepublikako indarrak Bolibarren aginduz, Sukretar Antonio Joserren eskuetan itxi ondoren, espainitarrak menderatu ebazan, eta Laserna guda nagusia, 15 guda buru, 16 koronel eta 3.000 guda mutil atxilotu ondoren, Sukre guda nagusiak Bolibarrerri esan eutson guda amaituta: ***“Peru’ren askatasun osoa zala”***.

Eta 1.825eko urtearen Urtarrillan, espainitar gudalozteak itsas ontzietan igonda, espainitar lurrealdera itzuli ziran.

Maroto, ***“Ernestina”*** frantzez itsas ontzi aundian itzuli zan, eta VIIIn Fernando erregearen Asturias ta Toledoko guda mutillak antolatzen egon ostean, Iruñako gudaltegira etorri zan.

Vn Karlosekin berba egin ebalako, Sebilla eta geroago Granadako espetxetan egonda, Portugalera iges eban, eta Karlosengana joanda, ez zan karlistaren gudalozteetan 1.835eko urterarte lerrokatu.

1.836ko urtearen Dagonillako 30ean Maroto, Kataluniako guda nagusia izanda, Auñamendiko Nuriatik aldatu zan, eta ainbeste bider galtzaille urten ondoren, gudalozteak Royo guda nagusiaren eskuetan itzita, Frantzira aldatu zan, Vn Karloseri, Kataluñaren egoera txarra adierazteko en aitzakiagaz.

1.836ko urtean Urrillaren 5ean Maroto, Frantzira aldatu zan, baiña Eynako erritxoan 21 oiñezko gudari talde azkarrak arropau eben, eta Tourseko espetxean atxilotu ta iges egin ondoren Burdeosera eldu zan.

1.836ko urtean Urrillaren 28an Marotok, Vn Karlosen ministru Erro’ri idazten dautso eskutitz bat esaten, zelan, bereala jarriko zala bidean karlistaren gudaltegi nagusira joateko.

1.836ko urtean Azaroaren 14an, Erro ministruak Durangotik, Marotori erantzun eutson: ***“Karlosen agindua zala, egon zan leku bertan iraun egiala, arik eta Katalunian sortu ziran gauzak, eta bera Frantziaren lurraldera zergaitik aldatu zan, argitu arte”***.

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge guda nagusiaren utsegite ta gudaloztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek, Marotori deitzea erabagi eban.

Eta 1.838ko urtean Lorailaren 15ean Karlosek, deitzen dautso Marotori etorteko.

1.838ko urtean Bagillaren 20an Gerge guda nagusiak, Urizarreko⁽³⁾ mendi katearen ezarpenak galtzen dauz, eta Vn Karlosek, Maroto izendatzen dau Iparraldeko gudaloztearen nagusi.

(1) Beregandiko = originaliz en el derecho de ésta naturalización. (2) Morroilpe = carcel, prison, reclusión, criado. (3) Urizaarra = peñacerrada.

1.839ko urtean, Maroto asten da berba egiten II In Isabelen guda nagusiakaz.

1.839ko Urtarrilatik erregearen guda-tegian, Tejeioren aldekoak ziranak, Marotoren aldekoarekin asten dira, gero ta biziago izango ziran eztaibadak, marotistak, Isabelen guda nagusiakaz alkar izketan azteko zaleak izan ziralako.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok, antolatzen asi ziran 1.839ko eguineen alkarizketak.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an Marotok, guda nagusi Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Gartzia, Sanzta Pablo, Karmona jeneral ordeko edo brigadierra eta Uriztar intendenziako arduradunari, Lizarrara joateko deitu eutsen, eta izketaldi orrean aurkakoak izan ziralako, Marotok, bostak tiroz il egiezala, agindua eban.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako **“PUY”** Baselizaren osteko orman: **“Gerge, Garzia, Sanz, Karmona eta Uriz Karlosen guda nagusiak tiroz il ebazan”**.

Bertan dago, burdiñezko oroipengari bat euren omenez.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean Vn Karlos asarre, Maroto kendu eban bere agintarizatetik, azpi-suge edo saltzaille bat zala salatuz. Maroto Baiña, egoera orren nagusia zan, eta Karlosek ez eban almenik euki, Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez, osteria izendatzen dau Maroto guda nagusi lez, ta onek beren aurka egon ziranak, Frantzira erbestera ebazanean, zalan-zak gogortzen asi ziran.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Marotok, Diego de Leon karlista guda nagusiak, Ellioten ituna apurtu ebalako aitzakiarekin, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren Kapitana-gaz berba egiten dau, Maroto, guda-lozte bien artean, Ingelesaren artekaritza billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an sortu zan Espartero eta Lord Hayen´en arteko elkarrizketa, eta Lord Hayenek, Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak, Esparterok, on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña berak, espainitarren jaurkintzan aurkeztu ta gero, karlosen guda-lozteak, Isabelen ama Kristinaren agindupean geratzen ba ziran erantzun eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 24an Maroto ta liberalaren guda nagusi Zabala alkartzen dira, Marotok aurkeztuta, Esparterorekin berba egin gura ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an Abadiñoiko izketaldian euki eben lenengo alkar ikuste Maroto ta Esparterok. Eta urrengo egunetan, ongundearen baldintzen idatzia, 1.839ko urtean Bergaran egingo zan saldukerizko egunaren aurrerapena izango zana.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta judaskeriko besarkada emon ondoren, Esparterori emon eutsoezan gatzelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebazanaren itzagaz.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto, osteria artu eben kristino guda-lozteetan, guda buru nagusi lez, Maroto´ren etxeko kondea izendatuz.

1.847ko urtean Maroto eta Iserntar Rafael onek, Txilera aldatzeko baimena lortuta, bertokoak, goian aipatu doguzan 190.000 ogerleko ostu ebazanagaitik berbetan asi ziran arren, Salaketa orreik, ez ziran iñoz argitu.

Eta bera bere emazte-gaz, Santiagoko Umezurtz Kalean euki eban jabetzazko etxea, eta Konkonen euki eban beste etxearen bazterrak garbitu egioztezan eskatu ta lortuta, txandaka

bizi zan Konkon eta Santiagoko etxe artetan, arik eta 1.853ko urtean Dagonillaren 4an il eta 5ean illobiratu zan arte.

25. *Orbe ta Elio'tar Jose Maria Baldespinako III In Markesa.*

1.766ko urtean Iraillaren 6an Irunen jaio zan Orbe ta Eliotar Jose Maria “*Ermuko Man-txuelo*” ez izenarekin esagutu zana.

Zaldubako ikastetxe nagusian egin ebazan Gizartezko ikasketak, eta gero beren guda- bidez asiera emoteko, Santiago gudu taldean Kadete Gizatsuen ikastetxean⁽¹⁾ lerrokatu zan matematikas ikasten.

1.793ko urtean Frantzeraren aurkako guda asi orduko, Bergarako andikien errege ikaste- txera joan zan, gero Gipuzkoako gudu taldean lerrokatuta, kapitaiñaren maillarekin.

1.794ko urtean San Martzialeko borrokan, eskumako eskuan zauritu eben, eta txarto osa- tuta, beso osoa kendu bear eutsoen.

Basileako bakea sinatu zanean, kapitaiñ maillarekin urten eban gudalategietatik, eta nai- ta beso bategaz geratuta, kikildu barik, esku ezkerrez idazten ikasteko, Bizkaiko Jauntzaren edestiko ikasketetan asi zan, bere gurasoen ondorengo diru-zain ardureakaz batera.

1.797ko urtean, guztien baimenakin autatua izan zalako, 1.802ko urtean joan zan lenen- goz Ermuko ordezkari lez, Gernikan ospatzen ziran orokorrezko batzarretara, bertan ordezkari nagusi lez izendatuta. Eta urte orreitan, Zamakolatar Simon Bernardorekin joan zan espainitar gortetara, Bilbaoko “Askatasuneko Portu” barriaren gora beran berba egiten.

Zamakolada biztu zanean, iges egin bear izan eban, eta Nafarroako Zamakolaren elkartean ostondu.

Zamakolada amaituta, bere Ermuko etxera joan zan, eta bertatik matxinatuari laguntzen, ainbatetik lortzen ebazan izkilluak banatzen ibiliteagaitik, frantzezak eta prantzez zaleen alde- tik oso zelatuta ibili zan, sarritan diru ta espetxeagaz zigortuta.

Eta Bizkaiko 7garren gudaloztea antolatu zanean, bigarren taldean lerrokatu zan koronel agintari maillagaz.

1.820-1.823ko urte bitartean, jaurogo barri edo konstituzioaren denboretan espetxeratu eban, espainitar zalearen ustean, Egiatar Nazario guda nagusiarekin azpikari ibiltzen zalako, eta epaiketan fiskalak ilteko zigorra eskatuta, askenez, urte biko zigorraz Burgoseko espetxean atxilotu eben, auzipeko ordaiñak, berak ordaindu bear izan ebala.

Burgoseko espetxetik Bilbaoko espetxera eroanda gero, Kadizera atzerriratu eben, eta iges eginda, VII In Fernando 'rengana joan zan, onek 1.823an jaurogo barri ori ezereztu ebanean, os- tera Ermura itzulita.

Gernikako batzarretan, orokorrezko ordezkari edo diputadu nagusi autatu eban ostera, eta bere senide Nobia de Salzedogaz batera, erregearen aldeko, gogoko guda mutillaren taldeak antolatzen ibili ziran, bera laugarren guda taldeko koronel nagusia izendatuta.

1.825-1.827ko urte bitartean Nobia de Salzedogaz batera, Bizkaiko trenbidearen aurrera- pideko antolakuntzan ibili ziran bera buru zala. Eta Espoz Illundai ta Minatar Franzizko espai- nitarrekin sartu zanean konstituzioa aldarrikatzen, gure Orbe, guda talde bategaz ibilteagaitik, atzerrira joan bear izan eban.

1.833ko urtean irugarrenez autatu eben Gernikaren orokorrezko Batzarraren ordezkari nagusi lez, eta politikatik aldunduta bizi zan, arik eta karlistada asi zan arte.

(1) Kadete Gizatsuen Ikastetxea = academia militar de caballeros cadetes.

Karlistadako guda asi zanean, bera izan zan Bilbon, Karlosen ikurra goratu ebana, eta ez bakarrik Bizkaian, Araba, Gipuzkoa, Santander eta Gaztela Zarraren jazargoko batzarretara be, bialtzen ibili zalako, gudarako bear ziran izkillu, diru, ta guda mutillak.

Sarsfield liberalaren guda nagusia agertu zanean, eta Gaztela ta Arabako Vn Karlosen indarrak sakabanatu⁽¹⁾ ziranean, berez banandu ziran Bizkaia eta Gipuzkoakoak, Orbe bera, Nafarroara izkututzen joanda, karlista Foru Aldundiarekin.

1.833ko urtean Abenduaren 7an, Etxarri Aranazen Zumalakarregitar Tomas izendatu eban Euskalerriko guda buru nagusi lez, eta egon ziran borroka guztietan eskuartzte aundia eukinda, Bizkaia etorri zan, Bizkaitarrak matxinatzeko alegiñean.

Vn Karlosek lan guzti ori ikusita, bere ondora deitu autson, eta bere erregezko itun batzarretara aolkulari lez izendatuta, beste guda nagusien bekaizkerien bidetik 1.834ko urte askenetan, agintz-ausele⁽²⁾ izatearen salaketagaz auzipetu eban.

Nafarroako gudaitegira bialdu eban euki ebazan aginte guztiak kenduta, eta Zumalakarregigaz batera ibili zan, onen borroka guztietan.

1.836ko urtean bere errugabetasuna argituz, Vn Karlosek, ostera deitu eutson bere ondora, eta bere itaunezko errege batzarrera ministru lez izendatuz, Bizkaiko errigizartearen zaintzako ordezkari nagusia⁽³⁾ be izendatu eban, bere on-zentzuzko ulermenaren Nortasun aundia, dir-diratsu erakutsiz, Kastrejana, Bilboko bi, ta irugarren inguratzeko gudaldietan be, egon zana.

1.838ko Dagonillan bere borondatearen aurka, guda ministrua izendatzen dabe.

Eta Lizarran egin ziran bost guda nagusien tiro ilketaren bidetik, Marotogaz asarratuta, alde egin eban ministruaren agintaritzatik.

Zelaiko Mariskala izanda, eta ain omentsu ta ainbeste bider xingolatuta egon arren, Bergaran Marotok Esparterogaz egin eban saldukerizko besarkada bidetik, Frantzira atzerriratu bear izan eban txakur-txiki bat barik, euki ebazan diru guztiak gudaizteentzat emonda eukazalako.

Berak, Bergarako besarkada ori ez ebalako onartzen, atzerritasunean be beti zainduta egon zan, eta ata guzti, beste karlista guda nagusiakaz, danak ostondutako izenakaz ibili ba ziran, berak, beste matxintasun bat antolatzen ibili zan.

1.847ko urtean bere emaztea oso gaixorik egoalako, bere seme Nepomuzenotar Juan etorri zan Erdiugarte onetara, bide batez galdu ziran etxeko jabetzak berrezkuratzeko.

1.850eko urtean Uztaillaren 21ean, Burdeos en il zan gure Orbe ta Eliotar Jose Maria "*Er-muko Mantxuelo*" Euskal abertzale goragarria.



Bergarako besarkada

(1) Sakabanatuta = deshacer al enemigo, vencer, dispersar. (2) Agintz-ausele = inobediente, desobediente.

(3) Bizkaiko errigizartearen zaintzako ordezkari nagusia = comisario regio de la vigilancia pública de Vizkaia. .

26. *Egia'tar Nazario.*

1.777ko urtean Uztaillaren 28an Durangon jaio zan.

Egiatar Franzisko guda nagusiaren loba izan zan.

Nazario bere osaba lez, erregearen al osokerizko zalea izan zan.

1.794-1.795garrenengo urtetan berak 16 urte eukezala, Frantzezaren aurka ibili zan, Franzisko bere osabaren agindupean, egiuneko⁽¹⁾ borrokatan.

1.797ko urtean Zamorako injineruaren gudu ikastetxean sartu zan, urte bi geroago tenientearen gudu maillakin urteteko.

Askatasuneko gudan ibilita, ainbat bider goratu eben gudari maillan, eta guda nagusiagaitik deituta, Kadizeko Uria ta Leon⁽²⁾ ugartearen sendokuntzak bideratu ebazan.

Erregetzako al osotasunaren aldekoa izan da, VIIIn Fernandoren uste osoa euki eban, eta onek 37 urte bete eukezanean zelaiko mariskala izendatu eban, ta geroago Galiziaren orokorrezko kapitaiña.

1.829ko urtean izakera gogorrekoa izan da, bere ondoan ibili ziranetatik, ainbatek, alde egin bear izan ebelako, ilteko gaiztakeria egin eutsoen, zorionez, ezker ta eskubiko eskuetatik atzamar batzuk bakarrik kenduta.

1.830eko urtean VIIIn Fernandok, Egia etxearen kondea, izendatu eban.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIIn Fernando il zanean, Karlosen alde kokatu zalako, Frantzira atzerriratu bear izan eban, eta Euskalerrian ordurarte, Moreno'en agindupean, egon ziran karlisten gudaizteko 25.000 gudarien buru, ipini eban.

1.835eko urtean Gebaran, eta 1.836an Arlabanen, Fernandez Kordobatar Luisen aurka borrokatu zan.

Balmaseda ta Merkadilloko liberal indarrak menperatu ebazan, eta errien babespedeko arresiak ezereztu ondoren, Durangora aldatu zan bere gudaiztearekin.

Nazariok, aurrerakuntza aundia emon eutsen erasoko ekiñaldiai, baiña ez eben asko balio, guda nagusien artean, bekaizkeri ta adi-ezin askotan ibili ziralako.

1.835eko urtean Urrillaren 8an Nafarroako errege ordezkoa izendatu eben, eta guda nagusien artean jazarraldi asko egon zalako, Vn Karlosek, desegin eban erabagi ori.

1.836ko urtearen Lorailan Vn Karlosek, diru ordainketa bageko, IIIIn Karlosen Gurutzegaz xingolatu eban, eta beren erregeari eskertu ondoren, bere agintaritzatik alde egin eban, bere kide guda nagusi artean, mii-gaizto edo murmurikari asko egon zalako.

1.836ko urtearen Uztaillako 10ean bere borondate ona erakustearren, aldarrikapen bat agertu eban, bere emaitzakin ainbat liberal gudari, karlistaren gudaizteetara aldatuta. Bere agintaritzan, gudaiztearen indarrak, 10.000 gudariakaz geiagotuta.

1.839ko urtean Bergarako egiunean, Marotoren alde kokatu zan.

1.840-1.849ko urte bitartean Frantzian atzerrituta bizi zan. eta ostean Egiaren Etxeko kondea izena ta jeneral ordezko guda mailla onartuazo eutsoenetik, Tolosara joan zan bizitzen.

1.849-1.853ko urte bitartean, senatore egin eben.

1.865ean Tolosan il zan Egiatar Nazario.

(1) Egiune = pacto, convenio, convención, contrato. Egiuneko borrokatan = guerras de la convención. (2) Leon ugarte = Ugarte txiki bi dira are ondarrakin alkartuta dagozenak, euren gaiñean Kadiz eta San Fernandoko Uriak daukazela. Santi Petri itsas-besoa ta zubi bi urbiltzen dabe erdiugarte onen itsas-bazterragaz.

27. *Gerge ta Yaniz'tar Juan Antonio.*

1.789ko urtean Bagillaren 26an Agilar de Kodesen jaioa.

1.809ko urtean Otsaillaren 18an Napoleonen eraso bidetik, eta bere osabaren eredia artuta, sartu zan soldautzara, oiñezko gudari lez.

1.810eko urtean, Sansol, Tarazona eta Arnedilloko borroketan ibili zan.

1.811ko urtean, Kornago, Yerga, Urduñan ta Bilbon. Eta aurreratxoago, Salinas de Añana, Nanklares eta abar, Napoleonen aurkako gudak teniente maillagaz amaitu arte.

Napoleonen borrokak amaituta, eta pakezko zortzi urtearen ostean, Riegok, 1.812ko konstituzioren aldarrikapena eginda, eta VIIIn Fernando erregeen alosokerizko jaurgoaeren artean, sortu ziran eztaibada bidetik, 1.822ko urtean, konstituziozko liberalaren aurkako agertu zan, ta urte orreitan 33 urte ebazala, erregearen gualozteetan kapitain lez lerrokatzea erabagi eban.

1.824ko urtean Napar Euskalerritik ainbat borrokatan ibilita, koronel ordezeko maillara igon eban.

1.827ko urtean Dagonillaren 12an, Brioneseko Legariaren Jauregiko alaba, Ita ta Murillessar Franzizka Paulagaz ezkontzen da, eta bere emaztea ain laster ilda, 1.831ko urtean berak 42 urte eukezala, bere koiñata Ramonagaz ezkondu zan.

1.833ko urtean VIIIn Fernando il zanean, bera Fuegoen alde jokatutearren, Vn Karlosekin lerrokatu zan, eta Zumalakarregitar Tomas euki eban lenengo agintari nagusi lez.

1.835eko urtean, Kataluñarako gudaldi bat antolatu eban, uts galanta egin ebana.

1.837ko urtean, Zelaiko Mariskala eta Bizkaiaren orokorrezko gual nagusi jenerala izendatu eban.

1.838ko urtean, Erdiugarte onen Iparraldeko gualoztearen buru izendatu eban.

1.838ko urtean Bagillaren 20-22ko egun bitartean, Esparterok, Urizar mendietako⁽¹⁾ borrokan irabazi eutsen, eta agintaritzatik kenduta, bere ordezeko Marototar Rafael izendatu eban.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Marotok jakinda, Esparterogaz antolatzen asi zan eguinearen aurkakoak izan zirala, ta bere aurka Gerge beste lagun batzuekaz elkarganatzen ibili zala, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Gartzia ta Sanztar Pablo gual karlista nagusia, Karmona koronel ordezeko edo brigadierra, eta Uriz intendentzi edo buruzpidearen arduradunagaz batera, Lizarrara joan egiezan agindu eutsen, eta eurokaz berba eginda gero, Marotok, bostak tiros il egiezala agindu eban.

Eta 1.839ko urtean Otsaillaren 18an, Gerge ta Yaniz Juan Antonio beste lau karlista nagusiekin tiros il ebazan, Puy Santutegiaren orma ostean. Bertan dago euren oroimenezko burni xafla.

Euren gorpuak, Lizarrako illerriaren gual nagusien erri illobian obiratuta dagoz, bere ereñoztutako gurutzen azpian: *“Dios, Patria, Rey. A los generales Carlistas Garzia, Sanz, Guergue, Carmona, y Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839, dedicado este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I.P.”*

28. *Kabrera eta Griñotar Ramon, Morellako lenengo kondea.*

Kabrera ta Griñotar Ramoneri *“Zaldun-erri edo Nausi-erriaren⁽²⁾ odol zaleko Katamotza⁽³⁾”* esaten eutsen, bere eskuetan jausten ziranak, espainitar mende zaleak egiten eban antzera, liberal agintari eta gudariak tiros il egiten ebazalako.

(1) Urizar mendietako = cordillera de Peñacerrada. (2) Zaldun-erri edo Nausi-erri = maestrazgo.

(3) Odol zaleko katamotza = tigre aficionado a la sangre.

1.806ko urtean Kataluñako Tortosa errian jaio zan, eta 1.877ko urtean Ingalaterrako Wentworth ´enen il.

1.833ko urtean espainitarren ondorengo guda asi zanean, apaiz gaitegia itxi eban eta Karlistarekin lerrokatu zan.

1.835eko urtean, guda nagusia izatera eldu zan.

Nogeras liberaltarren guda nagusia aldi onetan, asarre bizian egoan, Kabreratar Ramonek, euren aldeko gudari liberalak arrapetan ebazananean, eurak karlistarekin egiten eben antzera, tiroz il egiten ebazalako.

Nogeras bera, espainitarren kaizargo-mende agintariaren kide izanda, nai ta, gauza orreik baiño geiago egiten ba ebazan be, ez eben garrantzizko ardurean artzen eurak egiten ebazanak, gaurko egunetan sortzen dan lez, euren ustean, Nizeako eleiz batzarretik eta sakratuzko gurutza-daren jaun aundiak izategaitik, euren jabetasunezkoa izatez gain, egiten eban dan guztia, parkatuta euki ebalako.

Orregaitik, kaisar edo konstituzioaren mendetzaille agintarien ustean, matxinatu fazizta batek, nai ta berezko Jaungoikuaren lege bidetik, zentzunezko arazoi guztiak euki, ez eben onartzen nagusiekaz sarraski orreik egin leikezala, eta Nogerasek eritzi orren bidez, Espoz ta Minatar Franzisko zirikitu eban, Kabreraren ama, ordez il egian, eta bere iru arrebak atxilotu egiezala, inguru guztiko errietan aldarrikatuta erritarrak eredu lez artu egien.

Nogerasen aolku ori ez zan geratu or, Aragoian sasi-gudan ibilten ziran agintarien emazte ta semeak ilteko aolku bardiña emon ebalako (*espainitarren orokorrezko edestiaren egille D.VICTOR GEBHARDT seigarren atalean 895 - 896 orrialdean esaten dauan lez*).

Minak, Nogeraseri baietza emonda, bere gudariai agindu eutsen, nazkagarrizko ilketa ori egien.

1.834ko urtean atxilotu eben Kabrerasen ama, Griñotar Maria, eta liberal agintariak erakusteko eurak euki eben aierkunde edo gorroto aundia, ezeren salaketa eukinez gain: *“Kabrerasen ama Griño´tar Mariari, ez eutsen bere alabari besarkatzen itxi, ez azkenairik egin, ez buru-estalkirik ipini, eta bera ain ereduzko Kristaia izanda, eleizakorik artzen be”*.

1.836ko urtean Otsaillaen 16an liberalak, Kabreraren ama tiroz il ebenean, berak artu ebazan mendeku edo ordain bidetik: *“Zaldun erriko odol zale katamotza lez”* esaten eutsoen antzera, arrapau egiten ebazan gudari ta agintari guztiak, ilten ebazan.

1.838ko urtean Vn Karlosek, Morellako kondea izendatu eban.

1.840ko urtean berak, 1.839ko urtean Bergaran egin zan saldukerizko egiune ez ebalako on artzen, Frantzira atzerritu zan.

1.848ko urtean Kataluñara itzuli ondoren, matxinatuakaz alkartzen da, eta karlistaren bigarren gudako buru egiten dabe.

1.849ko urtean Kabrera, ostera atzerriratzenda Frantzia ta Ingalaterrara, eta emen Katharine Ritxard Marianne ingelesagaz ezkontzen da.

1.875eko urtean Kabrerak, ontzat artu eban XIIIn Alfonso erregea.

29. Gomez ta Damas´tar Migel Santxo.

1.785eko urtean Bagilaren 5ean, Jaeneko Torredonjimemon jaio zan.

1.808ko urtean Bagillaren 9an sartu zan, tenient ordezko lez, espainitarren gudaloztean, Baileneko borrokan egonda.

1.812ko urtean Uztaillaren 21ean ainbat borrokan ibilita, frantzezak Kastallaneko errian arrapau eban, eta Frantziko Autuneko espetxera bialduta, lortu eben iges egitea, eta ostera joan zan bere guda taldera.

1.812ko urtearen Iraillan, kapitan egin eban, eta 1.815eko urtean Madrillen ezkondu zan Paradar Bizentarekin.

1.816ko urtearen Loraillako 8an, gudaritzari izten dautso.

1.820ko urtean Migelek, Riegotar Rafaelen konstituzio edo jaurgoaren guztiz aurkakoa izanda, Jaeneko gualtegiaren agintariak eskuratu gura dauz, eta porrot eginda, Jaenetik alde egin bear izan eban.

1.823ko urtean VIIIn Fernando erregeak, bere alosokeriaren jabetza ostera berrezkuratu ondoren, Andaluzira joan zan, eta Algeziraseko agintaritzaz lortuz, Maria Kristinaren errege ordezkotza kendu eban, erregetzazko alosokeriaren eritzikoa zalako.

1.833ko urtean Madrillen egoala, karlistadako guda sortu zan, eta bereala joan zan Nafarroara Zumalakarregiren agindupean lerrokatzeko.

Zumalakarregik, bere gualoztearen aintzindari⁽¹⁾ nagusi izendatu eban, eta ainbat borroka nagusietan egin zan.

1.834ko urtean Vn Karloseri laguntzen ibili zan, ta Bizkaiko gual buru nagusi izendatu eban. Gernika ta Tolosako borrokatan ibilita, Zelaiko Mariskala egin eban.

1.834ko urte orreitan, Orbaizetako markesaren aundiki izena emon eutsoen.

1.836ko Bagillan, gure Euskalerrri onetan karlistaren gualozteak, liberalaren aldetik euki ebezan larritasunezko eraso bidetik lasaitzeko, Vn Karlosek, Asturias eta Galiziatik zirikituzko ibillaldia⁽²⁾ egin egian agindu eutson, lurralde aiek bide batez, karlistaren aldera urbildu egiezen.

Amurriotik, 2.700 oinezko ta 180 zaldunezko gudariek urten da, Riaño, Obiedo, Lugo, Akoruña, eta Konpostelako Santiago artu ebazan.

Eta emendik beren erabagiagaz Andaluziko bidea artuta, Leon, Palentzia, Balladolib, Rekena, Albazete, Billarrobledo, Baeza, Kordoba, Pozoblanco, Almaden, Kazeres, Ezija, Alkantara, Osuna, Ronda, Arkos de la Fronterako erriak artuz, Euskalerrira itzulkeran, Zitudad Realeko Pedro Muñoz ta Segobian Burgo de Osmako erriak artu ebazan.

Uri ta erri guztietatik alde bear izan eban baiña, Rodil eta Narbaezen 25.000ko gudariaren gualozteak atzetik eukezalako.

Eta borroka asko irabazien artean, porrot batzuk euki arren, zirikitazunezko ibilaldi orrek, ez eban garaipenik lortu, iñon ez ebalako lortu karlistaren alde sendotasunezko zaletasunik.

3.000 gudarikaz sartu zan Euskalerrrian, baiña artu eban aginduzko arduratik, ez ebalako bete agindu eutsoen baldintzakin, epaitu ta espetxeratu eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n, Bergaran Marotok egin eban saldukeria ikusita, bere emazteagaz Frantzira atzerriratu zan.

1.846-1.849ko urte bitartean, karlistaren bigarren go gudan ibili zan, eta Andaluziko gual buru nagusia izan da, karlistaren utsegiteagaitik, ostera Frantzira atzerriratu zan.

Gomez ta Damastar Migel Santxo, Orbaizetako markesa, edestian sartzen bada baiña, ez da goi aldi oraiñarte esan doguzan gauza gaitik, 1.836ko urtean Amurriotik urtenda, Asturias, Galizia eta Andaluzitik bere kabuz egin eban zirikituzko ibilbideagaitik baiño.

1.864ko urtean Bagillaren 11n Burdeos en il zan, gure Gomez ta Damas´tar Migel Santxo au.

(1) Aintzindari = jefe, cabecilla, administrador. (2) Zirikituzko ibillaldiak = expediciones guereras que se hacian por el exterior, para deskongestionar las provincias vaskongadas y crear adeptos para la causa carlista.

30. *Gartzia ta Montoya´tar Jose Maria.*

1.811ko urtean Dagonillaren 15ean, Lantziegon jaio zan.

1.833ko urtean karlista gudari lez lerrokatu zan.

1.834ko urtearen Otsaillan, gudarien sarjentu maillara igon eben, eta illabete batzuk gerago, alferezeko maillara igon eban. Orren ostean, eta Vn Karlosegaz ainbat lekutik borrokan ibilita, komandante agintari egin eben.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergarako egiune ostetik, Frantzira atzerritzen da Vn Karlosegaz.

1.841eko urtean konstituzionalistak barkamendua agindu ebenean, itzultzen da bere errira, eta Dagonillaren 23an, Gil eta Urartetar Petragaz ezkontzen da.

1.870eko urtean Dagonillaren 27an egin zan matxinadan be egon zan, eta 30ean 8 urtera-ko atxilotuta, urte orren kopurutik, bat bakarrik bete eban.

1.871ko urtean, karlistarekin azpi jokoan asten da, Lopezzar Eusebio⁽¹⁾ lagun eukela.

1.872ko urtean irugarren guda asten danean, Karlistaren guda loztean lerrokatzen da koronel ordezeko agintaritzarekin, gero Lapoblazioneko koronel jaurlari lez, eta guda amaitzen joan zanean, koronel maillatik goragokoa.

1.874ko urtean Uztaillaren 26an, bera ilteko txarkeria euki eban, bizirik urten da.

1.875eko urtean Jorrailaren 30ean karlista porrokatuakaz alkartuta ibili zan.

1.876ko urtean Otsaillaren 2an, guda amaitu zanean Frantzira atzerritu zan, eta erriratu ondoren, beti ibili zan bere karlistaren gudari jantziakaz.

1.900eko urtean Epaillaren 10ean 90 urte euki ebanean il zan, bere Gazteizeko *“los Arki-llós´eko”* etxean.

31. *Muñagorri ta Otaegi´tar Jose Antonio.*

1.794ko urtean Jorrailaren 2an goizeko 6retan jaio zan Muñagorri ta Otaegi´tar Jose Antonio, Berastegiren Elutseneko etxean.

Muñagorri ta Larburutar Jose Mateo bere aita, eta Muñagorri ta Tapiatar Juan Bautista bere aitona, baratari edo agiri-idazleak izan ziran lez, bera izango zan gero, arik eta 1.838ko urtean gudaren gora beran, bere *“Bake ta Foru”*en adierazpena aldarrikatu arte.

Jakituna izan zan Foruko Legetan, eta orrez gain, Ameraun, Ollokiegi, Plazaola, Urto eta Zumarristako burni-olaren maizter edo etxatari⁽²⁾ be izan zan Berastegin, Areso, eta Eratsun´en. Eta batzuetan lan-artzaille lez, Irurtzun ta Gazteizko erregearen bidea egin bear izan eban.

Muñagorrik egin ebazan ikasketak, eta euki ebazan lagun bidetik, liberalaren aldekoa zan, Gipuzkoako liberalaren zuzendari Zabalatar Jose Manuel Billafuerteseko kondearen semeakaz euki ebazan arremanak, erakusten dauan lez.

Guda sortuta, erritar inguru ori baiña, karlistaren alde edo eragipenekoa izan zan lez, bere burni-olakaz ez eban beste aukerarik, karlistaren serbitzura ipini baiño, Zumalakarregi bera be, ainbat bider ikustera joanda.

Guda luzatu egin zan, eta karlista buruzpidearen zaingoak, gero ta atzerago ibiltzen ziran lez ordainketetan, bera gero ta estuago agertu zan, bere ola-gizon, aizkolari, mandazain, abelzain, eta euki ebazan langilleai ordaintzeko.

(1) Lopez´tar Eusebio = 1.846-1.939ko urte bitartean bizi zana. (2) Maizter edo etxatari = arrendatario.

Eta egoera au izan zan beartu ebena, *“Bakea ta Foruen”* izenean egin eban matxintasun antzeko ori, aldarrikatzeke.

Muñagorri, Nafarroako Iturmendi Udalerrian karlistarekin batzartuta, guda amaitu bear zala ta, euren buruak limurtzen ibili zan, baiña ez eban balio ezertarako.

1.837ko Azaroan Madrillera joanda, bardin egin gura eban liberalarekin, eta Bardají Azara lendakaria izan zanak, onartuta Muñagorriren *“Bakea ta Foruen”* eritzizko saioa, guda amaitu- ten bazan, 1.000.000 lauerlekokin sarituko ebalu agindu eutson, aurrera egian.

1.838ko urtean Jorraillaren 18an Berastegitik, guda amaitzeko alegiñean aldarrikatu eban bere *“Bake ta Foruen”* asmakuntza Giputz ta Nafartarrai. Bere adierazpeneko asken ekintzazko berbakaz, Euskaldun guztiai aleginduz: *“Gorputz bat lez, izkillatu gindezan, Bakea, Askatasun ta Jabetasunak lortzeko, konstituziozko agintari barrien agindupean”*.

Batera, Vn Karloseri be bialdu eutson eskutitz bat esaten: *“Euskalerritik alde egiela, eta beren erregezko asmakuntzak borrokatu egiezala, errege onartu leukien lurraldeetan, jabetasun- ezko lurraldeak bakean itxita”*.

Karlistak, bereala bialdu eben Iturbe koronela, Muñagorrik bere alde euki ebazan langillea- ren aurka, eta laster bakeztu edo banandu ebazan.

Euskalerriko Nortasunean, agerkuntzari abestutea berezkoa zan, eta bereala agertu ziran bertsoetako kantak, bertso au txapel-gorrien artean begiko zana artuta:

**“Muñagorriren jendiak
ez dira gerran trebiak
billatu leizke obiak
beñere ez du gauza onik egin
gizon bururik gabiak
diru billa ateriak
aitu bear dizkit beriak”**.

Muñagorrik, bere bakezko aldarrikapena Euskalerrri guztitik zabaldu naian, bertso pape- retan agertu ebazan 37 zortziko txikiak baiño geiago. Artean, erritarren begiko onek esaten dauana:

**“Muñagorrik diona
bere proklamian
gerra ondatzen gaitu
bostgarren urtian
igaz jarri zan Karlos
Madrilko bidian
bultza zuten atzera
gerra bere oñian”**.

Saran, babestu ziran muñagorritarrak, Bidasoa ibaiaren ezkerreko aldean, Bera ta Irunen arteko Lastaolan, euren guda kanpaldi oial-txabolak ezartzeko, eta bertatik, Jauregitar Gaspar *“Artzaia”* eta Lord Hay liberalaren guda nagusiai deituta, bertora joan ziran, euki ebazan langi- lle indarrak gudan trebetzeko. Ekintza orrekaz, argi agertu ziran Muñagorriren zaletasunak, ta noren alde edo zelako bakearen billa ibili zan.

Madrilleko jaurlaritzazkoak baiña, nai Muñagorrigaz itzarmenduta egon arren, liberalen gudal agintariak ez eben ontzat artzen Muñagorriren aldarrizketa ori, euren lerroetako gudarien artean eukiko ebazan aldaketagaitik beldur ziralakoko, ta Muñagorri, O'Donnelek debekatu eutson, Balkarloseko Luzaiden sartzea.

1.838ko urtean Azaroaren 5ean egin eben Muñagorriren taldekoak lenengo irteera, Endara, Biandiz eta Artikutzatik Goizuetaraño, ezereen eragozpide barik.

Muñagorrik bigarren irteeran, Dantxarineatik sartuta, Urdazubira eldu zan, Olaburun egon ziran Nafarroako karlistaren II n taldetik batzuk atxilotuta.

Muñagorrik orduan agiri bat sinatu eban, bere barruan au esaten ebana: *“Atxilotuta gerezten ziran muñagorritarrak, askatu egiezala ezereen baldintzazko eragozpenik bage, berak egiten eban antzera”*.

Muñagorrik, arrapatuta eukezan karlista guztiai, Foruen alde eta gudaren aurkako mintzaldia emon ostean, danak aske izten ebazan.

Muñagorri ba egoan be, Vn Karlos Azkoitin atrapetako gogoagaz, bere Betelu 'ko gazte lagun, Elorrio ta Soroeta 'tar Ramon karlista sarjentoarekin, baiña txarto urtenda, onek Berastegiko agiri idazleari bota eutsozan erruak, eta baleike salaketa ori izatea errudun, agiri idazleak bere burua il egien.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n, Bergaran egin zan saldukerizko besarkada ostean Muñagorrik, bere taldekoak askatu ebazan, eta bera, eukazan Berastegiko zeregiñetara joan zan.

1.841eko urtean Urrillaren 7an Esparterok, Gazteizen sartu zanean O'Donnellen asmoak ezereztuteko, Muñagorriren gazte laguna, Elorrio ta Soroetatar Ramon teniente karlistea, bere billa joan zan Zumarriztako burdin olategira, eta 1.841eko Urrillaren 14an aurkitu ondoren, tiros il eban Muñagorri Eratsungo errian, bere emazte Labaientar Joakina, aurean egoala.

Bere gorpuzta, Eratsungo eleizan illobiratu zan, eta bertan dagoz oraindiño bere ezur ondarrak.

32. *Uranga 'tar Jose Inazio tenient guda-nagusia.*

1.837ko urtean Iraillaren 29an, Peraltako erriari eraso eutson, eta iru agintari nagusi ta 90 gudari arrapatu ebazan.

33. *Gonzalez ta Moreno 'tar Bizente.*

Fernandez de Kordobatar Luis liberala urbiltzen egon zanean, Bilboko ingurutasunetik alde egin ebana, eta Mendigorriko borrokan, Kordobak ostera menperatu ebana.

34. *Alzaa.*

Gizon ospagarria, 1.833ko urtean Urrillaren 11n, Oñatin matxinatu zana: “Jaungoikua, Fuegoak, Aberria ta Erregearen” izenean.

35. *O'Donnell 'tar Juan koronela.*

Bartzelonan tiros il eben, eta egun orreitan Atarazana eta Kanaletas 'eko espetxetan, bai gaisotegietan zaurituta egon ziran beste 140 karlista gudariak, baitegiko oetatik atara, ta tiros il ebazan.

36. *O'Donnell'tar Karlos, Juanen anaia.*

Onen esanetatik dator, eukezan lagun guda alper nagusi batzuei, eta Vn Karlosen gorteko ipini eutsen "*Ojalateros*" izena. Borroka baten batetik agertzen zanean aolku lez, danok banan banan esaten eutsuelako: "*Ojala si hubieses atacado por este u otro lugar*", berak ainbeste "*Ojala*" entzun ondoren: "*Son Vds. ojalateros ?*" erantzunda.

Gero izen au, Vn Karlos errege-naiaren gortekoen artean zabaldu zan, borrokako zelaietan ibiltzen ez ziranak, ainbat kalte egin ebelako gure Euskal Foru Legeai.

37. *Barres ta Molard'tar Alfonso, prantzexa.*

1.830eko urtean Portugaleko I Migel erregearen gudaletxean lerokatu zan.

1.833ko urtean espainitar lurraldean egon zan, eta guda asi zan orduan, frantzira aldatu zan.

1.834ko urtearen Uztaillan frantzitik, Sabatier'tar Alexis'egaz itzulita, Zumalakarregiren gudaletxean lerokatu zan, oiñezko tenient maillarekin, bere anai Karlos eta Amadeogaz.

Koronela izatera eldu zan, San Fernandoren xingolagaz⁽¹⁾ sarituta.

1.842ko urtean "Memoires sur la guerre de la Navarre et des Prvinces Basques" liburua argitaratu eban.

38. *Sabatier'tar Alexis, prantzexa.*

Zumalakarregiren gogokoa izan zan mutil au, eta gudari maillan kapitain eginda, Mendazako borrokan zauritu zan, eta Frantzira iges egitea lortuz, zauriak osatzen egoala, "*Tio Tomás*"en liburua idatzi eban.

1.835eko Loraillan asi zan borrokan ostera.

39. *Ferdinand Henningsen'tar Karl Eskoziarra, Nafarroako zaldunen kapitaina.*

1.815eko urtean jaio eta 1.877ko urtean il zan.

Urdaxetik sartu zan gure ingurura, eta Ormaiztegiko borrokan San Fernandoren gurutzegaz xingolatu ondoren, tenient ordekoa izendatu eban.

1.835eko urtean Jorailaren 24an, Zumalakarregiren gudaletxean, liberalaren laguntzaille Lord Granbille ta Elliot'tar Edward'ekin berba egiten egoala, Zumalakarregi, arrituta geratu zan, ainbeste izkuntzetan berba egiten eban Aleman sorterriz, eskoziatar gazte ura, karlistaren gudaletxean artean ikustea.

1.835eko urtean Jorailaren 25ean Zumalakarregi il zanean, Ferdinand Henningsenek, bere ereduako gudaria il zalako, amaitutzat emon eban emengo zeregiña.

1.835eko urtearen Uztaillako 14an, Mendigorriko borrokaren egun bi ariñago aldatu zan mugatik.

1.836ko urtean Ferdinand Henningsen'tar Karlek, Granbille ta Elliot'tar Edwar Lord'eri eskainita, aleman, italiano, frantzez eta gaztelarara itzulitako liburu bat, argitaratu eban: "*Zumalakarregi ta bere gudaletxean, amabi illabete Euskalerriko lau lurraldetan*" egin ebanaren edestiko zeaztasunak azaldu egiten dabenak.

(1) Xingola = condecoración.

Eta Zumalakarregiri, liburuaren aurrerako marraztu eutson argazkia, danak esaten eben, antza geien emoten dautsona zala.

1.837ko urtearen Dagonillan bere izena, Zurita ta Miranbelen arteko gudaldian agertzen da, eta emen orokorreko karlistaren gudaltegian agertuta, *“Torys”* en alderdiko agintarien eskutitz batzuk aurkeztu ebazan, bertan Durangoko agindua ezeztatzea eskatzen ebana, Ellioten egiunetik, atzerritar lejonarioak alderatzen ebazalako.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n lenengo guda amaitu zanean, Kaukasora aldatu zan, Stxamyl igarlearen ikurrapean leiñu guztiak batuta, Errusiaren aurka borrokatzeko.

1.849ko urtean Kossuthen alde, Ungriako jaurkintzaren aurka borrokatu zan, eta guda ura amaituta Ameriketaren Alkartutako Laterrietara joan zan, bertan Gudal Nagusi lez, Walker itsas lapurragaz espainitarren aurka borrokatzeko. Eta Ameriketari bereizketako guda agertu zanean, Elkartasunekoakaz⁽¹⁾ borrokatu zan.

Karl Ferdinand Henningsenek Eskozia´tar karlista kapitaiñ onek esaten eban, liberalaren aldeko Ingelesak denbora onetan esaten ebala: *In Isabelen gudalozteak Nafarroaren erriatetik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren zarraskiko asperkeriak.*

Gure Euskalerriko errietan, orduko gizaseme emakumearen artean: *bildur, ogibide, jende mea, edo ta nortasunaren eritzizko izaeran ainbat naste egon zalako*, sinismeneko eritziaren arloetan naste aundiak egon ziran liberal edo karlisten alde bietan, eta geienak abertzaleak izaten ba ziran be, salaketaren bildur aundiak egon ziran, liberalaren zigorrez gain, Zumalakarregirik berak be, ainbat eriopeko zigorrak aginduten ebazalako, euren aurkako zelatan ibiltzen ziranai.

40. *Litxnowsky´tar Felix Maria Bizente Andres, Alemana.*

1.814ko urtean Jorraillaren 5ean jaio zan *“Litxnowsky printze au”*, Eduardo printzea eta Werdenberg´eko konde eta Wostxutzeko Jaunaren seme nagusiena.

Kutxelna, Grabowka, Krzyzanowtz eta Bolatizeko erro ondare edo erro yarauntsien⁽²⁾ jabeduna.

Gudu bizitzan egin zan gizon, eta orrez gain, erti oitura ta ele ederretan osotu ebazan bere ikasketak. Beethobenek, bere bigarren sinfonia eta iruko eres taldentzak idatzi ebazan ereski batzuk eskaiñi eutsozan.

1.837ko urtean, berak 23 urte euki ebazala, Vn Karlosen gudaltegi nagusira aurreratuta, *“Prusseko La Gazette de l’Etat”*eko berri idazle lez aurkeztu zan, eta bere jakintzaren joeragaitik laster egin eben gudal buru nagusi.

1.839ko urtean Bergarako saldukeria ikusi ondoren eta bere errira joanda, Vn Karlosen alde irauan eban lanean.

1.842ko Dagonillan Bartzelonara joan zan, eta espainitar gudal nagusiak, Karlosen gudal matxin-zaleak ezereztuteko naian etorten egon zirala, errigizarte artean zabalduz, euki ebazan lagunari esker, iges egitea lortu eban.

1.848ko urtean Iraillaren 17an 34 urte euki ebazala, Alemaniako matxinada baten il zan.

Lau liburu idatzi ebazan karlista borrokaren gora beran, eta Azkonatar Jose Marik itzuli eban *“Karlistaren 1.837-1.839ren urte arteko Borrokaren Oroipenak”* lenengo liburua gaztelerara.

(1)Elkartasunekoakaz = con los confederados. (2) Erro-yarauntsiaren jabeduna = señor de mayorazgos heredados por primogenitura.

41. *Bon Goeben´tar Augusto, alemana.*

1.816ko urtean Hannoverreko Elba Staden jaio zan, Aleman guda nagusi au.

1.833ko urtean Prusiako guda loztetan lerrokatzen da, 1.836ko urterarte.

1.836ko Udabarrian eta baserritar jantzita, Frantzitik Auñamendiko muga aldatzen dau, Zugarramurdira elduta.

1.836ko urtean Loraillaren azkenerantza, Ordiziara joaten da, Vn Karlosen guda loztetan lerrokatzeko.

1.836ko Bagillan liberalak, Ondarribin arrapatu eben, eta Esparteroren mendean egonda, Ebro ibaitik uger eginda lortzen dau Lizarrara iges egitea.

Kadizen osterata atxilotu eben, eta ortik be osterata aske geratuta, Kabrera guda nagusiaren guda lozteagaz asi zan, gero espainitar konde bategaz Kataluñatik ibilita, gudari maillan koronel orde lez amaitu eban.

1.840ko urtean Alemaniara oiñez itzuli zan, eta Euskalerrri, Kataluñia ta espainitarren lurraldeetatik karlistaren guda lozteetan lau urtetan lerrokatuta, egin eban guztia idatzi eban: *“Karlistaren sorkuntza”* *“Borrokak”* eta *“Maldaberea”* ren izenagaz, 1.841ean Hannoverren argitaratu egin zana.

1.842ko urtean Prusiako guda lozteetan osterata lerrokatzen da, eta guda aintzindaritzarako⁽¹⁾ aukeratuta, 1.849ko urtean, Badeneke guda ldia egin dau Prusiako printzeagaz.

1.860ko urtean VIII In guda aintzindaritzaren guda nagusi lez, O´Donellen orokorreko guda ltegian egokituta espainitarren egin eban Marruekoeko guda ldia.

1.864ko urtean Düppel eta Alseneko guda llian ibili zan, eta 1.866ko urtean Austriaren aurkako guda llian.

1.870-1.871ko urte bitartean, Frantziaren aurkako guda llian egon zan.

Eta 1.880ko urtean Koblenzan il zanean, ospe aundiko goragarriekaz inguratu ondoren, Aleman guda itsas ontzi aundi bateri ipini eutsoen bere izena.

42. *Loning´tar Adolfo Alemana.*

1.843ko urtean Nafarroa eta Euskal lurraldearen lege edo Foruaren liburu bat argitaratu eban, eta 1.844ko urtean, bere artu emonak karlistaren lenengo borrokan.

43. *Karlistaren guda nagusiak, zerrenda lez aurkezuta.*

Danen aurkezpena aurkeztu ezinda, nai ta oraindiño askoren gabetasunean geratu, onek guztiok zerrenda lez argituko dodaz.

*- *Borbon ta Braganza´tar Sebastian Gabriel, Vn Karlosen bigarren semea.*

*- *Billarreal eta Ruiz de Alegria´tar Bruno, karlistaren oneneitariko guda Nagusia.*

*- *August de Saint Sylbain´tar Louis Xabier prantzesa, Karlosen idazkaria.*

*- *Karnizer frantzez guda nagusia 1.835eko Jorraillan tiros il eben liberalak.*

*- *Ladron de Zegama´tar Santos.*

*- *Uriz guda nagusia*

(1) Aintzindaritzaz = jefatura, estado mayor.

- *- *Gartzia gudal nagusia.*
- *- *Sanz gudal nagusia.*
- *- *Karmona gudal nagusia.*
- *- *Iturralde´tar Franzizko koronela.*
- *- *Berastegi´tar Balentin.*
- *- *Lardizana´tar Inazio koronela.*
- *- *Iturriaga´tar Karlos Bernardo.*
- *- *Urtizberea (Irun).*
- *- *Eraso´tar Benito Franzizko gudal nagusia.*
- *- *Zabala.*
- *- *Gurrea´tar Manuel.*
- *- *Zaratiegi´tar Juan Antonio, Zumalakarregiren idazkaria.*
- *- *Gomez ta Damas´tar Migel andaluztarra.*
- *- *Wilhelm Bon Rabder´tar Gillermo Aleman koronela, Prusiako guda taldeko injeneru zana.*
- *- *Schwarzenberg Aleman printzea.*
- *- *Boos-Waldeck j, Aleman kondea.*
- *- *Stolberg, Aleman printzea.*
- *- *Von Vaerst, Aleman diplomatikua.*
- *- *Von Rappard Alemana, Ulano taldearen kapitana.*
- *- *Plesseneko Bernardo baroia.*
- *- *Das Antaseko baroia, Portugaleko gudari taldearen gudal agintaria eta abar.*

44. *Kadizeko konstituzio edo jaurgo barriaren liberal kristino aldetik aukeratu ziran gudal nagusiak.*

45. *Kastañon´tar Federiko.*

Ez daukat bere bizitzaren kondairatik ezer, bakarrik Euskalerriko lau lurraldearen gudal agintari nagusia izan zala, baiña beren aginduak aipatuko dodaz, gitxi gora bera jakiteko, zelako gizona izan zan.

1.833ko urtean Urrillaren 8an Kastañon´tar Fedriko gudal nagusi onek Tolosatik, Iruneko gudal ta errigizarteko liberal agintari guztieri, eskutitz bat bialdu eutsen, Bilbon gertatu zanagaitik oartz egon zitezen, eta euren aldeko sinismendunak izkillutu egiezala, Tolosara bialtzeko. Agindu ori, bete egiten ez ebenentzat, eriotzazko zigorra aginduta.

Eta egun berean, beste antzeko eskutitz bat gipuztar guztiei, Gaztelaniatik meatxuz etorten zan guda indar aundiagaitik.

1.833ko urtean Urrillaren 14an Kastañonek Tolosan, gudu legez aldarrikatu eban agindu bat: *“Euren eritzizko aurkakoak tiroz il egiezala”,* edo ta *“Erritarrak, meatxatu egiezala, guda-ko itsas-ontzietara bialdu egingo dabezala atxerriratzeko”.* Eta gizartearen edozein maillako seme alabak, euren alde zalatari jokatzen ba eben, saritu egiezala.

Naikoa dala uste dot, maltzurrezko kaisar itxuran eta odol zale gizon iltzaille lez jokatzen eban elementu au ezagutzeko.

46. *Oraa ta Lekunberri'tar Martzeliño.*

1.788ko urtean Jorrailaren 28an Nafarroako Beriainen jaiotako zan.

Lege gizonen ikasketak egiten egon zanean, osasun aldetik ez ebalako laguntza aundirik euki, ikasteari iztea erabagi eban.

1.808ko urtean Loraillaren 2an Madrillen gertatu zanagaz biotzean ikututa, Kataluñaara joan zan gudari lerrokatzeko, eta ezinean, 1.810eko urtean bere gurasoen laguntzagaz, Kuenka-batalloiairen taldean tiralari lerrokatu zan kadete lez, eta borroka askotan ibili ondoren, Erdi Ugarte onen Iparraldeko 3garren gogozko batalloian, sarjentu maillara igon eban.

1.829ko urtean koronel eginda, 1.831ko urtean, erregeen oroiz aurreko⁽¹⁾ taldean, gudal buru koronela izendatu eban.

1.833ko urtean Azaroaren 29an, Lizarrako Merindadearen Berruezako ibarrean, Nazar eta Asartako errietan Zumalakarregiren aurka egin ebanagaitik, koronel baiño mailla bat geiago, brigadier izatera igon eban, aurrerantzean San Fernando Gurutzea eta I Isabel katolikaren Gurutz andiaren xingolakaz sarituta.

Eta berak, gudalozteagaz aruntz onutz ibilteko euki eban azkartasun bidetik "*Ule Zurizko Otsoa*" deitu eutsoen.

1.836ko urtean Dagonillaren 24tik 1.836ko Iraillaren 24ra, Kordobak bere gudal buru agintzari uztea erabagi ebalako, ta Espartero oraindiño eldu barik egon zalako, bera izan zan liberal gudaloztearen buru, arik eta Lutxanako borroka bideratzen egon zanetik, Espartero agertu arte.

Bere irabazpidearen bidetik jeneral ordezkoa izendatu eban, eta Morellan, Kabrera ta Griñotar Ramon Morellako kondearen aurka, artu eban astiñaldi bidez, eukezan gudal buruaren agindu guztietatik baztatu eutsoen, geroago, bere len gudal buruko agintaritzan osteria ipinita.

1.840ko urtean Nafarroako senatore aukeratua izan zanean, Filipinaseko gobernari ta gudal nagusi kapitaina izendatu eban, eta 1.841eko urtean Otsaillaren 14an elduzan bertara, ordezkoko agindu orreik aurrera eroateko.

Filipinaseko gizarteari, laster erakutsi eutsen bere goi mallako jakintza ta zuzenezko ardura, Manilako jendeartean ekanduzko gizabideakaz aleginduta, itsas portuaren araudiak antolatuta, gaizkillearen ekin txarrak geratu, eta ikasbideak bizkortu ebazanean, erritarri al eban on guztia egiten.

A ta guzti bere izena, apur bat loituz geratu zan, agindupean euki ebazan gudal nagusiak egin ebazan ertsaldi⁽²⁾ biekaz, askok atsekabetuta, asarre agertu ziralako.

1.843ko urtean Urtarrillaren 12an espainitarren jaurlearitzakoak, bere Filipinaseko agintaritzatik aldatuz, 1.844ko Bagillan Kadizen lurreratu zan eta bereala izendatu eban itsas andiko zeregiñetan, ordezkoko arduraduna.

1.846ko Urtarrillan Madrillen, Pradoko gela nagusian eta aunditasunezko ospetan, Txibako borroka irabazteagaitik, San Fernandoren ereñotz koroatutako gurutz andia emon eutsoen, eta 1.847ko Otsaillan beste ereñotzezko xingola bat, Morellan egin eban atzerakadagaitik.

1.847ko Otsail berean, gudaren orokorreko lan gelagaz arduratu zan, bere osasun txarragaitik, denbora gitxi barruan itxi bear izan ebana.

Nafarroako bere Beriaingo errira itzulita, bertan il zan 1.851ko urtearen Azaroko 24an, 63 urte eukazala.

(1) Oroiz aurreko = inmemorial. (2) Ertzaldi = presión, forzamiento.

47. *Baldes eta Noriegatar Jeronimo.*

1.784ko urtean Loraillaren 6an Asturiaseko Billarin errian jaio zan.

Obiedoko ikastetxe nagusian ikasten egoala, gogoko gudari lerrokatu zan frantzezaren aurka, eta koronel ordesko guda mailla lortu eban.

1.816ko urtean Perura joan zan, eta mariskalgo guda mailla emon eutsen.

1.823ko urtean Peruko gudatean, ez eban onartu, emon eutsen jeneral ordezeko agintaritzea.

Eta 1.824ko urtean Ayakutxon kendu eban bere agintaritzatik.

1.825-1.827ko urte bitartean, Gazteizeko gudaitegiaren buru izendatu eban.

Kartajenako gudu jaurlari ta politikako agintaria izan zanean, II In Isabel aldarrikatu eban erregiña lez.

1.833ko urtean Jeneral ordezeko guda nagusi izendatu eban, eta Erdiugarte onen Iparraldeko guda buru nagusitasunean ipini eban.

1.834ko urtean Nafarroako erregearen ordezeko agintaritzea emon eutsen.

1.835eko urtean peninsula⁽¹⁾ onen Iparraldeko guda buru izanez gain, guda ministroa izendatu eban.

Urte berean, Britania Aundiko erregiñak, Lord Elliot bialdu eban mezulari lez Zumalakarregitar Tomasen gana, arrapatu egiten ziran alde bietako gudarien bizitzak, begirunez edo lotsean artu egiezala gero trukatzeko, eta aurkeztu eutsen agiria bien artean sinatu ondoren, Baldestar Jeronimok, Logroñon egoala siñatu eban agiri ori askenez.

1.841-1.843 urte bitartean, Peruko jaurlari ta guda buru izan zan.

Bere bizitzan, xingola asko, eta andigarrizko Jaun Izenak emon eutsezan.

1.855eko urtean Obiedon il zan, Baldes ta Noriegatar Jeronimo au.

48. *Kesada'tar Bizente Jenaro, Monkaioko markesa.*

Jaeneko Kesadatar Juan Nepomuzeno, Nikaraguako agintaria izan zana denbora orreitan, eta La Abanako Arango ta Kastillotar Maria Josefaren semea izan zan.

1.782ko urtean Iraillaren 19an Kubako Abanan jaio zan, eta Urrillaren 3an bateatu La Abanako Aingeru Zaindariaren eleizan.

1.794ko urtean bere aitak aginduta, Kubako gudaitegiaren III In oinezko gudari taldean sartu zan kadete lez, 1.796ko urterarte bertan egonda. Eta urte orretan erregeak, espainitar erregearen gudari-zain taldeko kadete izendatu eban.

1.808ko urtean Loraillaren 2an Murat frantzezaren aurka, Madrilleko borrokan egon zan, eta Badajozera iges eginda, beste espainitar gudari batzuekin alkatuta, ordezeko koronela izendatu eban.

1.808ko urtean Azaroaren 10ean Burgoseko borrokan zauritu ta atxilotu eban Frantziko Dijonera eroanda, eta andik iges egitea lortu ebanean, Kataluñara joan zan, ortik itsasoz Kadizera joateko, azkenik Santanderreko gudu ta gizarteko jaurlari izendatzeko.

VII In Fernando Napoleonengandik aske geratu zanean, koronel baiño mailla bat gorago-koa⁽²⁾ izendatu eban, eta geroago Zelaiko Mariskala⁽³⁾.

(1) Peninsula = Erdiugarte. (2) Coronel baiño goragoko mailla bat = Brigadier. (3) Zelaiko Mariskala = Mariscal de Campo.

1.812ko urtean Kadizeko jaurgu barriaren aurkakoa izateagaitik Frantzira iges egin bear izan eban. Bertan erregearen aldeko mogimenduetan ibilita, eta Frantziako guda-lozteenkin Erdiugarte onen lurraldeetara aldatu zanean, Nafarroako guda-lozteen guda buru nagusi izen-datu eban.

Eta VIIIn Fernando bere errege aukian ostera ezarri zanean, Granada, Balentzia, Murtzia ta Gipuzkoako guda agintaritzak euki ebazanetik, 1.825eko urtean Andaluziko Guda buru nagusien kapitaiña izendatu eban.

1.814ko urtean, Santanderreko lau Uri nagusien agintaritzan ipini eban.

1.820ko urtean Kesada, konstituzio barriaren iru urte gaizto orretan, bera erregetzazko alo-sokeriaren aldekoa zalako, agintaritzatik kenduta atxilotuz, gero Frantzian atzerritu zan.

1.821eko urtean Erdiugarte onetara itzuli zan, eta konstituzio barriaren aurka borrokatu zan Nafarroako taldearen guda nagusi lez.

1.822ko urtean Kesadak, guda nagusi batzuen bekaizkeriko eragipen bidetik, Egiatar Ramon Franzizko guda buru nagusia, agintaritzatik baztatu eban, nai ta Gergetar Juan Bautista, eta Ladron de Zegamatar Santos guda nagusiak, bere alde euki.

Eta bere agintaritza, Ladron de Zegamatar Santos'en eskuetan itzi bear izan eban.

1.823ko urtean Egia'tar Ramon Franzizko guda nagusiak deituta, Parisetik Baionara aldatu zan, eta emendik, Angulemako dukearen agindupean egon ziran 100.000 San Luisen semeakaz aldatu zan Erdiugarte onetara, espainitar guda-lozteen agintari izateko, erregearen al-osokerizko jaurkintza ostera berrezkuratuta.

Kesadak, VIIIn Fernando ezereztu eban Kadizeko konstituzio edo jaurgu barri ori, kendu gure eban guda nagusien eskuetatik, erregeak guda nagusiaren orde-zko izendatuta, eta 1.833urterarte, leku ezberdiñaren agintaritzetan ibili zan guda nagusi lez.

1.831ko urtean VIIIn Fernandok, erregearen oiñezko gudarien guda buru ta espainitarren oiñezko azkar guda-lozteen arduraduna izendatu eban.

1.833ko urtean VIIIn Fernando il zanean, kristinaren aldeko politikuak, nai ta Kesadak IIn Isabeleri lagundu, Vn Karlosen aldekoa zala susmoa euki ebalako, Andaluziko guda nagusi kapitaiña izendatu eban, eta berak atzerriratzea lez artu ebalako, Zea Bermudezeko jaurkintzari sinistuazo eutzen, bera konstituzio barriaren aldekoa zala, eta Gaztela Zarraren Kapitaiñ guda buru nagusia izendatu eban, Balladolizen egokituta.

Merinotar Jeronimo apaizaren guda-lozteak geratu ebazan, eta sari lez Monkaioke marke-saren izena emon eutsen.

1.834ko urtearen Otsaillan Baldestar Jeronimok, Zumalakarregiren aurka ainbat bider gal-tzaille urten ebalako, Kesada izendatu eban, Euskalerrri edo Erdiugarte onen Iparraldeko guda buru.

1.835eko urtean Iraillaren 1'erarte Kesada, erregeiñaren al osokerizko jaurkintzaren aldekoa zan, ta Madrilleko eguras-etxean⁽¹⁾ konstituzionalisten matxintasun bidetik, 1.812ko jaurgu barriaren legeak ostera ezarrita, Kesada atzerritzeko iges egiten egoala, Madrilleko lurraldearen Ortalezako errixoan, Kinto kondearen soloan aurkitu eban matxinatuak.

Eta 1.836ko urtean Dagonillaren 15ean konstituzio barriaren aldeko matxinatuak, Kesadatar Bizente Jenaro Monkaioke markes ori, Ortalezako errixoan, Kinto kondearen soloan aurkitu eban lekuan, il eban.

(1) Madrilleko Eguras-Etxean = La Granja.

49. *O'Donnell'tar Leopoldo.*

1.809ko urtean Tenerifeko Kurutz Santuan jaio zan eta 1.867an Biarritzen il. Narbaezekin bera izan zan In Isabelen erregetza babestu ebana.

1.833-1.839ko urteetan karlistaren aurka borrokatu zan liberalarekin, eta bera izan zan Kabrera karlista gudal nagusiaren aurka, Luzenako ingurutasuna ezereztu ebana. Ekintza orren gaitik, Luzenako kondea izendatu eben.

1.840ko urtean Maria Kristinagaz Frantzira atzerriratu zan.

1.843ko urtean Esparteroren aurka borrokatu zan.

1.844-1.848ko urte bitartean Kubako gudal buru kapitain nagusia izan zan.

1.856-1.858ko urte bitartean, Esparterogaz gudako ministrua izan ondoren, Espartero orde ipini eben lendakaritzan, liberal batuen agintari lez.

1.859ko urtean Afrikako gudak bideratu ebazan, Tetuaneko Duke izena artuta.

1.863ko urtean lenengo ministrua. Eta 1.865-1.866ko urte bitartean be bai, Bagillako matxintasunaren ostetik.

1.866ko urtean Narbaezeri emon bear eutson agintaritzan, eta Frantzira atzerriratu, bertan il zan 1.867ko urtean.

50. *Fernandez ta Espartero'tar Baldomero, Bitoriako dukea.*

1.793ko urtean mantxako gaztelan, Erregearen Uriko lurraldearen Granatulako erritxoan, nekazari, ta bere aitak orrez gain, zalgurdiak egiten ebazan sendi baten jaio zan, eta beren gurasoak eleizkizuneko ikasketak egitera bialduta, Almagron filosofia edo eraman onaren ikasketak bete ebazan.

1.808ko urtean frantzezaren gudatean, 1.809ko urtean apaiz ikasketak baztartuta, gudari lerrokatu zan, gero Leoneko Isla gudu ikastetxean sartuta, gudu ikasketak osotzeko.

1.815eko urtean kapitañaren mailla lortu ondoren, Amerikara aldatu zan, Morilloren gualoztean lerrokatuta.

1.823ko urtean gudal nagusi egin eben.

1.824ko urtean Abenduaren 9an, Ayakutxoko borrokan atxilotu eben.

1.831ko urtean itzuli zan erdiugarte onetara, eta Iruña, Bartzelona, ta Balears Ugarteetarako emon eutsoen, gudaren antolamenduzko zeregiñak.

1.834ko urtean Bizkaiko gudal buru ta jaurleri nagusia izendatu eban.

1.836ko urtean Zumalakarregi bizirik egon zan bitartean, ainbat uts eginda, eta bera ilda gero garaipentzen asita, Euskalerrriaren Iparraldeko gudal buru izendatu eben, Nafarroako erregetzaren ordezkogaz batera.

1.836ko urtean Abenduaren 16an, Egia karlisten gudal nagusiaren aurka euki eban beren lenengo borroka gudal buru nagusi lez, uts galanta eginda.

1.836ko urtean Abenduaren 24an, garaipen andia lortu eban, Bilbo, karlistaren inguratasunetik askatu eban.

1.836ko urtean Abenduaren 25ean Asuako erreka aldatu ondoren, goizeko 9retan sartzen da Bilbora, ta Lutxanako zubia mendetu ebanagaitik, Lutxanako kondea izendatu eben.

1.837ko urtearen Jorraillako asken egunetan, Bilbao ondo babestuta itxi ondoren, Donostira bideratu ebazan bere gudalozteok, eta Lorailleko lenengo egunetan Muñagorrigaz egonda, Donostitik agindu eutsoen bere gudalozteai, Ernani askatu egien karlistaren mendetasunetik.

1.837ko urtean Loraillaren 19an Espartero Ernanin egoala, Bizkaiko Aldundian irarrita zabaldu eban, karlista gudariak eukezan gudu agintari mailla guztikoaren parkamena, ta lotsaren itzuraz beintzat, onartu ebazan Euskal Foru legeen agiriak.

1.837ko urtean Loraillaren 30ean baiña, Madrilleko *“El Eco del Comercio”* aldizkaritik, parkamen eta Foruen babes aginte orreik ezereztuta, Lemonauriatar Pedro, Zarrabeitiatar Juan Jose, Egañatar Julian, eta ainbat Foruen alde ta aurka egon ziranen artean, eztaibada gogorak sortu ziran.

1.837ko urtean Dagonillaren 26an Esparterok, Iriartetar Leon eta Barrikat´tar Pablo, Iruñian tiroz il egiezala agindu eban, Nafarroaren askatasuna aldarrikatzen ausartu ziralako.

1.837ko urtean Dagonillaren 26an Abadiñoiko izketaldian euki eben lenengo alkar ikuste Espartero ta Marotok.

Eta urrengo egunetan idatzi ziran elkargoaren baldintzak, 1.839ko Dagonillaren 31ko egunean, Bergaran egin zan saldukerizko egiunearen, aurrerapenezko egunak izango ziran.

Esparterok alkargo orren bidez, beartuta geratu zan Madrilleko jaurlaritzakoak onartu egiezan berak siñatzen ebazanak. Artean baiña, Euskaldunai: *“Euskal Foru Legeen arazoak euki ebazan lez”*, itxi edo ta aldatzeko oarkuntzagaz idatzita, emoten eutsoezan.

Ekintza onein bidez Esparterori: *“Gazteizko dukea izatea”*, *“Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari nagusia”*, eta *“Arabatarren aita izendatuz gain”*, erregeen eritziko politika barrian, eta orokorrezko politikaren ateak, alde batetik bestera zabaldu eutsezan, aurrerakoi taldearen alderdia, bere agindupean artuta.

1.840ko urtean Urrillako 12an II In Isabelen ama Maria Kristinak, bere maitaleen eta aurdun ugaritasunen ardura aundian, ez ebalako egiten bere alaba Isabelen ikasketagaitik ezer, Esparterok, Maria Kristina beartu eban, bere alaba II In Isabelen izenean euki ebazan erregetzaren ordezko almen guztiak bere eskuetara aldatzea, eta bere eskuetan orokorrezko agintaritz ori artuta asi zan, espainitar lurraldea jaurlantzen.

Abesti bat be atara eutsoen II In Isabelen ama Maria Kristina erregeñari:

*Clamaban los liberales
Que la reina no paría
;Y ha parido más muñecons
Que liberales había!*

1.841eko urtean Urrillaren 2an Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak lagunduta, O'Donnell Iruñian, eta Pikerok Gazteizen matxinatu ziran, Espartero berak bakeztuta, indar gixiko eztaibada orreik.

Eta 1.841eko urtean Urrillaren 29an, Esparterok bere ezpatea atarata, len Bizkaia, Gipuzkoa, eta Arabako lurraldearen Euskal Foruak babesteko agindua emon ba eben be, espata edo aizto ori atara ebanean, Foru Legeen buru guztiak ebagi ebazan, Euskal eskubideak ezereztuz. Euskaldunak, espainitar beste lurralde lez, bardiñeko legeakaz geratu gindezan.

1.843ko urtean Bagillaren 23an Narbaezek, kendu eban Espartero agintaritzatik, eta Espartero, erbestera joan bear izan eban.

1.843ko urtean Azaroaren 8an Esparterok, Maria Kristinaren ainbesteko galbide bidetik, eta II In Isabel beste batzuen eskuetan izteko, aurreratu eban Isabelen adiñeko nagusitasuna 14 urtetik 13ra.

1.844ko urtean Euskaldunak, lortu gendun Foruen Lege batzuk berrezkuratzea, baiña ortik aurrera sekula ez, milla urte asko Euskal erri lez, askatasunezko Demokrazian lortu genduzanak,

eta gaur oraindiño baituta daukaguzen Ekanduaaren Nortasun Aundiko eta bakarrak direnak Europa ontan, gure "LEGE ZAR GUZTIAK".

1.854-1.855eko urte bi onen artean, O'Donnellen aurrekuntzazko jaurkintzaren aldia deitu eutsen, ta Espartero atzerritasunetik ostera agertuz, espainitar politikagaz kide zuan.

1.854-1.855eko urte bitartetan Espartero, leen ministrua izan zuan II In Isabelen erregeiñ jaurkintzan, eta bera izan zuan "*Kataluña, 50 urteko epeetan, bonbakin erasotu egin bear zala*" esan ebana, Katalanak, Galicia ta Euskaldunak, zor jakien nortasunezko demokrazien askatasunak eskatzen ebazalako.

1.870eko urtean, espainitarren matxintasunean, II In Isabel kendu eban erregeen ezar aulkitik, eta Saboyatar I Amadeo ezarri.

I Amadeo au, bereala gogoratu zuan Esparterorekin, eta deitu ondoren, Bergarako Printzea izendatu eban erregearen zuketzarekin⁽¹⁾. Bilboko Udaletxeak zoriondu ebana.

Espartero, Martinez eta Siziliatar Maria Jazintagaz ezkondu, politikatik baztatu zuan, andik aurrera Logroñon, bere ezkon bizitza egiteko.

1.871ko urtearen Irailako 11 In Logroñoako Udalak Esparterori, gaur Espoloneko Ibil lekuan dagoen oroitzarri aundia eraiki eutsen, Bilbaoko Udalak 1.500eko pestaren laguntza emonda.

Alan, Bilbaoko alkate ta zinegotzi faziztak, 1.841eko urtean Urrillaren 29an lenengo, Euskal Foruak ezereztu ebazanai zorionduz, esker onak be emon eutsezan.

Eta 1.876ko urtean Uztaillaren 21ean espainitarren gorreak, baiezta ta osotu ebazan Esparterok agindu ebazan menperatzail lege orreik.

1.879ko urtean Urtarrillaren 8an II In Espartero, Bergarako Printze, Lutxanako kondea, eta Garaipeneko dukearen aundiki izen guzti orreikaz, eta Logroñon Santa Maria de la Redondako eleiz nagusian dago illobiratuta bere emazteagaz batera.

51. *Rodil eta Galloso'tar Jose Ramon, Rodilleko markesa.*

1.789ko urtean Lugoko lurraldean, Santa Maria de Trobo errian jaioa.

Konpostelako Santiagon bete ebazan bere ikasketak.

Napoleonen aurka borrokatu eban.

1.825eko urtean Perura aldatuta, El Kallaoko borroka gogorretan ibili zuan, ospe aundia artuta.

1.834ko urtean Portugalen matxinatutako erritarren alde borrokatu zuan, Portugaleko I Migel erregearen aurka.

1.834ko urtean Kesadak, Zumalakarregiren aurka euki ebazan utsegiteagaitik, aldatu eben guda agintarizatit, eta Nafarroako errege ordezkoa izendatuta, Iparraldeko guda buru nagusiko agintaritzan ipini eben.

1.834ko urte berean, berak be, Karrera, Espartero, Manzanedo ta Lorentzoren laguntza euki arren, San Faustuko atxartetan, Biana eta Gazteizen Zumalakarregiren aurka utsegite asko euki ebalako, Espoz ta Ilundaitar Minagaitik aldatu eben.

Rodil'tar Jose Ramon au, Mendizabal eta Kalatrabarekin, Guda ministrua izan zuan, eta bigarreneko aldi onetan, Gomez karlista guda nagusiaren atzetik ibili bear izan eban, onek espainitarren lurraldeetatik, zirikitzuko ibillaldearen guda egin ebalako.

1.836ko urtean Esparterorekin euki ebazan eztabaida bidez, eta azken gaizto asko euki ebalako, kendu eben guda agintarizatit, nai ta beranduago, bere guda agintari mailla eta izen ona berrezkuratu.

1.842ko Bagillatik 1.843ko Loraillerarte Esparteroren errege ordetzan, espainitarren aolkularitazko lendakaria izan zuan, eta Esparteroren "Los Ayakutxos" esaten eutsen guda agintarien alkaterekoakin, batera egin zuan.

(1) Zuketz = tratamiento de cortesía.

Espainitarren gorteko ordezkoa izanez gain, Extremadura, Balentzia, Aragon, ta Gaztela Bარიaren gудal buru nagusia izan zan. 1.853ko urtean, Madrillen II zan.

52. *Manzanedo eta Gonzalez de la Teja* tar Juan Manuel.

1.803ko urtean Epaillaren 8an Santoñako Darsena Kalean jaio zan.

Gitxiagora joan zan, Aundiki Sendi baten semea zan, eta VIIIn Fernandoren erregetzazko asken denboratan, bera ume zala, gurasoak Kubara eroan eben.

1.842ko urtean Maria Kristina oraindiño erregezko ordeak egiten egoala, itzuli zan Erdiugarte onetara, bere ondasunlari⁽¹⁾ ta jopuen sal-erosketako⁽²⁾ lan bidetik, diruz beteta etorri zana.

1.845eko urtean Manzanedo ta de la Teja tar Manuel, Madrillen kokatuta, betiko geratu zan bertan bizitzen.

Diru-etxetan guztiz sartuta, bere eragipenaren bidez, Madrilleko Urigintzaren egitamu askotan sartu ebazan eskuak, eta O'Donelltar Leopoldo, Liberal aberkide katoikoen Batzangotasuneko egitamuaren diru-etxeetan, kidea be izan zan.

1.864ko urtean IIIn Isabel erregeñak, Manzanedoko markesaren jaun izena emon eutson.

1.875eko urtean Epaillaren 20an eta erregetzazko lege-aginduen bidetik, bere izena goralduta, XIIIn Alfonsok, Santoñako dukearen jaun izenagaz aundiagotu eban.

Bere aberastasuna, muga barik geiagotu eban, salerosketa ta etxe-gintza bidez. Bai ta, Paris ta Londreseko diru-etxetan egin ebazan txaubidezko salerosle arreman⁽³⁾ bidetik. Berak, txantxa lez esaten eban, Madrilleko *Eguzkien Atea*, bere etxearen baila gibela⁽⁴⁾ zala. "*Txori Galanta*" benetan. Baiña zeozerren edo alango "*Biotz-aldi*" antzeko bat be euki eban, bere Santoñako jaioterrian, ikasketak ordaindu ezin eben gazteentzat, San Juan Bautistaren Ikastetxea eraiki ebalako.

1.882ko urtean Dagonillaren 19an Madrillen il zan. "*Gizon au ez zan izan goian aipatzen dogun Manzanedo gудal nagusia, baiña ustegabeen urten dauan lez, eta aldi onentan bereztasunaren aurkako diru ta jopukerizko batzangotasunaren jokua adierazpentzeko, berak emoten dabezalako argi zabalak, ori da arrazoi bakarra, nik argitaratu dagidan*".

53. *Espoz eta Illundai ta Mina* tar Franzizko.

1.781eko urtean Bagillaren 17an Nafarroaren Ibargoitiko ibarrean, Iruña ta Sanguesaren birtartean dagoan Idozin erritxoan jaio zan Espoz ta Minatar Franzizko au.

Bere gurasoak, Espoz eta Minatar Juan Esteban, eta Ilundai ta Ardaiztar Maria Teresa nekazariak ziran, eta ezin ebelako bere semeari ikasketa nagusirik emon, Franzizkok, oiñarrizko ikasketak bakarrik bete ebazan.

1.795eko urtean berak 14 urte eukezala, il jakon aita, eta bera arduratu bear izan eban baserriaren zeregiñekaz.

Bera baserriar abarkakin eta txapelagaz jantzita ibilten zalako, frantzezak gero, iseka edo txantxa lez, "*Idazineko Laiaria*"⁽⁵⁾ deituko eutsoen.

1.808ko urtean Otsaillaren 9an Ezposek 27 urte bete barik eukazala, Napoleonen gudariak D'Armagnanen agindutara ikusi ebazan, Iruñan sartzen zirala.

Iruñan zer gertatu zanagaz, eta eukan eritzizko nasketatik, matxinatuen taldeak nun nai sortzen zirala ikusiz, bera, Rostolang gудal nagusi frantzezaren guda taldean lerrokatu zan, eta talde orreitan bete ebazan lenengo iru illabete, gudari lez.

(1) Ondasunlari = financiero. (2) Jopuen sal-erosketako = trata de esclavos. (1) Txaubidezko sal erosle arreman bidetik = transacciones comercialistas de inversión. (3) Madrilleko *Eguzkiaren Atea edo Gazteleraz Puerta del Sol: bere etxearen "baila-gibela" zala* = que la Puerta del Sol, era patio interior de su casa. (4) Idaziñeko laiaria = El Labrador de Idazin. Laiaria = layador.

1.809ko urtearen Otsaillan, bere loba, Mina ta Larreatar Jabier *“El Mozo”* esaten eutsoenai, Areizagatar Juan Karlos koronelaren agindupean, lerrokatzeko gazteak aurkezten egon zala, Zalduba edo Zaragoza Napoleonen gudaletzetik bigarrenez babesteko, Espoz ta Minatar Franzizko, O’Doyle guda nagusiaren taldean lerrokatu zan, beragaz izkilluaren erabilketak ikasten asita.

1.809ko urtean Otsaillaren 2an Napoleonen indarrak, Fabre guda nagusiaen agindupean, Aragoiko Iparraldea menderatzen asi ziran.

1.809ko urtean Epaillaren 21ean Prantzezak Jaka menderatu eben, eta Espoz ta bere taldeko beste lagun batzuk, Uriaren ormatik beratuta, Nafarroara iges egin eban.

1.809ko urtean Uztaillaren 20an Espoz bere loba *Mozorekin*, batera ibili ziran Ekisoain ´eko borrokan.

1.810eko urtean Otsaillaren 20an Mozo, Espoz ´en loba atxilotu ebenean, Espoz bere lobaren taldeagaz, Berruete eta Lunbierreko borroketan ibili zan.

Espozek, trebetasun aundia lortu eban, Nafarroa, Gipuzkoa, Aragoi, Araba eta Errioxa aldetik sasi-gudan ibili zanean, eta garrantzi andiko gauza bat, ondo ikasi be: *“Borrokan ibili bear ebazan lekuak, ariñautik ondo azterkatzen”*.

Ortik aurrera, beti egingo ebena. Eta aurrerantzean: *“Nafarroako errege txikerra”* deituko eutsoen.

Eta Ezpoz ´ek, jakin ebenean, *Mozo* bere loba, Baionako gaztelu zarrean frantzezagaitik atxilotuta egoela, Espoz ta Mina ´tar Franzizkok, bere taldeagaz buru ibili zala, eskutitz bat bialdu eutsen *“Korso Terrestre”*ko lagun guztiei, bere agindupean ipini zitezen.

1.810eko urtean baiña, Korsó Terrestre talde ori ezereztu egin zan.

Eta 1.810eko Jorriaillan, Korsó talde orren bananduta egon ziran gudari guztiak osterata batuta, Espoz ta Minatar Franzizko ipini eben taldearen buru. Bere bigarren Mina abizena Illundairen ordez artuta, danak jakin egin Mozoren osaba zala.

Aragon eta Gaztelako guda batzarrak, on artu eben Espoz ta Minatar Franzizko *“Nafarroaren Lurretiko Korsó”* talde orren guda nagusia izan edin, eta berak euri aginte orren onespena egiztatuz batera, Gurrutxagatar Gregorio bere ordezkoa izan egian eskatu eban.

1.810eko urtean Loraillaren 13an eldu jakon onepen ori, eta Loraillaren azkenetarako 900 gudari euki ebazan bere agindupean.

1.810eko urtean Uztaillaren 13an Espozek, *“Lizarrako Azpikeria”* esaten jakon bidez, Nafarroako sasi gudu talde andienaren agintaria izan zan Etxebarriatar Paskual, *“Korellako Aragizale”* esaten eutsoenai, bere guda nagusi guztiakaz, tiroz il ebazan, Nafarroako erri ta auzunetatik ondartzaille ibiltzen ziralako.

1.811ko urtean Loraillaren 25ean, frantzez zai-talde batek, espainitar 1.000 gudari ta beste ainbat Ingles gudari atxilotuak eroaten ebanari eraso eutsen, eta 800 frantzez gudari il ondoren, atxilotuta eroan ebezan gudariak, askatu ebazan.

1.811ko urtearen Dagonillan Napoleon artegatuta, 20.000 gudari zazpi guda nagusien agindupean ipini ebazan, Erdi Ugarte onen Iparraldeko lurraldea, sasi gudarien ekintzatik garbitzeko.

Eta Espozek, frantzezaren gudu indar nagusi orreik isekatzeko⁽¹⁾, bere gudariak Aragoi eta gaztelatik banandu ebazan, bera 1.500 gudarigaz geratu ondoren, sasi guda bidez frantzezak artegatzeko.

Frantzezak guztiz etsituta⁽²⁾, gogoko guda mutillaren sendikoei, jabetasunezko eskubide, lur ta eukezan abere ta ondasunak asi ziran kentzen, eurakaz Iruña, Olite, Tafalla, Aibar, Sangotza, Lizarra ta beste erri batzuen espetxe guztiak beteta, eta orren ondoren, asko tiroz il, eta ainbat Frantzira atzerriratzen asi ziran.

(1) Isekatzeko, Iseka = para burlarse, burla tzanza, tomar el pelo. (2) Frantzezak guztiz etsituta = y desesperados los franceses.

1.811ko urtean Dagonillaren 2an Reille gudal nagusi frantzez kondeak, Lerinen lortu eben garaipeña, eta atxilotu ebazan 200 gudaritik asko, guda zelai orretan, espatakin il ebazan.

Nafartar errikoiak, zigorraldi orren aurrean bildurto barik, suztatu edo arrotu egin ziran, eta Espozen taldea gero ta aundiagoa egin zan.

Espoz bera be kikildu barik arrotuz, Reilleri eskutitz bat idatzi eutson, bertan, 1.811ko Dagonillaren 5ean aldarrikatu eban agindua ez ba eben kentzen, bera be, bere antzera asiko zala, gudal nagusi eta euren sendiak ilten. Eta Reillek ikusi ondoren, Minak arrapetan ebazan gudariak urkatu egiten ebazala, beren mendekuak gitxiagotu ebazan.

1.811ren urrengo illabetetan Espozen taldeai *“Zomorro Gudaloztea”* ren izena ipiniko eutsen, zomorroen antzera, agertu ta aldendu edo suntsitu egiten zalako, len Arlabanen Loraillaren 25ean egin eban antzera.

1.812ko Jorraillan Espozek, beste garaipen andi bat lortu eban, 2.000 frantzez gudariagaz zainduta joan zan ainbat bagoi eukezan su-gurdi gudal-jarraigo bateri⁽¹⁾ bidera urtenda, 600 il, 900 zauritu, 150 atxilotu eta 300 iges aldian ipini ondoren, balio andiko guda tresneriekin geratu zanean.

Bai Bonapartetar I Josek su-gurdi orretan, bere anai I Napoleoni bialdu eutson eskutitz bategaz be geratuz, I Josek erreguz, espainitar erregetzatik alde egiten itxi eutsola eskatzen. *“Kadizeko Gazeta”* aldizkarian agertu zana.

1.812ko urtean Bagillaren 5etik aurrera, amaitu ziran Nafarroako sasi gudak, Kadizeko erregearen ordezeko gudal jaurkintzalleen aginduz, *“Nafarroaren Lurretiko Korso”* taldea espainitarren gudalozte lez arautu ebenean, Espoz, Nafarroako guda taldearen oiñezko ta zaldun buru izendatuta, eta denbora gitxi barru, Bartzelonako Rokaforten garaipena lortu ebanean, gudu zelaiaren Mariskala egin ebenean.

1.813ko urtean Napoleonen gudalozteak, Errusian astiñaldi ederrak artu ondoren, asko malkdu ziran, eta Espozek, inglesak emon eutsoezan kañoi bien laguntzagaz, frantzezak Tafallan euki eben gudu buruzpide⁽²⁾ aundienagaz geratu zan.

Napoleonek ez eban bakerik euki Mina ezereztuarte, eta Portugaleko Klausel gudal nagusiarren laguntza eskatu eban.

Eta Espoz ta Minatar Franzizkori eskertu bear jako Gazteizeko garaipena, Klausel gudal nagusia denboraz Gazteizera ez daiten eldu I Napoleonen laguntzan, Espozek, bere sasi gudako trebetasunagaz, atzera ta aurrera ibili ondoren, Klausel en gudalozte orrei, denbora asko galduazo eutsolako, Wellington ta Welleslytar Arthur Ingeles dukeak, bere garaipen aundiagaz urten egian.

1.814ko urtean VIIIn Fernando espainitar lurraldeetara itzuli zanean, Erdi Ugarte onetan, Napoleonen aurkako gudak amaituta egon ziran, eta Minak erregeari 12.000 gudarien laguntza eskeiñita, bera absolutismoaren aldekoa zala aldarrikatzeko, Kadizeko Kontutuzioa fusilatu eban.

Minak, Nafarroako erregearen ordezkotza gura eban berentzat, baita berak euki eban guda taldea legeztutea, baiña ez eutsoen jaramonik egin.

1.814ko urtearen Iraillan erregeak, ezereztu ebazan gudalozte orreik, ta Mina bere gudal arduratik kenduta, gudalozte orren gudariak, Aragoiko guda taldetan banandu ebazan.

Minak, agintaritzatik baztartu ebalako asarre, bere guda talde bategaz Garesetik urtenda, Iruña artu gure eban, eta Iruñara urbiltzen egon zirala, eroan ebazan gudariak oartuta, zeren atzean ibili zan, lenengo agintariak eta gero gudariak ez eben ontzat artu, eta ostera joan ziran euren lekuetara.

Mina, Frantzira atzerritu zan, eta XVIIIIn Luisek, illeroko 500 frankoakaz saritu eban.

(1)Ainbat bagoi eukezan gudal-jarraigoa = covoy militar de gran longitud por sus muchas unidades. (2) Gudu buruzpidearen aundienagaz geratu zan = Centro mayor de inteligencia militar que Napoleón tenia.

Napoleonek Elbako ugartetik iges ebenean, Minaren laguntza gura eban lortu, eta Mina Suizara aldatu zan.

Minak emendik aurrera il arte, liberalkeriaren alde jokatu eban.

1.816ko urtean Napoleon, Waterlooko borrokan menderatu ebenean, Mina Frantzira itzuli zan, eta Parisen egoala, frantzezak atxilotu eben, Riegotar Rafael, Diaz eta Porlier tar Juan, Lazi ta Gautier tar Luis, eta Bidalek espainitar erregearen aurka, len egin eben antzera ibiltarren.

Baleiteke goian aipatu dodazanak Espozegaz batera, eta Ritxard tar Bizente masoi talde frantzeza bideratzen ebanagaz, VIIIn Fernando erregea baitzeko ibili zirala, eta beartuz, Kadizeko konstituzioa sinatu egian.

1.820ko urtean Urtarrillaren 1ean espainitar lurraldeetan, Riego gudal komandantea matxinatu zan, Kadizen 1.812ko urtean aldarrikatu ziran jaurgu barri edo konstituzioaren legeak ostera ezarri egiezan, Minak aukerea eukinda frantziko atzerritik itzultzeko.

Eta Minak, lege orreik len aurkakoak lez euki ba ebazan be, oraingoan Santestebanen berak aldarrikatu ebazan Kadizetik agindu ziran konstituziozko lege orreik, bertan Nafarroako gudal nagusien kapitaiña ostera izendatuta.

Naparrak baiña, konstituzioaren aurkakoak ziran, eta Minak jakinda karlistaren matxintasuna antolatzen egoala, beren erritarren aurka ez egitearren, Galiziako agintaritzza eskatu eban.

1.821eko urtean emon eutsoen Galiziako agintaritzza, eta urte ortan, 16 urte eukezan liberal aberats baten alabarekin, de la Begatar Juana Mariagaz ezkondu zan.

1.821eko urtean, iraingarrizko⁽¹⁾ agerkai bat zabaldu eban espainitar jaurlintzaren aurka, eta onen erantzun bidez, agintaritzatik kendu ta Leonera atzerriratu eban.

1.822ko urtean VIIIn Fernandok deitu eutson, eta Kataluñara bialdu eban karlistaren aurka borrokatzen.

Kataluñan, garaipen andiak lortu ba ebazan, Kastellfullit'en egin ebana baiña, ez eukan arrazozko izenik.

Eta erria inguratzen egoala karlistak, iges egin eben erritarren laguntzarekin.

Minak jakinda zer egin eben erritarrak, etxe guztiak erretzeko agindua emon eban, eta zutik geratu zan orma zati baten iragarki au ipini eban: *“Erriok, eredu lez artu. Aberrien etsairik ez estapeldu”*⁽²⁾. NOREN ABERRIA ?.

Berak, Jakingo eban noren aberri edo ta espainitarren artean sortu ziran eritzi bietik, zeinien edo noren erriagaitik borrokatzen ibili zan ?.

Nik uste dot, goian aipatu dogunagaitik konturatuko zala baiña, bera Nafarroako errege ordezkotzaren billa ibili, eta espainitar gudal nagusiak Leonera atzerritu ebenean.

1.823ko urtearen Jorraillan, San Luisen 100.000 gudari semeak Angulemako aginduan Erdiugarte onetara aldatu ziranean, Mina euren aurka ez zalako ezer, Auñamendietan sasi eraso aldi bat egin eban, eta borrokatzen egoala, bere sasi gudarako eukan jakituri andia erakutsiz, erasoko alegin baten Frantzira sartuz, zalditik jausi ta oso larri zauritu zan.

Bartzelonara aldatu eben, eta Uriaren babesa antolatu eban karlistaren aurka.

VIIIn Fernando baiña, al osokerizko legean ostera erregetzazko aulkian ezarri zan lez, ez eban euki zentzurik aurrera egiteak, eta Monkay Mariskalari sinatu bear izan eutson menperatuen agiria, Ingalaterrara atzerriratuta.

Ingelesak, espainitar liberalaren askatasunezko gizandi lez artuta, Ingalaterran egon ziran VIIIn Fernandoren aurkako matxinatu guztien agintari biurtu zan, eta Frantziko errege aulkian,

(1) Iraingarrizko agerkai bat = un panfleto, o hoja informativo injuriosa contra el gobierno de España.

(2) Estapeldu, zaindu = proteger.

Orleanseko I Luis Felipe ezarri zanean, espainitarren lurraldeak indarka artu gure ebazan, Nafarroa, Aragon eta Kataluñatik sartuta.

1.830eko urtean Minak, Ingalaterra itzita, lenengo Parisera eta gero Baionara joan zan.

1.830eko urtean Azaroaren 18an, Baionan egoala alde bietatik zirikatuta, Berako Nafar errian sartu zan, eta errealistaren eraso gogorraz, Añamendiak ostera aldatu bear izan ebazan, Kanbo, Burdeos ta askenean, Frantziko agintarien begirapean, Parisen bizitzen geratuta.

1.832ko urtean iges egin eban ostera Ingalaterrara, bertatik itsas ontzi baten Kadizera joanda.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIen Fernando il zan, eta Maria Kristinak, liberalarentzat sarritan agindu ebazan parkametik alboratuta geratzen zan lez, Ingalaterrara atzerriratu zan barriro be.

1.834ko urtearen udegoian, ostera deitu eutsoen espainitar gortetik, Nafarroako errege ordezkoa izendatu ta Iparraldeko gudar nagusi lez, Zumalakarregiren aurka borrokatzeko, eta goian ikusi dogu zelako astiñaldiak artu ebazan.

1.835eko urtean Jorraillaren 13an Mina gaixorik eta oso nekatuta, bere agintaritzaren uztea eskatu eban.

1.835eko urtearen Urrillan Minak, Zumalakarregiren aurka artu ebazan astiñaldiak, zakelean euken minbiziagaz makal, eta bera gudar agintaritzatik baztertuta egonda, askatasunez ibili arren, Mendizabalen jaurkintza denboran, ostera deitzen dautso Maria Kristinak, karlistaren aurka egin dagien, eta gudar nagusi kapitain lez, Kataluñako guda lozteakaz arduratu eben.

1.835eko urtearen Abenduan, Kataluñan arresiz ondo babestuta egoan Santa Maria del Hort santutegia inguratu eban, eta kañoiakin lortu eban menperatzea.

Gudako ekitaldi onetan, Nogeras gudar nagusiak zirikituta il eban, goian aipatu dogun Kabrera karlista gudar nagusiaren ama.

Eta 1.836ko urtean Jorraillaren 1ean Minak, bere agintaritza guztiaren uzte edo yaregitea eskatu eban.

1.836ko urtean Abenduaren 14an bere borondatez, Frantzira atzerriratzeko bidea antolatzen egoan bitartean, 24ko Gabon egunaren gabaz il zan Espoz eta Illundai ta Minatar Franzizko au.

Esparteroren errege ordegotzan, Minaren emazte Begatar Juana Maria, bera baiño askoz gazteago izan zanai, Espoz ta Minako kondesa izendatu eben, eta IIn Isabelen ume zaintzarako laguntzaille egin eben.

Begatar Juana Maria arduratu zan, bere senar Minaren izena bizirik aurrera eroaten, 1.872ko urtean il zan arte.

Minaren izena, diputaduen lege etxean dago idatzita beste izen batzuen artean *“Askatasunezko Gizandi lez”*.

Bearrezkoa da emen itandu bat egitea:

Esposen edesti au ikusita, berak eta bere Nortasunaren gora beran, jakingo eban, zelako edo nungo ABERRITARRA izango ote zan ?.

54. *Jauregi ta Jauregitar Gaspar “Gipuzkoako Biriato” ta Artzaia”ren ez izenakaz ezagutu zana.*

1.791ko urtean Iraillaren 15ean Gipuzkoako lurraldean, Urretxuko Billarrean jaio zan.

1.807ko urtean Urrillaren 27an Fontainebleauan egin zan egiune bidetik, espainitarrek, Napoleoneri emon eutsoen baimena, bere gudalozteak, Erdiugarte ontatik aldatu zitezen, Portugalen aurka borrokatzeko, eta Portugal mendetu ondoren iru zatitan bananduta, bat, Godoy “bakezko Printzeentzat” izan zedin.

Espainitar ta Frantzezaren gudalozteak bereala mendetu eben Portugal, baiña prantzezak, egune orren aitzakiarekin, Bartzelona, Iruña ta Donostirekin geratu ziran.

1.808ko urtean Epaillaren 17an Aranjuezeko erritarrak, Godoyren aurka matxinatu ziran.

1.808ko urtean Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda, lortu eban, IVn Karlosek beren erregetza, bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan iztea.

Eta Murat prantzez gudal nagusia, bere gudalozteagaz Madrillen sartzen egoala, VIIIn Fernando madrillen sartu zan.

1.808ko urtean Loraillaren 2an gudal agintari batzuk guzti au ikusita, erritarrak alegindu ebazan matxinatu zitezen, eta or emon jakon asiera espainitarren askatasuneko gudari.

1.808ko urtean Loraillaren 2-5eko bitartean Muratek, VIIn Fernando alegindu eban Baionara joan zedin Napoleonegaz alkartzeko, eta Napoleonek VIIIn Fernando atxilotu ondoren, beartu eban, espainitarren erregetza bere aita IVn Karlosen eskuetan ostera itzi egian. Eta Napoleonek ori lortuta, IVn Karlos beartu eban bardin, bere anai Bonapartetar I Jose, espainitarren errege aulkian ezarri zedin.

1.810eko urtean Jauregitar Gasparrek maltzurkerizko gauza guzti oneik ikusita, beste sei lagunekin etxeokari agur eginda, eiz-izkillu zar bi, zizpa edo zizpolet bat⁽¹⁾, aiztamakil bi, eta artzai makil baten muturrean labana lotuta euki ebanagaz, asi ziran prantzezak zirikitzen sasi-gudari lez.

Gero ta aundiagotzen asi zan Gasparren taldea, eta Kantabro taldearen Azedo agintaria, Zumalakarregitar Tomas, eta Etxaluzetar Bernardorekin alkartu ziran. Zumalakarregi, sasi gudaren idazkari lez, eurakaz eroanda.

Jauregik, ezagutu gure ebazan Euskalerriko lurraldeetan basa-gerlari lez ibili ziran taldeak, eta bere lagunarekin Espoz ta Ilundaitar Minarengana joan zan.

Jauregik, prantzez kapitán bateri kendutako ezpata oker eder bat emon eutson Espozeri, eta onek Jauregiren ekintzakaz lilluratuta, bere gizonai agindu eutsen lerrokatu zitezen, Jauregiri esanda, gudari talde orreik ikustatzeko.

1.812ko urtean, Jáuregui, Bizkaiko lurraldeetatik ibili zan, frantzezak itsas ertzean euki ebazan kañoiak ezerezututen.

1.812ko urtearen Bagillan, itsas ertzea zaintzen ibili zan Douglas Ingeles gudal nagusiak, Jauregiri eskatu eutson laguntza, prantzezak Lekeitioko kai ingurutik botateko, Minarentzat, guda tresneriz beteta eroaten ebazan itsasontziak, kaian ustu al egiezan.

Jáuregui, Lekeitioko Uriaren inguruagaz egin zan, ta korbet ontzi batetik kañoi bat atara ta gaztelua ondo zigortu ondoren, bere kiptzekaz eraso eginda, lekuagaz geratuz gain, sei kañoi eta gaztelua zaintzen egon ziran 400 frantzez gudariekaz geratu zan.

Jáuregui, egun batzuk geroago oartuta, prantzezak berreun gudari atxilotuta eroaten ebazala Billafrankara, eta atxilotuta eroaten ebazanak euren tiroakaz zauritu ez zitezen, labanakaz erasotuz, askatu ebazan amalau izan ezik, gudari aiek, prantzezak il ebazalako borroka bitartean.

Jauregi, ogeitabat urtegaz ta iru urtean sasi gudan ibili ondoren, koronel izendatuta euki eben, Gaztelako gortekoak.

Iru bider zauritu eban Jauregi, lenengoa esku muturrean, eta beste zauri biak bularrean, bietatik bat, gero Zumalakarregitar Tomaseri anka osatzen ibili zan Telleriatar Franzizko *“Petrikillok”* osatuko eutsona.

1.813ko urtean Jauregik, Prantzez gudari, mezuaren eroan-ekarle bat arrapau eban, eta eroan ebazan mezuaren artean, Kaparelli gudal nagusiak Bonapartetar Joseri 25.000 gudari eskatzen eutson eskutitzagaz geratu zan, Kaparellik gudari orreik bear ebazala Espoz ta Mina Nafarroatik alden du gura izan ezkerro, esaten ebana.

(1) Zizpa edo zizpolet = pistola.

1.813ko urteko Dagonillan Jauregik, bigarrenez zaurituta egon zalako, ez zan egon San Marzialeko borrokan, nai ta bere mutillak, goresmeneko merezimenduak irabazi.

1.813ko urtean Azaroaren 5ean, Jauregi oraindiño guztiz osatu barik egoala, Bergarako Uria mendetu eban.

1.814ko urtean amaitu zan Napoleonen aurkako borroka, eta danak gogoratu arren VIIIn Fernando erregeak Jauregiri gudal nagusi egingo ebalta, onek sasi gudan ibili ziran guztiak saritu ondoren, ez eutson jaramonik egin Jauregiren merezimenduari, VIIIn Fernandok, Kadizeko konstituzioaren aldekoa zala jakin ebalako.

1.815eko urtean liberalak eraginda, gudal nagusien ixil-joko ta matxintasun ugari sortu ziran VIIIn Fernandoren al-osokerizko jaurkintzaren aurka, 1.812ko urtean Epaillaren 19an gudal nagusiak Kadizeko gortean atara ebezan konstituziozko legeak ezarri gura ebalako.

Lenengoa, Minaren aldarriketa, Jauregi beragaz bat eginda egoala; 1.815eko urtean Iraillaren 19an Koruñako Erteyo erritik, Diaz eta Parliertar Juanek egin ebena; Eta ostean Bidal ta Lazy gudal nagusiak egindakoa.

Ortik aurrera, erregearen al osokerizko aldekoak, Jauregiren atzean jarraikille ibilita, onek atzerrira joan bear izan eban.

1.820ko urtearen matxintasunean, Jauregi osteria itzuli zan, Angulemako dukearen agindupean egon ziran San Luisen 100.0000 seme gudarien aurka, sasi gudan borrokatzeko. Bere betiko basa-gerlariaren trebetasuna erakutsiz.

1.823ko urtean Giputz guda-talde mobilkor bat ipini eutsoen bere agindupean, eta Gipuzkoa ta Koruñatik borrokan ibili ondoren, Jáuregui menperatuz, bere guda taldeko agintariekaz batera, Frantzira atzerriratzeko aukerea emon eutsen, guda-atxillo lez.

Jauregi, Mina eta beste gudal nagusiak, Frantzian atzerriratuta egon ziranean, ainbat matxintasunezko azpi-joko asmatu ebezan, VIIIn Fernando, bere errege aulkitik kentzeko.

1.830eko urtearen Urrillan, Mina ta Jáuregui, erdiugarte edo peninsula onetan sartu ziran, Irun, Oiartzun eta Ermaniko erriaren mendiakaz geratuta, baiña euken aurkako eraso gogorra izan zan lez, osteria atzerriratu bear izan eben Frantzira.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIIn Fernando il zanean, espainitarren lurraldea, alderdi bitan bananduta geratu zan, liberalak Maria Kristinaren ordegoan *"Askatasuna eta Isabel erregeña"* ren ikurragaz, eta karlistak *"Jaungoikua, Aberria eta Foruen"* ikurragaz.

Liberalak, Jauregiri deitu eutsoen Gipuzkoaren gogoko taldea, bere agindupean artu egien, eta sarritan ikusi dogu Minagaz batera, Zumalakarregiren aurka.

1.834ko urtean Maria Kristinak bere garaipenaren merezimenduak ikusita, koronel baiño beste goragoko mailla bat (brigadier) izendatu eban.

1.840ko Uztaillan, 1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergarako saldukeritik ostean, liberalak garaipenduta, Jáuregui, Zelaiko Mariskala izendatuta euki eban.

1.844ko urtean Abenduaren 19an Gazteizen il zan, *"Artzaia"* ta Gipuzkoako *"Biriato"* ez izinakaz esagutzen zan Jauregi ta Jauregitar Gaspar au, 53 urte eukezala.

Gipuzkoako Aldundiak urte batzuk geroago, Billarrealeko eliz nagusian illobiratu ebazan bere azurrak, espainitarren aberritasunari egin eutsozan serbitzuagaitik.

Gudal-Nagusiak ta Europako diru zale aldekoak, Noren Aberri izenean Laterritu gura ote eben Aberri barri au ?. Ortik aurrera dauko Erdiugarte onek *espainitar Laterritasunaren izena*.

"Ez beti danik, eurak esaten daben lez. Espainitar katolikotasunezko guzurrezko izen ori sar-tzeko, eurak K.o. 325eko urteen gura ebenetik, asken edestiaren 1.498 odoljariozko urteak bear izan dabezalako"

Eta 1.893ko urtean Donostiko Udalak, kale bat ipini eban bere izenean.

55. *Fernandez ta Kordobatar Luis.*

1.798ko urtean Argentinako Buenos Airesen jaio zan.

1.820ko urtean Riegoren matxintasun aurka borrokatu eban.

Guda ikasketak egin ebazan eta 1.822ko urtean konstituzionalaren aurka borrokatu ondoren, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

Bertan egoala, Angulemaren gudalozteetan lerrokatu zan.

1.823ko urtean Angulemako dukearen agindupean egon ziran San Luisen 100.000 semeen gudariekaz etorri zan erdiugarte onetara.

Espainitarren zori gaiztoko amarkadan, Paris, Kopenage, Berlin ta Lisboatik ibili zan diplomazizko ardurakaz. Eta denborako inguru onetan, diruaren lapurketak edo eurakaz txarto ibiltearren, salakuntz gogorrek euki ebazan.

1.834ko urtean espainitarren ondorengo gudan, liberalaren alde lerrokatuta, Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztean, zelaiko mariskalaren guda nagusi arduratan ipini eban.

Gero, Euskalerriko guda nagusi jaurleri kapitaiña Nafarroako erregearen ordezkioagaz izendatuta, 1.835 eta 1.836ko urtetan Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztearen aginduan ipini eben eta Mendigorrian egin zan borroka latza irabazi ebalako, Mendigorriko markesaren izena emon eutsoen.

1.836ko urtean Madrilleko eguras-etxean sortu ziran eztabaidagaitik, agintaritzita itxita, Frantzira aldatu zan, eta bertan egoala, konstituzionalista ta karlistaren arteko irugarren alderdi bat antolatzen ibili zan.

1.840ko urtean, Lisboan il zan.

56. *Narbaez´tar Ramon Maria.*

1.800eko urtean, Granadako Loja erritxoan jaio zan.

VIIIn Fernando il zan arte, ez eban gura artu ezeren agintaritzarik.

1.834ko urtean liberalaren gudalozteetan lerrokatu zan, eta karlistaren aurkako borroka askotan ibili zan.

1.836ko urtean Majazeite erriko borrokan, Gomez ta Damas´tar Migel Santxori irabazi eutson, Mendigoria ta Arlabaneko borroketan be ospe aundia artuta.

1.838ko urterarte, política arloan Narbaezek, sortu ziran burudun edo zentzunezko jaurkintz alde ibili zalako Esparteroren aurka, onek euken agintaritzari uko egin bear izan eutson eta erbesteera joan bear izan eban.

1.843ko urtean neurritz-gaiñeko matxinatuen iraultzak bakeztuta, burutsu edo zentzundunezko jaurkintzaren itzulkeria eta guardia zibillaren antolaketak egin ebazan.

1.844ko urtean gobernuko aolkularitzaren lendakaria egin eben.

Eta 1.845eko urtean konstituzio barria aldarrikatu ebanean, espainitarren Andia eta Balenziako Dukearen izen aundiakaz saritu eban.

1.844-1.851ko urte bitartean Narbaezek jaurkitu eban Erdiugarte au, eta ipini eutsoen *“El Espadon de la Loja”* ko izena, eroan bear izan eban aurrerantzean.

Narbaez´tar onek, 1.848, 1.857, ta 1.866ko urtetan artu eban espainitarren jaurkintzazko lendakaritza.

1.854-1.856ko urte bi onen aurrerakuntzazko jaurkintza ostetik, beste politikazko aldi barri bat zabaldu zan 1.868ko urterarte: *“zentzundunkeriraren itzulera, gudari agintearen goraldia, jauntxukeriaren agerpena, ta jaurkintzan, Narbaezek O’Donnelekin aldizkatuta egin ebazan txandak”*.

1.865eko urtean Jorraillaren 10ean Narbaezek, jaurkintza gogortu eban, ta berak bultzatu eban San Danielen gabeko ertsalditasuna⁽¹⁾, aldizkarien gaitzespena⁽²⁾ eta diputaduaren atxilotasuna.

1.868an bera izan zan zentzudunen alderdiko lendakaria eta bere politikazko gogortasunak izan ziran errudun, sortu zan iraultzagaz II In Isabel erregetzatik kendu egien.

1.868an Madrillen il zan Narbaeztar Ramon Maria.

57. *Eta zerrenda lez aipatuko dodazenak.*

- *- Lorenzotar Manuel.
- *- Sole Figeras ta de Benet ta de Fiballertar Antonio (Sola). Nafarroako errege ordea izan zana.
- *- Sarsfiel´tar Pedro gudal nagusia.
- *- Karondolet, kristino edo liberal gudal nagusia,
- *- O´Doyle´tar Manuel,
- *- Osma´tar Joakin.
- *- Goienetxe.
- *- Iriarte.
- *- Gurrea.
- *- Karratala.
- *- Lord Edwar ta Granbille´tar Elliot.
- *- Latre.
- *- Klemente eta abar.

58. *Alde bietatik nortasun edo norkeriz ibili ziran gudal nagusi onein bidetik, berez jaiotzezko erri edo aberriaren “baitazko eritzietan”, ondore lez agertzen diran ulermenak.*

Karlista guda onen edestiko zeartasunak ikusita, eta berezko erregizartearen ulermenak si-kologiko arloaren azterbidetik ikertu ezker, nastezko eginkizun oneik daukien eragipen bidetik nortasuneko arrazoi edo eritzietan, oldozmen asko dira Nortasunaren ulermeneko “*Baitan*” eritxitu⁽³⁾ ta gero, okerrezko asmakuntzan agertzen diranak, iñork ez dakielako asken baten, zer edo zein dan egi, edo zentzunezko arrazoi bat.

Bai arrazoi orren sorburua ikertuz, norkeriaren sasi jainko aldekoak, guzurraren eragiteagaz⁽⁴⁾, berezko erregizartearen “*Baitak nastuta*”, munduko giza seme alaba guztiak Nortasunik bage, menpekotasun edo yopu batzango eritziagaz asmatu eben katoliko aberri barrien Late-ritasunetan, ardi talde lez beste norkeri baten biurtu gindezan, edesti guztiko alegin gogorretan dabizela.

Kontuan artu bear dogu, menderatzailetasunezko ulermen ori eritzi lez artzen badogu, sasi jainko mende zale indartsuen eskuetan geratzen garela, ta beti ibiliko giñakela *Aberriak aldatzen*, sasi jainko mende zale bakoitzak, eurak sasi jainkotasunezko norkerian daukien ikurraren ametsa, bete egin gura dabelako.

(1) San Danielen gabeko ertsalditasuna (ertsaldi) = presión, urgencia, represión, forzamiento.

(2) Gaitzespena = censura. (3) Eritxitu edo erstxitu = concienciar o tomar como bueno. (4) Guzurraren eragiteagaz = haciendo circular la mentira con eficacia, o el flujo de la mentira para coaccionar o premiar en interés de egoismos inconfesables, a conciencias a las que se las quiere confundir.

Mundu onen bizitza on bideratzeko, baleiteke asmakuntz orreïn artean, batzuk borondate onagaz egiten dabizela, zentzuzko edo berezko ekanduaren ustea galdu dabelako. **Baiña, Jaungoikuak Izadi oneri bereztuta ipini eutsoezan legearen aurka ?.**

Norkerizko okerkuntza orreik ain indartzu agertu orduko, munduko giza seme alabaren

Baitak, ulermenduta egon ziran, eta gagozanak ainbeste milla urte ariñagotik, konturatu bear giñake, ordua dala, daukagun gaiezko bizitza au, ez dala lur onetan beti irauteko, eta nai ta naiez, zor eskubidearen neurrizko epe labur bat daukiela, bizitz onetara agertu gintzazanetik zor-eskubideko ardura orreik ekanduz beteteko.

Orduan, zergaitik onartu ez, Jaungoikuak bereztu ebazan legeak, jakinda aberetasunezko Gizan, Lur, Aize ta Uraren ordezeko eskubideetan erperatuta gaudela ?.

Europa ta Munduan, norkeriaren sasi jainkotasunezko guzurr au, erromatarren kaizar ametsaren gandik datorrena da, eta maldaberan ekarten eban guzurra aurrera atarateko, K.o. laugarren gizaldian, Kristau sinismeneko erlijioagaz katoliko alderdikidetu, eta erromatar kaisertzagaz biak norkerizko legean baieztu ebenetik, guzurrezko lokartzartetan sartuta gatoz gaur arte.

Bai ariñautik be bai, baiña Napoleon eta Karlistadako gudak sortuta, zeintzuk izan ziran gaztearen ulermeneko baldintzak, Euskal ta Gaztelar edo espainitar gazteak guda nagusitasunera elduta, ainbat ezberdintasunaren ustezko eritzietan agertu zitezen ?:

a).- Norkeriaren maltzurtasuna garaipentzeko alegiñez, karlista guda orreitara eldu orduko, amaitu ezin dan odoljariozko gudan ekarri dogu edesti guztia, gizaren ulermeneko ikuspegia ongaizkatu ostean, gorriz margoztu egin ebana.

Orren esanaia, eskubidearen egia ta mendetasunezko guzurraren artean, borroka ugari ta laztzak ekarri doguzela da, berezko nortasuna eta norkerizko eritzi bi orreik zorro baten sartuta egon ezker, amaibako eztanda utsa baiño besterik ez dabelako sortzen.

b).- Yopuzko kolonigille denborak izanda, ta Frantziko iraultzaren bidetik, berezko errien nortasunezko eskubideak ezereztuteko, artu ziran erabagi gogor orreïn bidez, Europa edo Munduko asken guda nagusi bi orreik, ez ziran izan, opil gozo baten amaieran, gaiñean ipiniten jakon ginda baiño besterik, European indarrez, joputasunezko mendetasun ori ezarri, ta danok norkerizko erabagiaren agindupean bizi gindezan.

Egia da, Munduan egin diran borroka nagusiaren ostean, damu aundiak egon direla eritzi bien aldetik, egin diran sarraskiak ain gogorak izanda, danak billurtuta, nor guztien baitak garbitasuna eskatzen dauskuelako, eta atsekabetasunean errudun sendituz, Giza ta Berezko Erriaren eskubideak eskatu doguzelako.

Antza baiña, borroka guzti orreik ez dabe erabakitzen eta gitxiago argitzen ezer, atsekabetasun oiek aienatu edo suntsitu egiten diranean, diru ta on biziaren lilluratasunezko eragipen bidetik, oster joaten garalako norkerizko ekintzatar, eta danak jakin bear geunke, **“lapurren”** bizitza dala ori.

d).- Inguru begi zabal ori, begien aurrean eukinda, baten batek esango daust, zer egingo eban orduko nekazari gazte batek, bere onbeartasunezko ogibidea leen, alderatu ezin ebena egin, Napoleonen aurkako borrokan lerrokatu, eta au amaitu ostean bere ogibidea lortzeko, leen guda amaitu barik egon zana, ondorengo gudan oster lerrokatu baiño ?. Bai baituta geratzen zanean, etsai edo lagun taldean aurrera egin baiño, bizirik iraun gura ba eben ?.

Erabagi oneri zentzun apur bat emotearren, gure orduko gizarte osoa kontuan artu bear geunke, norkeriaren menperatzailegaitik indarrez kontrolatuta egonez gain, eurak egi lez aurkeztuten euskuezan guzurrezko arrazoien eragipenakaz nortasunean naastuz, gizartearen antolamendurako gaur lez, bananduta agertzen giñelako, jakintsu, gidari, maisu, lege gizon, emakumeen artean, erlijioaren gotzai, apaiz lekaide lekaime artetan eta gizarte maillatan.

Geiago izan giñan eta gara, bealdekoak garela esaten dauskuenai, Goiko Jainkoaren ekan-duzko zaletasunen mailla guztietan, baiña goikoak norkeriaren maltzurkeri bidez, guda tresneritik asita, bear dogun on guztia kontrolatzen dabe, eta bizitz oneitan oraiñarte, gaiak aurkeztu egiten dauskuzan aldakuntzaren kontrola daukenak, norkeriz jokatzeko sasi-irabazte osoa eukiten dabe.

Guzti au ikusita, Euskaldun gudal nagusi bi aurkeztuko dotzuedaz, ikusteko, eurak zelan erantzun eutsoen JAINKO seme lez euken BAITARI.

a).- Zumalakarregi ta Imaztar Tomas izan zan bat : *Onek ez ebalako euki bildurrik, Jainkoa ta Euskal Aberriko egiaren alde jokatzuz aurrera egiteko.*

Jakin ebalako zer jokatzzen zan an, eta borrokara eldu orduko irabazle urtetan eban, bere guda talde osoa Nortasunduta joaten zalako borrokara, naita etsai gudalozteak aundiagoak izan.

b).- Bestea, Espoz ta Illundai ta Mina´tar Franzizko, lenengo Napoleonen aurkako aldian: *“Garaipenduta urtetan ebalako ia borroka guztietatik, Euskaldunakaz Eusko Nortasunaren sinismenean borrokatzen ebalako”.*

“Beste gauza bat agertzen jakon, bere Aberriko Nortasunaren aurka, konstituzioaren atzerri-tar maltzurrekin borrokatzen ebanean”.

Len, bialtzen ebazan gudalozte aundi orreïn gudariak, borrokan ibili ziran atzerri-tar lurraldea ezagutu ez gain, ez ziralako euren Nortasunaren egizko lurraldeak babesten ibili.

Eta gudaloztearen agintariak egi lez esaten eutsezanak, gudariak ikusten ebenagaz geinetari-ko baitan ez ziralako egokitzen, ardura gitxigaz borrokatzen ebelako.

Bigarren, Espozek bere ogibidea aurrera eroatearren, jakinda atzerri-tarraz eban anaiaren aurkako borrokan ibili zala, bere baitaren lotsak minduta, espainitar gortekoari Nafarroan borrokatu barik, Akoruñara borrokatzen bialdu egiela eskatu ebanean.

A ta guzti, Espainako agintaritzak, Espoz ostera ekarri eban Euskalerrira, eurak ez ziralako gai izan Euskaldunak menperatzeko, eta atzerri-tarraz eban anaiaren aurka borrokatu zanean, nai ta Jauregi Artzaia esaten eutsoena ta beste Euskaldun batzuk lagun euki, emen zikindu ebazan ararte irabaziko ospe guztiak, bere ulermeneko baitan aitu ezinik asarratuta, Lekarozeko erri-tarraz bosgarrenka berezitu ta tiros ilda, erria erre, ta Karrera karlista gudal nagusiaren ama tiros ildako astokeriak egin ebazalako.

Egia da **JAINKOAK BEREZTU EGINEBAZAN LEGEAK** etsai asko ta aundiak dauke-zala, Europa ta Mundu au katolikotasunean batzangotzeko, berezko esku bidetik kanpo aberki-detu ebenetik, eta borroka orretan norkerizko zaleak euren egizko arrazoiakaz sortzen dabezan naste borrasteko lege bidetik, bizirik irauteko edo ta ogibidearen billa, ez gara arritu bear, gazteak alde baten edo bestean jokatzegaz, beartuta egiten ebalako.

Borrokan ibiltzen ziranean, alde bat edo besteen gazte gudariak arrapau egiten ebazanean, euren etsaien taldetan ipinten ebazalako borrokalari. Eta euren egoera ori, saltzailleak izan ote ziralako zan ?.

Gure Batzarraren jabetasunezko denboratan, askatasunean bizi bagiñan be, norkerizko maltzurtasunari alboratu ezinean, eta Euskalerriko Ego aldean gure jabetzak espainitar erregearen eskuetan ustegabez geratu ziranetik, berarekin egiune bidetik egiten genduzan itzarmen orreikaz, Euskaldunak Jaun-errege bikoteko naste orrekin, beti ibili gara anai arteko borrokan.

Orregaitik ez gara arritu bear, gizonak norkeriz edo ogi bidez beartuta bizirik irauteko, alango aldaketak egiten dabezenean.

Eta gitxiago apentza edo asperkunde lez artu, basakerietan ez gindezan ibili.

Bizitz onetan, gaur ikusten dogun lez, euskaldun guztien nortasunaren sinismeneko egoki-tasunak ez dira bardiñak.

Gure azkeneko 2.000 urteak edestiko ibilkeran Euskalerrri-lez daukaguzan eskubidearen etsaiak, guda-indarrez eta guzurrezko arrazoi-maltzurraz, euren zauriak egin dabezelako gure nortasunezko gorpuan.

Ortxe dago gure sinis-bidearen arrazoizko lana, gure euskal gorputzan nortasunezko zauriak sendatzeko.

Eta etsaiaren guzurrezko lege bidetik, gaur alderdikieretan banatuta aurkitzen ba gara be, euskal nortasunaren egia ipini bear dogu *“elburu”* danon ulermenetan, naste edo okerrezko zauri orreik osasundu egiezen.

Ni baiño euskal nortasun aundiagoko zarragoari, askotan entzun dausiet esaten : *“egiak askatuko zaitue”* eta berba orreik, euren berezko esanetan artu bear doguzenak dira.

Zumalakarregigaz ikusi dogun lez, euskaldunak, sinesmeneko elburu bidez alkartuko ba giñan, laster lortuko geunke Euskadiren Askatasuna.

Euskaldun bakotzak bere neurrizko ulermenetan, maite dogulako gure nortasunaren izatasunezko euskalerrria.

Gaiak, aurkezten dauskuezan aukeratan, norkerizko indar aundienetan dabiltzanak ibilita be, ez daukielako indarririk eta gitxiago zer egiñik, maitasunezko egiaren arrazoiagaz lortzen diranen aurka.

Gai bereztutako Mundu onetan, Jaungoikuak nortasundutako legeen aurka, ez dauelako aurkakorik, eta gitxiago eragille on-lez, euskal ardurak maitasunezko zentzunean erabilten badoguz.

Geiago: gaurko gizaldi onetan amiltegiaren aurrean kokatuta gagozan zorian egonda, zor-eskubideko arduretan guzurrez, sama edo kokoteraiño lokaztuta gagozelako aurrera egin ezinik, nai-ta nai-ez, gaia, giza ta errigizartearen eskubideak berrezkuratzeko denborak eldu diralako da, aurrera egin ezkeror norkeriaren maltzurrezko guzur onekin, guzurragaitik pozoituta il egingo garrelako, edo arrazoitik kanpo, aberetuta guztiz bizi bai beintzat.

Gizaren eragilletasunezko arduran beartuta, norkeriaren zentzun bako lapurkeritik urten bearrean aurkitzen gara, eta orren itzulpena : *“nortasunaren zentzun aundiko aldian kokatuta gagozela”* esan nai dau.

Euskalduntasunak, nortasunezko jabetasunik ez daukala esaten dabe espainitarrak.

Bai ?.

Atzean geratuko ote gara ?.

59. 1.835ean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik, edestiaren aria osterara artuta.

1.835eko urtean Bagillaren 26an Vn Karlos, Bilbora urbildu zan, gertatzen zana ikusteko, eta urrengo lau egunetan be irauñ eben, Bilbo bonbakaz erasotzen.

Vn Karlosek, Zumalakarregi il zanetik, Gonzalez ta Morenotar Bizente izendatu eban Euskalerrriko gudal buru nagusi lez.

1.835eko urtean Bagillaren 28an Frantziko errege Orleanseko Luis Felipek, espainitarren egiuneari erantzuteko, Argelian egon zan atzerritar lejiñoari peninsula onetara aldatu zedin agindu eutson.

Talde bietatik, Inglesarena izan zan andiena.

1.835eko urtean Bagillaren 30ean, Portugaleten egon ziran liberal kristino gudal nagusiak, Latre, Espartero, Klemente, Oraa ta Lekunberitar Martzeliño, La Hera eta beste batzuk batzartuta, espainitar goiko aginduari jaramon egin barik, eurak erabagi eben legor bidetik, Bilbon inguratuta egon ziranai, laguntzen joatea.

1.835eko urtean Uztaillaren 1ean Erasotar Bizente Franzizko karlistaren guda nagusiak, bilboko ingurutasunari izten dautso, Esparteroren agindupean agertu ziran Latre ta La Erasoren liberal guda indarrak, aundiak ziralako.

1.835eko urtean Uztaillaren 4an Fernandez de Kordobatar Luis, oraingoan Erdiugarte onen Iparraldeko liberalaren guda buru nagusi lez, Bilbon sartzan da.

1.835eko urtean Uztaillaren 16an, Erriberriko merindadean Arga ibaiaren ezker aldean dauan Mendigorriko erriaren Egoaldean, ararte ezagutu zan aundienetariko borroka egin zan, Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren agindupean egon ziran 36.000 gudariak, astindu gogorra emon eutsezelako Gonzalez ta Morenotar Bizenteen 18.000 gudari karlistai, Vn Karlos bera be estukuntza aundiekin iges eginda.

Zumalakarregiren eriotzetik asi eta borroka onen ostetik geiago, Karlistak maldaberan asi ziran, Vn Karlosen guda galdoztea banatzen asi zalako.

Karlosen gortekoek, Gonzalez ta Morenotar Bizente gura eben agintari lez, eta gudariak Erasotako Maroto guda nagusikoak lez.

Eta aurrerantz, sortutako naste onen bidetik amaituko zan Euskal Foru Legearen borroka.

Bai eta edozein gauza guztiaren gainetik, Euskal luraren babes eta Euskal gudariak euren lurretatik ez urtetea.

Ortik aurrera karlisten ekintzak, beste Euskal arazo barik, euren espainitar erara aldatu ziran *“Antziñatar Alderdia”* ren izen barria artuta (*Comuni3n Tradicionalista*), eta Euskal gudarien biotzak nai ta guda gogorak emendik aurrera euki, galduta lez ibili ziran, arik eta 1.839ko urtean Dagonillaren 31ko ondamenara eldu arte.

Erdiugarte onen Iparraldeko Liberalaren guda galdoztea une onetan, 120.000 gudarien kopurukoa izan zan, euren guda galdozte ordekin gainditu ebalako.

1.835eko urtean Dagonillaren 11n Marotok Arrigorriagan, Esparteroren guda galdozteari irabazten dautso.

1.835eko urtean Iraillaren 2an karlistak, La Puebla inguratu eben eta ortzik Gazteizen sartzeko Los Arkosen egin zan borroka, Fernandez de Kordobatar Luis liberalak irabazi eban, il asko egonda alde bietatik.

1.835eko urtearen Urrillan karlistak, Egitar Nazario egin eben Euskalerriko guda buru nagusia, Gonzalez ta Morenotar Bizenteen orde. Maroto ta Egitar Nazarioaren artean eztaibadak gogortzen asita.

1.835eko urtean Urrillaren 27an Urizarreko mendi katearen azpian, Gebaratar gazteluaren inguruan egin zan borrokan, il asko egon arren, ez eban irabazi iñork.

Karlistaren indarrak, Egitar Nazario bideratzen ebazan. Eta liberalaren indarrak Fernandez de Kordobatar Luis.

1.835eko urtean Azaroaren 15ean Kordobak, ostera sartzan da Zirauki ta Mañerun.

1.835eko urtean Abenduaren 10ean Fernandez de Kordobak, Arabako Ariñez errian asita, 250 kilometruetan 60 babes arresiakin, bata besteagaz lotuta egongo ziran esparru baten barruan, anbartu⁽¹⁾ gura ebazan karlisten indarrak, Gazteizek euki ebazan 20.000 gudariak apurka apurka, Auñamendi ta itsasorantza baztartzeko.

Baiña, guda bidez agertu ziran ekintzakaz, ezerezean geratu zan arresizko ingurutasun ori.

1.835eko urtean Abenduaren 17an Egitar Nazario karlista guda nagusiak, Getaria inguratzen dau.

1.836ko urtean Urtarrillaren 3an Kordobak lortu eban, txapelgorriak artuta eukezan Elorriaga, Arkante ta Ilarraza erriakaz geratzea, eta pozez beterik Arlabanerantza joan zan.

(1) Anbartu = acotar, delimitar, cercar, asediar, etc.

1.836ko urtean Urtarrillaren 16-17ko egunen artean, Arlabaneko borrokea egin zan.

Araba ta Gipuzkoa bitartean, Arlabango mendia dago, Egiatar Nazarioren agindupean ta Billarrealtar Brunoren laguntzagaz, karlistaren mende egoana, eta nabarmeneko leku ortatik karlistak aldentzeko, Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren gudal buru nagusia asi zan pres-tuten bere gudaloztea, Britaniaren ordezeko lejiua Lazy Ewansen agindupean, Frantziko lejiua Bernell'en aginduan, ta geratzen ziran beste batalloiak, Esparteroen aginduan ipinita.

Liberalak, banandutako iru lekutik, eraso egin eben, eta mendiaren bizkarrekin geratuz, 18ko egunean alde egin bear izan eben, euren lerroetan Espartero zaurituz gain, 600 il euki ebazalako, eta karlistak 300.

1.836ko urtean Loraillaren 5ean Donostiko borroka.

1.835eko urtearen askenetan asi ziran Sagaztibeltzaren karlistak, Donostia inguratzen.

Donostiarrak, Fernandez de Kordobatar Luiseri eskatu eutsoen guda indarrak, Donosti karlistatik babesteko, eta onek ingelesaren lejiua bialdu eutsoen.

1.836ko urtearen Loraillako 22an, Fernandez de Kordobatar Luis Esparteroren laguntzagaz, ostera saiatu ziran Egiatar Nazariok eta Billarrealtar Brunok artuta euki eben Arlabaneko mendi ori kentzen, baiña 26an ostera itxi bear izan eben alegiñ ori, euren lerroetan ikaragarritzko zarraskia euki ondoren, Narbaeztar Ramon Maria koronela, politikan gero Esparteroren aurkakoa izango zan gudal nagusia bertan zauritu zalako.

Iñork ez eban irabazi borroka au, alde bietan il asko egonda.

Egiatar Nazariok borroka orren ostean, Balmaseda ta Merkadilloko errien babesak ezereztuz, askatu ebazan an egon ziran *karlistak edo Comunion Tradicionalista* koak liberalaren menpetasunetik, eta Durangora joan zan bere gudalozteagaz.

Sagaztibeltzak, Egiatar Nazariori eskatu eutsozan guda indarrak, baiña goian ikusi dogun lez, Arlabaneko ingurutan 26rarte Fernandez de Kordobagaz borrokan ibilita, ezin eutson laguntzarik bialdu.

Ingelesak arrotuta, itsas ontziren kañoiakaz eraso eutsen karlistari, eta auek zabaldu bear izan eben, egiten egon ziran ingurutasuna. Iñok, ez eban irabazi borroka au, karlistak baiña, borroka onetan asko galdu eben, Sagaztibeltza Euskaldun gudal nagusia il ebelako.

Emen saiatu ziran, Tutor´tar Frantzizezak asmatu ebazan *“Karkazak”*⁽¹⁾ esaten eutsen lerkaitresneriai, muturrean bonbak eroaten ebazan lenengo misil edo bolanderakaz⁽²⁾.

1.836an Uztaillaren 2an Kordobak azkenean, Ondarribia berrezkuratzen saiatu zan, uts galanta eginda.

1.836ko urtean Uztaillaren 19an, Fernandez de Kordobatar Luisek, ainbeste alegin ustel eginda gero, beren agintaritzaren uztea eskatu eban.

1.836ko urtean Dagonillaren 12ko gauan Madrilleko eguras etxean⁽³⁾, eta Barrios´tar Manuelek, Mendizabal gudal nagusien itxurara⁽⁴⁾ antolatuta euki ebazan indarrak sargento ta lerroburu gudariakaz, Garzia´tar Ijinio, Gomez´tar Alejandro, eta Lukas´tar Juan sarjentoak bideratuta, matxinatu ziran, eta Maria Kristinaren gelatan sartuta, onek bildurrez, aurkeztu eutsezan agiriak siñatu ebazan, eta ekintza orregaz ostera aldarrikatzen da 1.812ko urtean Kadizen ezarri zan konstituzioa. Gure Euskalerrriaren Foru Aldudiko Euskal agintaritzak ezereztu ebazanak, eta euren konstituziozko legeak ezarri.

Matxintasun ostean, Maria Kristinak bere koiñatu Vn Karlosegaz berba egiten dau, eta guda orreri irten bide bat emoteko, bere alaba Isabel, Karlos´en ondorengo semeagaz ezkontzea aurkeztu eutson. Bai eta izen zerrenda bat, bere alabari laguntzen ibili ziranai parkamena emoteko.

(1) Karkazak = su-lerkai baten antzekoa. (2) Gaur, misil ugari jaurtitzeko dagozan tresnaren antzekoa. (3) Eguras-etxean = La Granja. (4) Biok izan ziran Kadiz-ekoak eta masoi-biltzar batekoak.

1.836ko urtean Dagonillaren 30erako Vn Karlosek, Maroto izendatuta euki eban Kataluñaiko guda nagusi lez, eta agintaritzaz artzeko, Nuriatik aldatu ebazan Auñamendiak.

Marotok, ainbeste bider galtzaille urten ondoren, guda lozteak Royo guda nagusiaren eskuetan itzi ebazan, bera Frantzira aldatuta, Vn Karloseri Kataluñaren egoera txarra adierazteko aitzakiagaz.

1.836ko urtean Urrillaren 5ean Maroto, Frantzira aldatu zan, eta Eynako erritxoan 21n oiñezko gudari talde azkarrak arrapatu ta Toursen atxilotuta, iges egitea lortu eban, Burdeosera elduta.

1.836ko urtean Urrillaren 15ean, beste errege agindu bategaz, 1.823ko konstituzioaren legeak ezartzen dabez erdiugarte onen lurralde guztietan, Portugalen izan ezik.

1.836ko urtean Urrillaren 28an Marotok, Vn Karlosen ministru Erro 'ri idazten dautso eskutitz bat esaten, zelan, bereala ipiniko zala bidean karlistaren guda ltegi nagusira joateko.

1.836ko urte onetan, karlistaren guda, Kataluña, Aragon eta batez be Vn Karlosen jaurkintza Euskalerrian kokatuta egoalako, emen egin ziran ia geieneko borrokaldiak, eta estukuntza au apur bat lazaitzeko, Vn Karlosek erdiugarte onen lurralde guztietatik zabaldu zitezen borrokak, gud-aldi edo zirikituzko ibilaldiak egiezan agindu eutsezan bere guda nagusiai, ta guztietatik luzeena ta aipatuena Gomez ta Damastar Migel Santxok egin ebena.

Bederatzi zirikituzko ibiladi egin ziran lenengo karlista borroka onetan:

1.834ko urtean lenengoa, Garziatar Basiliok egin ebena.

1.835eko urtean, Garziatar basiliok egin eban bigarrena.

1.835eko urtean, Gerge ta Yaniztar Juan Antoniok egin eban irugarrena.

1.836ko Bagillan, Garziatar Basiliok egin eban laugarrena.

1.836ko urtean Iraillaren 20an Gomez ta Damastar Migel Santxok egin eban seigarrena.

1.837ko urtean Loraillaren 24an Vn Karlos erregeak egin eban zirikituzko ibilaldia.

1.837ko urtean Uztaillaren 24an Zaratiegik egin eben zazpigarrena.

1.837-1.838ko urte bitartean, Garziatar Basiliok egin eben zortzigarrena.

1.839ko urtearen Epaillan Negrik egin eben bederatzigarrena.

Zirikituzko ibilaldi guzti oneik, azpiko berdintasun bat euki eben, ibili ziran Uri guztietatik, atzetik eukezala liberalaren guda lozteak, alegiñ guztiak ezerezean geldituta.

1.836ko urtean Iraillaren 20an, Gomez ta Damastar Migel Santxo karlista guda nagusia, Bagillako illean Amurriotik 2.700 gudari ta 180 zaldunekin urtenda, Asturias, Galizia, Andaluziatik agindu eutsoen zirikituzko ibilaldia egien, ta itzulkeran Mantxako Gaztelan San Kristobaleko ibarrean, Billarbledoko errira eldu zanean, liberalakaz aurkitu ondoren, beren bizitzako astindu aundiena artuta, Euskalerrira itzuli zan.

Gomez ta Damastar Migelek borroka orretan, 2.000 su izkillu, tiroiñ asko eta ia zaldunezko guztiak galdu ebazan, eta Andaluziatik, aginduz kanpo egin eben ibilbideagaitik epaituta, epaiketa ori luzatu egin zalako lenengo karlistaren guda amaituarde, ez eben artu iñungo zigorrik.

1.836ko urtean Urrillaren 15ean, erregearen agindu baten bidez, 1.823ko gobernuaren erabagia ezartzen da, gure Foru Legearen askatasunak barriro ezereztuko ebazanak.

1.836ko urtean Urrillaren 23an karlistak, bigarrenez inguratzen dabe Bilbo.

1.836ko urtean Azaroaren 2an liberalak, Portugaletetik urtenda, alegiñ zitalak egiten dabez Bilbon sartzeko.

1.836ko urtean Azaroaren 7an, Egiatar Nazariok, Desierto, Lutxana, Arriaga, Banderas, Kaputxinosen, San Mames eta Burtzeña artzen dauz.

1.836ko urtean Azaroaren 7-16 eguneko bitartean, Egiatar Nazarioaren indarrak, Esparteroenai atzeratuazo egiten dautse, arik eta 25ean Esparterok Lutxanakoa irabazi arte.

1.836ko urtean Azaroaren 14an Vn Karlosen Erro ministruak, Marotori Durangotik erantzun eutson: *Karlosen agindua zala, ta egon zan leku bertan irauñ egiala, arik eta Katalunian sortu ziran gauzak ta bera Frantziako lurraldera zergaitik aldatu zan, argitu arte.*

1.836ko urtean Abenduaren 1-25eguneko bitartean, liberalak Espoteroren agindupean, Potugaleteko gudaletzetatik asi ta Bilbo bigarreneko inguratuaren aldiz karlistatik askatu ebanean, esaten jako *“Lutxanako”* borroka zala.

Denboraldi txarragaitik, borroka luze ta latzak izan ziran oneik, liberalak 3.700 gudari eta karlistaren aldetik 2.300 illak eukinda. Askenez, Espoteroren agindupean egon ziran liberal gudaletzetak, Bilbon sartu ziran goizeko 9etan.

Espoterori borroka au irabazteagaitik, *“Lutxanako kondea”* izendatu eben.

1.836ko urtean Abenduaren 29an karlistak, Borbon ta Braganzatar Sebastian Gabriel errege semea izendatu eben guda buru nagusi lez, Billarrealtar Brunoren ordez.

1.837ko urtean Epaillaren 10-16 egun bitartean, Sebastianar Gabriel errege semeak, bere aginduan egon ziran karlistaren indarrakin, Lazy Ewans ingeles liberalaren indarrak, ainbat borroka latz bitartean menperatzen dauz Oriamendiko borroketan.

Emen il ziran gudari ta agintari ingelesak, Urgulleko mendian *“Ingelesaren Ortu Santuan”* illobiratuta dagoz.

1.837ko urtearen Jorrail onetan karlistak, Zumalakarregik 1.835eko urterarte lortu ebazan lurraldeetan baiño ez eben agintzen.

1.837ko urtearen Jorrailatik, Karlosen egoerak larrituten joan ziran, Europako diru etxetatik ebagi eutsezalako diru-iturriak, eta liberalak Bizkaia, Gipuzkoa ta Arabako trenbideai marra baten antzera, moztu egiten eutsezalako bideak, bere gudarien janari eta gudarako bear ebazan tresneribage geratzen zalako.

Eta aurkeztu jakon estatusnezko egoera larri onen arrazoia, Vn Karlosek antolatuz eta Lorailaren 15ean asita, espainitarren lurraldeetatik egingo eban erregearen gud-aldi edo zirikituzko ibillaldia izan zan, Iparraldeko lurragu indar gitxigaz itzi ebazalako.

1.837ko urtean Lorailaren 15ean asi zan antolakuntza onegaz, eta 16-17ko egunetan Vn Karlosek 12.000 gudariekin Arga ibaia aldatu, ta Aragoiko bidea artu ondoren, Kabreraren gudaletzetakaz bere indarrak aundiagotuz, 24an goizeko 10etan Ueskan egon ziran, bere itxaropenean gero Kataluña, Balenzia ta askenean Madrillen sartuta, In Isabel erregetzatik kendu, ta bera errege aulki orretan ezarrita, zirikitazunezko errege ibiltasun ori amaitutzat emoteko.

Vn Karlos Ueskan egonda, guda indarrak bere seme-ordearen Sebastianar Gabrielen agindupean euki ebazala, agertu ziran liberalaren indarrak, eta karlistak borrokan gogor asita, liberalaren Frantziko atzerritar lejiua ezereztu eben 1.000 liberal gudari il ta ainbat zaurituen artean amaituta borroka au karlistaren alde. Karlistak guztiz, 400 inguruko zauritu ta il eukiko ebezan borroka onetan.

Arrigarizkoa emen ikustea da, alde bat edo besteko gudariei oiuka limurkerizko berbak esan, eta zelan aldatzen ziran gudaletzetak batetik bestera, bai atxilotuta geratzen ziran gudariak be, len euren gudaletzetak ziranaren aurka, zelan borrokatzen ziran.

Euskalerra ta Kataluñan izan ezik, zalantzazko gauza oneik sortu zitezten, aldaketako ekintza oneik ez dabe esango, nor beren eritziz gain, espainitarren gudari artean, inork ez ebalakin nun egoan arrazoia?

Vn Karlosek, Ueskako borroka onen ostetik, eliz-trozel edo zerupean sartu eben eleizara, eta *“Te Deuma”* abestuta Barbastorantza urten eban.

Argi ikusten da emen, jakinen artean, iru eritzi ezberdiñ egon zirala borroka onetan:

–Espainitar Liberalaren konstituzio barriagaz: “Eleiz katoliko Aberkidesatunean Laterrituz batzangotzeko ibili ziranak”.

–Espainitar Erregeen al-osokerizko “katolikoan aberkidesatunera oraindiño eldu barik, Erregearen katolikotasunezko al-osokerien alde, Batikanokoakin ibili ziranak”.

–Eta nai Katolikuen Aita Santuagaz, Aita nagusi lez artuta egon zirala oldoztu arren: “Berezko erri-gizartearen aberkuntz alde egon ziran Katalan, Euskaldun, eta Frantzez. Apaiz, Lekaide, ta Lekaimeak”.

Euren ustez, Eleiz bat izan arren: “Iruetik nungo eleizari sinistu?”.

Argi dago eleiztar eritzi bi, guzurreakoak dirala, eta Goiko Jaungoikuak bereztu ebazan legeakaz ibiltzen ziranak, ibili zirala zuzenezko bidetik. Euren azturaren bidetz lortu eben jendekuntzan, Nortasun-

dutako izkuntzagaz antolatu ziralako, Izadi onetatik zentzuz edo betik-gora egiten diran gauzak Jaungoikuaren legeari begira bizitzeko.

Katolikotasunean Aberkide-tuz batzangotzko zale oneik, ez ote dabe arrazoi naikoa eukingo, jakin egien, Berezko edo Benetako Eleiz-Kampo dabizela jokutzen ?.

1.837ko urtean Loraillaren 16an Vn Karlosek zirikitazunezko ibillaldi orregaz, bertoko indarrak murriztuta itxi ebalako, Espartero Oiartzunen sartzen da.

1.837ko urtean Loraillaren 17an Esparterok, Irun artzen dau.

1.837ko urtean Loraillaren 18an Esparterok, Ondarribi artzen dau.

1.837ko urtean Loraillaren 24an Esparterok, Ernanin sartu zan.

1.837ko urtean Lorailaren 24an Ueskan, Borbon eta Parmatar Sebastian Gabriel errege seme karlistagudal nagusiak, Iribarneri irabazten dautso, Iribarren liberal gudal nagusia bertan ilda.

1.837ko urtean Loraillaren 29an Esparterok, Andoain artzen dau.

Baiña alde biak emen geraldari bat egin bear izan eben, ainbeste borrokari eusteko diru ta janarien ezean agertuta, gudarien matxintasunak agertu ziralako

1.837ko urtean Bagillaren 2an, Sebastianar Gabriel karlistak bere gudalozteagaz, Oraatar Martzelinoren liberal indarrak menperatzen dauz Barbastron.

1.837ko urtean Bagillaren 4an eskozezak matxinatzen dira, eta Ernanin sartuta, matxintasun ori Ingeles ta espainitar gudalozteetan be zabaldu zan. Euskal Aldundiko indarretan bardin antzeko bat sortuta, gudarien artean, ezin ebalako janari, jantzi ta tresneriak banandu, bear ebezan neurrian.

1.837ko urtean Bagillaren 4an liberalaren jaurkintzazko ministruak antolatuta, beste azpikarizko antzezleri bat sartzen da karlistaren antzokian, Abinaretatar Eujenio, eta bera arduratuko zan Baionatik azpiko mezuetan, karlisten erabakiak, liberalen aldera bialtzen.

1.837ko urtean Bagillaren 28an liberalaren ustez, aurrerakuntzazko konstituzioa zana, aldarrikatzen dabe Bartzelonatik, bere mamian ez ebana ekarten beste gauzarik, 1.812ko urtean Kadizen egin ziran, menpetasunezko arau sorta orreik Fueroakaz eraberritu edo mozorrotuta agertu baiño.

Eta Konstituzio barri orren gudal aurrerakoiak esaten eutsienai, ortik aurrera asten dira Erdiugarte oneri, Portugal izan ezik, orokorrezko edo Laterrizko aberri edo espainitar nazioaren izenagaz deituten.

1.837ko urtean Uztaillaren 15ean Txibako borrokan, Oraatar Martzelino liberalaren indarrak, Sebastianar Gabriel, errege seme-ordearen agindupeko karlisten guda indarrak menperatu ebazan.

Karlistak, euren etzauntza edo karpapeko lotalditik urten ebenean, antolamenduzko prestakuntzan ardura gitxi edo antola-bagean asi ebelako eguna, Zinka ibaia aldatzen egon ziranean, estukuntzaren premiñagaz kañoiak, ibaiaren beste aldean itxi, eta aurrera egin bear izan ebalako.

1.837ko urtean Dagonillaren 17an, Almansako guda taldea, ta Zurbanoren basa gerleri liberalak matxinatu ziran, eta Gazteizko Urian sartuta: Gonzaleztar Liborio orokorrezko agintari komandantea, Royotar Blan kapitaiña, Lopezatar Ramon gudal agintari nagusia bere agintariekaz, Kanotar Diego Aldundiaren orokorrezko diputadua, Arandiatar Manuel diputadua, eta Aldamatar Jose lege gizona, guber-nuko aldizkariaren zuzendaria izan zana, il ebazan.

Emen amaitu bear eben guda au, baiña iñork ez zan ausartu alangorik egiten.

1.837ko urtean Dagonillaren 24an Uranga karlista gudal nagusiak, Urizarreko mendi kateak menperatzen dauz, mendikate onek eukazan bideak, Errioxako erri ibilbidearen

ardatzak izan da, garrantzi andikoak ziralako.

1.837ko urtean Dagonillaren 24an “Villar de los Navarros” errioxoan, Borbon eta Braganzatar Sebastian Gabrielen indarrak, Buerensen liberal indarrak menperatzen dauz.

1.837ko urtean Dagonillaren 26an Iruñan, Uriaren babes liberal gudariak matxinatzen dira, Sarsfieldtar Pedro ta Mendibil gudal nagusiak ilda.

1.837ko urtean Iraillaren 12an erregearen zirikituzko ibillaldia Madrillera eldu zan, baiña baleiteke Espartero urbil egoalako, edo ta Maria Kristinak len, Vn Karlosekin egiune baten billa ibilita, ta orain ez ebalako orren bearrik, Vn Karlosek Iraillaren 14an, Madrilleko erria ganora barik iztea, eta 1.837ko Urrillan Euskalerria itzulita, zirikituzko ibilbide ori amaitutzat emon eban.

Karlista gudariak, ondamen lez artu eban ekintza au, eta erritar ta nai gudari artean, eztaibadak sortu ba ziran be, danak, itxitasunera bideratuta geratu ziran, guda amaitu arte.

60. 1.837ko urtean Iraillaren 14an Andoaingo borroka.

1.837ko urtean Iraillaren 12an Vn Karlos, Madrilleko ateetan zirikituzko ibillaldian egoala, O'Donnellek Donostitik urten da, Ernani ta Urnieta erasotu ebazan, karlistak Orio ibaia aldatuta, Andoainen ingurura joateko.

Liberal indarraren aurrerakuntzan, ingelesaren ordezeko lejiñoak, 120 baserri baiño geiago erre ebezan.

1.837ko urtean Iraillaren 9 eta 13garren egun bitartean, talde biak ibili ziran bata besteari zaintzen, eta karlistaren Uranga gudal nagusia oartuta, Nafarroatik urten eban bere gualdozteba babesteko.

1.837ko urtean Iraillaren 14an Noainen borrokatu ziran, eta borroka orreitan sarraski aundia egon bazan be, andiagotu egin zan, baserriarrak karlista gudariekin nastean, inglesak ilten asi ziran orduan. O'Donnell bera be, ozta ozta iges eginda.

1.837ko urtean Urrillaren 25ean Vn Karlosek, Artzeniegako aldarrikapenagaz amaitu eban zirikituzko ibillaldi ori, eta bere alde egon ziran jakintsuen artean, artegatasun edo giro-txarrean geratu ziran.

Geiago artegatuko ziran, Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak Artzeniegako espetxean atxilotu ebazanean, Kabañas, Karlosen guda-ministrua agintaritzatik kendu, Billar gudal nagusia erbesteratu, Morenatar Gonzalez orokorrezko gualdoztearen buruzko agintaritzatik kendu, eta Borbon ta Parmatar Sebastian Gabriel erregearen seme ordea baztartuta, euren ordezkari Negri tar kondea, Granadako dukea, eta Etxebarriatar Juan apaiza ipini ebazanean agintari.

Erregearen zirikitazuneko ibilbide orreik, gudal agintari nagusien artean, ez eban sortu edo zabaldu: *“banaketak, iskanbillak eta bekaizkeriak baiño besterik ez”*, gero 1.839ko urtean Marotoren saldukeriagaz, Puy eleizaren ostean, bost gudal nagusien tirok ilketetan amaituko zana.

1.837ko urtean Urrillaren 28an Espoterok Bribieskatik, espainitar gortekoai jakin arazian ipini eutsen, gudarien egoera txarra zala, diru, janari eta jantzirik ez ebalako euki, Ebroko Miranda errian geratuta.

Eta gudarien artean zuzentasuneko araupea ezarri eban, 30eko egunean Zeballos eta

Eskalera gudal nagusien ilketan, kide izan ziren artean, 10 gudari artu, ta tirok il ebazanean.

Egun batzuk geroago Iruñan, Sarsfield gudal nagusia il ebelako, ordain edo mendekaldi lez, Iriartetar Leon koronela, Barrikat tar Pablo komandantea, eta beste 8 sarjentu tirok il ebazan, Nafarroako askatasuna aldarrikatzen alegindu ziran aitzakiarekin.

1.837ko Azaroan Muñagorri bere *“Bake ta Foruen”* asmoak aurkezten, espainitar gobernuko lendarikari Bardaji Azararengana joan zan Madrillera, eta onartu ondoren, Bardajik, lauerleko milloi baten saria emon eutson, asmo ori aurrera eroateko.

1.838ko urtean Urtarrillaren 26an Cabrera ta Griñotar Ramon karlista gudal Nagusiak, ostera berezkiatzen dabe Morella, Portillotar Bruno liberal jaurlarien eskuetatik.

1.838ko urtearen asi onetan, Menkos liberal gudu nagusiak, bideak zabaldu eutsozan Muñagorri, Toreno kondeak ezagutu egian bere *“Foru ta Bakezko”* asmo ori.

1.838ko urtean Otsaillaren 3an errege agindu batek, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak lengoratu egiten dauz. Amarrukeria edo azpiko joko bat baiño besterik ez zana izan, Euskalerrian egoan gizarteko naste borratea, bertakoak konpondu egiezan⁽¹⁾. Eurak, munduko indar eta denbora gustia euki ebalako, fazizta mendeku orreik ezartzeko gure Euskalerrian.

1.838ko urtean Jorraillaren 18an Muñagorri Berastegitik, Giputz eta Nafartarrentzat bere *“Bake ta Foruen”* aldarrikapena egiten dau, Euskaldun Foruak Vn Karlosen ondorengo inguruetatik banandu egiezan, eta agintari barri mendean, Euskal Foruak zaindu zitezten.

Muñagorrien aldirikapen onek, urduritu ebazan karlistak eta liberalak, bere nastezko mezu orrek, karlistarengandik aldentea eskatzen ebalako, eta liberalai, eurak ezereztu gure ebazan Euskal Foruak, eukezan Lege Zarreko izatasunean iztea, eskatzen eutselako.

(1) Euskaldunak konpondu egiezan = eta emen beartu genduzan izkilluaren keifnuakaz, gure diruen zuzenbideak konpontzen. Gero dirubide orretatik 1.873ko urtean izkillu indarrez beartu euskuen CONCIERTO ECONÓMICO ori EGITEN.

Muñagorri liberala izan zan, eta Euskaldunai eskeini euskun *“Bake ta Foru”* ori, nastezko sare-arteke txebera bat baiño ez zan izan, guda amaituta, bera bere aberasteko aukeran aurrera egiteko, ta Euskaldunak ezereen aukera barik, espainitar menperatzailleekin konpondu gindezan.

Dana dala, Euskaldunentzat biak izan ziran sare-arteke txebera aundiak, Europako liberalagaitik, bereztasunezko gizartearen eskubide guztiak ezereztuteko, erabakia artuta egon zalako, eta eurak, ezereen eragozpenik bage, Erroma-Godo kaisar diruaren arauzko beartasunagaz, bai ta, diru ta eginkizun orren jabetza katoliko erlijioaren dojmakin legeztu ondoren, Norkeriz katoliko aberkuntzan batzangotuz, sasi-jainkotasunez edo URREZKO-TXEKORRAREN GURTASUNEAN irauteko.

Ala gaur, besterik ikusten al da ?.

1.838ko urtean Loraillaren 7an, karlistaren gualozteetan matxinatzen asita, Uranga karlistaren gual nagusiak idatzi eban: *“Lizarrako 5º taldean, aurrerantza doaz matxintasunezko surmurrak, eta gudu alkarteari, ordaindu dagiotzezala zor jakiezan lan sariak eskatzen dautse, guald elkartea ilteko keinuian”*.

“Talde guztiak egora bardiñean dagoz eta Lizarrara etorri gura izan dabe, gauza berberaren ale-giñean. Naspildutasunezko ausardi oneik, seiko egunean asita datoz”.

1.838ko urtean Loraillaren 10ean Zaratiegi ta Elioren epaiketakaz batera Lizarran, guda alkarte batzen zan etxea, arrapaka saskildu eben matxinatuak.

1.838ko urte onetan, liberalaren gualozteak egon ziran errietan, urduritasun aundiak sortuta egon ziran, espainitar gobernuaren ordaindu eziña betikoa zalako, eta beste aldetik, liberalaren gual nagusiak indarkeriz, erriko Udalai sekula ez ebazan ordainduko diruak kentzen eutsezelako, gudarien janari ta sariak ordaintzeko. O'Donnel, Donostiko liberal agintari gogor edo sutsuai, tiros ilko ebela keñiatuz.

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge gual nagusiaren utsegite ta gualoztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek, Marotori deitzea erabagi eban.

Eta 1.838an Loraillaren 15ean Karlosek, Marotori deitzen dautso etorteko.

1.838an Loraillaren 19an Esparterok, Muñagorrigaz adoz geratzeko egon naian, eta berari esateko, oraindiño ez zala aukerarik egon, bere *“Foru ta Bakezko”* asmoa ezartzeko.

Ernanin aldarrikapen bat zabaltzen dau: *“Liberalaren aldera joaten ziran karlista gual nagusi ta edozein lerroko gudarien maillakoak, begirunex artuko ebazala”* esaten ebana.

Eta emen bere guzur aundiena: *“Euskalerriko Foruak begirune aundiekin zainduko ebazala”*.

Zelan zaindu edo babestu gure Foru Legeak, 1.836an Dagonillaren 13an, Madrilleko eguras etxean sarjentoren matxinadakin, euren legez ezereztuta egon ba ziran.

1.838an Loraillaren 21ean karlisten matxintasunak, Oñate ta Andoainera zabaltzen dira, gual alkar-te ta gobernuko *“ojalateruen”* aurka.

Emen gauza bat argitu bear dogu baiña, Vn Karlosen gobernuko gotzain eta ministruak, *“ojalateruek”* esaten eutsenai, ez eutsela emoten garrantzi aundirik, gudariak egiten eban lanari, euren eritzizko Jainkoak, garaipenakaz sarituko ebazalakoan. Bai ?.

1.838ko urtearen Lorail onetan Baionan, Euskalerriko lurralde bakotzatik, ordezkarri bat eukiko eban batzar bat antolatu zan, Gonzalez ta Arnaotar Bizenteen lendakaritzapean: Araba'tik Alamedako marka, Bizkaitik Uhagontar Paskual, Gipuzkoatik Billafuerteseke kondea, eta Nafarroatik Bidartegaz osotuten zana.

Eta batzar onen ariak izango ziran Muñagorrik erabiliko ebazanak, karlistaren aldean nastualdi edo matxintasunak sortu zitezten. Liberalak, 1.839ko Urtarrillan Muñagorri alboratuta ezereztu ebena, espainitarak *“Forubageko Bake Gizona”* ta azpikari trebeagoa aurkitu ebela, Abinaretagaz.

1.838ko urtean Bagillaren 20tik 22ra, Urizarreko mendikateetan⁽¹⁾ Espartero liberalak, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio karlista gual buru nagusiaren indarrak menperatzen dauz, eta Bagillaren 25ean Vn Karlosek, Gerge karlisten gual nagusia agintaritzatik kenduta, Maroto izendatu eban.

Emen banandu ziran Karlistak, sortu ziran alde bi onein erdian, gorroto edo ezin ikus aundiak sortuta.

Elio, Zaratiegi, Gomez, Urbiztondo, Billarreal, Ramirez ta Igeritegitar⁽²⁾ Aita Zirillo, Erro eta Borbon ta Parmatar Sebastian errege semea egon ziran Marotoren alde.

(1)Urizarreko mendi-kateetan = cordillera de Peñacerrada. (2) Igeritegitar = de la Piscina.

Eta Marotoren aurka, Fray Domingo Leongo gotzaiña, Aita Larraga, Etxebarria, Arias Teijeiro, Labandero ta Montero, Garzia, Gerge, Moreno, Sanz eta Cabrera guda nagusiak.

Maroto ta Esparterok artu emon onak euki ebezan, Amerikaren kolonizaziozko gudatan alkar ibili ziralako, eta alde bietan salerosle ibiltzen zan Borgotako mandazai Etzaidetar Martin alde batetik, eta Bilboko ingeles guda itsasontziren abia-lekuan egon ziran Hay eta Wilson guda nagusien bitartez bestetik, asi ziran Maroto ta Esparteroren guda amaitzeko alkar izketak.

Iñork ez eban igarri, Marotok erabilten eban azpiko joko ori, Vn Karlosek, guda lozteen agintaritzan emon eutsen orduan, karlisten guda lozteak, ezin obeto era berritu ebazalako, gudariak len euki eben indar ta kementasunak aldatuz. Muñagorrik, bere bizi kondairan esan dogun lez, bigarren alegiñetan asiko zan emen, dana alperrik baiña, espainitarrek, bera baiño saltzaille obiagoa aurkitu ebelako.

Espainitarrentzat, Abinareta izan zan benetako gizon saltzaillea, **“Foru-bageko Bakea”** eskeintzen eutselako euri, eta len bere azpi joko aipatu barik geratu dan lez, salatari onek erabilten ebazan Baionatik bere azpiko-mezuak erabilteko: **“Donostiko Udaletxearen idazkari Alzatar Lorenzo, Gipuzkoako hurraldean politikako buru, Amilibiatar Eustasio, Ernanioko Alkate Goikoetxeatar Inazio, karlistaren hurraldean bizi zan Arizmenditar Mariano, ta olako agintea euki eben judas edo Euskal gizon saltzailleak erabilten ebazalako, espainitarrai bere ixil jokoan saltzaillezko mezu orreik emoteko”**.

1.838ko urtean Uztaillaren 15ean Espartero, Biana ta Lodosaren errien arteko, Labraza erritxoan sartzen da.

1.838ko urtean Uztaillaren 24tik Dagonillaren 24ra Morellan, Cabrera ta Griñotar Ramon karlistak, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño liberalari irabazten dautsoe.

1.838ko urtean Urrillaren 1ean Zaldubako⁽¹⁾ Maella erritxoan Cabrera ta Griñotar Ramonek, Pardiñas liberalaren guda nagusia menperatzen dau, liberalaren talde aundiena ezereztuta, Pardiñas bera be il eta geratu ziran 1.300 gudariak ozta ozta Kaspera elduta, euri laguntzera etorri ziran Albarezta Paskual koronela, eta Blaser ta San Martintar Anselmo Zigako markesari esker.

Kabreraren esanetan 3.115 gudari euren agintariez atxilotu ebazan.

1.839ko urte onetan Maroto ariñago ez bazan asi, Isabelen guda nagusiak azten da berba egiten.

1.839ko urtearen Urtarrillatik, Vn Karlos erregearen guda ltegian, Tejeiro guda nagusiaren aldekoak ziranak, eta Maroto zaleen artean asten dira, gero ta biziago izango ziran eztabaidak, marotistak Isabelen guda nagusiekin alkar berba egitekoaren aldekoak ziralako.

1.839ko urtean Urtarrillaren 15ean Marotok, Vn Karlosen ondoan azpikari lez ipini eban Garzia ta Orejon-tar Jose en bidez, Esparteroren bigarrenagaz berba egiten dau, alkar izketa orreitan urrengo mezuaren antolakuntzak ezarrita. Marotok ortik aurrera, Garzia ta Orejontar Jose bitartekoekin, Esparterogaz artu emon aundia euki eban.

1.839ko urtearen Otsailan, Maroto beren guda lozteagaz Tolosara joan da, Gartzia ta Sanz tar Pablo guda nagusia eta Ibañez idazkaria atxilotzeko agindua emon eban, gudariak matxinatu zitezen alegiñetan ibili ziralako. Uriz eta Karmona, Lizarrara bialdu ebazan, Garzia ta beste guda nagusiekaz alkatu zitezen, eta matxintasunezko alegiñ orreik ez ba ziran geratzen, danak tiroz ilko ebazan keiñada egin eutsen.

1.839ko urtean Otsailako 14an Maroto ta Esparterok, 1.839ko egunaren alkarrizketak antolatzen asi ziran.

1.839ko urtean Otsailaren 17an Maroto Lizarran sartu zan bere guda lozteakaz, eta gaba orretan, Garzia guda karlista nagusia arrapau eban Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839ko urtean Otsailaren 18an Marotok, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra eta Uriz intendentziako arduradun karlista guda nagusiak, Esparterogaz eukezan izketaldi orrekin aurkakoak ziralako, eta guda lozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz, bostak tiroz il egien agindua emon eban. Marotok, Vn Karloseri bere maltzurrezko joko ostonduteko, ez eutsen esan ezer ilketa orreik egiten joan zala, bestela epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori, jakin ebalako agirian geratuko zala, eta guda nagusiak aske itxiz gain, bere lagun aundia Esparterogaz, espainitarren alde saldukeriz ibili ziran egiten bakezko alegiñak, utsean geratu ziran, bere bizia be dangilizka geratzen zalako.

(1) Zalduba = antiguo nombre Euskeriko de Zaragoza.

Orregaitik, ta Vn Karlosen bigunkeriaren aurrean jauntxu agertzen zalako, gudal nagusi orreik judazkeriz, ezeren epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: *Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan bostak.*

Bertan dago burdiñezko oroipengari bat euren omenez. Eta Lizarrako illerrian, gudal nagusien arri-llobian dagoz euren gorpuak obiratuta. Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta lis'eko lora artean burni xafra bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergé, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedicán este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I.P."

1.839ko urtean Otsaillaren 20an Marotok, eskutitz bat bialdu eutsen Vn Karloseri, sortu ziran gerta-kizunak, beren erara ulertu egizan.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean, Vn Karlosek, azpi-suge edo saltzaille bat zala asarre bizian salatuz, kendu eban Maroto bere agintaritzatik. Maroto baiña, egoeraren nausia zan, eta Vn Karlos, ez zan gauza izan, Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Vn Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak askatu ondoren, Marotoren aurka egon ziran gudal nagusiak, Frantzira erbesteratu ebazan. Ortik aurrerako zalantzak, gogortzen asi ziran.

1.839ko urtean Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosen aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora bera ezer aitatu barik.

1.839ko urtean Epaillaren 3an Marotok, ostera salatzen dauz erbesteratuta egon ziran gudal nagusiak, eta berak jakin ez arren, bertan be eukezan bere aurka asita egon ziran gudal nagusiak. *Gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zan.*

1.839ko urtean Jorraillaren 17tik Loraillaren 13ko egun bitartean Kantabrian, Ramaleseko borrokea.

Maroto izan zan karlista guda-loztearen agintari, eta Liberal guda-loztearena Espartero.

Liberalaren indarrak, bikoiztu egiten ebazan gaiñetik karlistarena, eta laukotu egin ebazan Marotok, 17 batalloitik 8 bakarrik ibili ebazalako.

Geiago, Guardaminoko gaztelua babesten egon zan Karreras gudal nagusi karlistari, Marotok borrokan asi orduko, etsaimentzeko agindu eutsonean.

1.839ko urtean Jorraillaren 27an karlistentzat, ain garrantzi andikoak izan ziran Moro ta Mazo mendi bizkarrak, Marotok, aurkako alegin aundi barik itzi eutsezan liberalai.

Gero borrokatu ziran gogor euren gazteluak zaintzeko, baiña atzeratu bear izan eben kalte aundiekin, Guardaminoko kañoien babesera.

1.839ko urtean Loraillaren 8an Esparterok goizetik, Guardamino ta Ramaleseko gazteluak erasotzen dauz, arratsaldeko lenengo orduetan barrura sartuta, berton egon ziranak baiña, sua emon eta iges eginda, utzik aurkitu ebazan gaztelu orreik.

1.839ko urtean Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaiaren Karrantzako ibarrean euken aurkako borrokatik alde egin eben. Gudari karlistak bitartean, saldukeria egon zala asi ziran gogoratzen, eta gaur badakigu, egia zala gudari karlistak susmatzen ebana. A ta guzti borroka gogorra egin eben, alde bietatik 2.000 il egon ziralako, karlistentzat borroka au asko esan gura eban baiña, Guriezon, kañoitegiko labak galdu ziralako, eta Kantabriako bideak moztu.

1.839ko urtean Loraillaren 13an Guardaminoko gaztelua inguratuta geratu zan, eta Marotok, bertan egon zan Karreras zuzendariari aginduta, liberalari etsaimendu eutsen gaztelua, eukezan guda tresneri guztiagaz, eta liberalak arrapau ebazan gudariak karlisten aldera bialdu ebazan, baldintza onegaz: *Ezin ebela izkillurik artu, arik eta eurak eukezan gudari liberalakaz, beste ainsteko gudarien truke egin arte.* Karlistek Gordejuelan, galdu ebazan Molinareko gaztelu eta Guriezoko kañoigintzak. Espainitar gortekoak Esparterori, garaipenezko ekintza onen guztiagaitik *"Garaipeneko Dukea"*⁽¹⁾ izendatu eban.

1.839ko urtean Loraillaren 19an Muñagorrik, Auñamendiak aldatuta, Urdaxeko gazteluagaz jabetzen da denboraldi baten.

(1) "Garaipeneko Dukea" = Duque de la Vitoria" Espartero.

1.839ko urtean Loraillaren 22an Maroto, antolaketak egiten asi zan, Frantziako gobernuek, artekari-tzazko ardurak artu egiazan gudozte bien artean, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, ingelesen billa asi zan. Uztaillaren 20an Lord Hay'ekin lortuta artekaritza ori.

1.839ko urtean Loraillaren 29an Espartero Balmasedan sartzen da.

Argi dago emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zirala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek bere guda-lozteetan indar aundia eukela ikusita, eta ainbeste urte borrokazko alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebalako bere barnean.

1.839ko urtean Bagillaren 28an, Luis Felipe erregearen izenean, Soult Frantzez mariskala ipini eben artekari lez, Vn Karlos eta bere emazte Beirako Dukea, espainitar erregetzari ukatuz, eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi zitezen, eta eurak uzte au ez ba eben onartzen, espainitar kondea ta Kabrera gudal nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

Beste iru txatal be euki eban agiri onek:

a) Maria Kristina erbesteratu, eta bere alaba II In Isabel Karlosen seme nagusiagaz ezkondata, espainitar errege zitezen.

b) Euskalerriko Foru Legeak, 1.830aren urte orduko, euki ebazan jabetasunean beti lez itxi.

d) Eta gudari karlistai euren maillakin, espainitar gudozteetan lerrokatzeko almena emoten ebana.

Elkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez eben euki aurrerakuntzarik, Espartero lenengo, eta espainitar gortekoak, Euskalerraren menpetasun atzean ibili zirako.

Eta egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik alan gertatu zan, indarkeriaren keiñuagaz eta guzur ta amarrukeri utsekin Esparterok, Euskalerrria menperatu ebalako.

Gaurko Euskaldunak, gaiñean daukagun indarrezko guzur aundi ori da, Europaren aurpegian egia aurkeztuta, argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi gura ba dogu.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Marotok, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay'k itsas untziren kapitaiñagaz berba egiten dau, Diego de Leon karlista gudal nagusiak, Ellioten ituna apurtu ebal aitzakiarekin, gudozte bien artean, Ingelesaren bitartekoa billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen dau, karlistai atzeratuazota.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an sortu zan Espartero ta Lord Hay'en arteko alkarrizketa, onek Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak.

Esparterok on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña Esparterok, espainitarren jaurkintzan aurkeztu eta gero esan eutson. Eta espainitar gortekoak, Karlosen gudozteak Isabelen ama Kristinaren agindupean geratzen ba ziran, erantzun da.

Alkarrizketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziran, eta Bera, Lezaka ta Urdaxen, Marotoren aurka matxinatu ziran.

1.839ko urtean Dagonillaren 19an Vn Karlos bera be salduta, Maroto bere agintaritzan legeztu egiten dau.

1.839ko urtean Dagonillaren 22an Espartero, Durangon sartzen da, eta alkarrizketak azten dira alde bietako gudal nagusien artean.

1.839ko urtean Dagonillaren 24an Maroto, liberalaren gudal nagusi Zabalagaz alkartzen da, Espartororekin berba egin gura ebal ta. Eta Marotok bere gudal nagusiekaz berba eginda, Vn Karloseri esan eutson zelako asmoak euki ebazan.

1.839ko urtean Dagonillaren 25ean, Elgetan erri agintari eta gudal nagusiekaz egin zan batzarrean egon zan Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariai lenengo gazteleraz, eta gero beste bateri aginduta euskerara itzuli egien, berba egin ebanean, Marotok gudariai keiñua eginda, gudariai Maroto ta pakea asi ziran aldarrikatzen, eta Vn Karlos laguntza barik ikusi zan ezkerero, Lekunberrirantza iges egin eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an, Abadiñoako San Antolin baselizaren izketaldian, euki eben lenengo ikusteia Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez eban siñatu gura, Maroto izan ezik.

Espainitar agiri oneik gure Lege Foruak baieztatzeko, euren menpeko zentzuan esaten ebana, espainitarren aberriko legearen adoztasunean etorten ba ziran baldintzagaz lotuta geratu ziran: *"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía"* esan gura ebana.

1.839ko urtean Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta, Marotok, parkamena eskatu eutsen Vn Karloseri, eta gudozloztearen prestakuntza agindu eban kristino gudozloztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari-taldearen gudo nagusiak ez eban onartu agindu ori, eta or erabagi zan gudaren amaiera.

1.839ko urtean Dagonillaren 28an Marotok, iñoren laguntza edo baimenik bage, de la Torretar Simon gudo nagusiarena izan ezik, ontzat artu eban Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebazala eskeintzagaz.

Baitzezko berba orrekaz, gure **“Foru Lege”** edo **“Lege Zarrak”** espainitar gortekoaren naikerizko borondatepean geratuta, Espartero bera izan zan lenengoa bere espateagaz, Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839ko urtean Iraillaren 3an Bizkaiko Aldundia, Elorrioren oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora joan zan, Aretxabala gudo nagusiaz Foruen gora beran berba egiteko.

1.839ko urtean Iraillaren 4an, Dalloko apaiza bere gudariakaz Poblaziñoko errian errendatu edo etsaimendu zan, Bergarako egiune derrigorrez onartuta.

1.839ko urtean Iraillaren 10ean, Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egiten dau, sasi gudan ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezten, garaitzaille gudo nagusi⁽¹⁾ **“Garaipeñaren Dukea”**⁽²⁾, espainitar jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo eraberritzeko.

1.839ko urtean Iraillaren 14an Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dau, eta Dantxarinatek oraindiño leial eukezan Araba ta Napar gudariekin, Auñamendiko mugatik Frantzira aldatu zan.

1.839ko urtean Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, Gebaratarren gaztelua errendatu edo etsaimendu zanean amaitu zan, Euskalerra ta karlistaren alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

Eta Katalanak izan ziran Karlosen ikurra aurrera eroan ebena, 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

1.839ko urtearen Urrillan, Euskalerra gudariz beteta itzi ondoren, Espartero 44.000 gudarigaz Zalduba edo Zaragoza ra joan zan, bere gudoaltea Mas de las Matasen ezarrita.

1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako “Foru Legeak” bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: **“Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía”**.

Eta beren bigarren idazkunean, gure **“Foruak, espainitar erreñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta”** esaten ebana.

1.840ko urtean Urrillaren 12an Esparterok, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, espainitarren jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera asiko dira zabaltzen, gure Euskal Lege Zarraren zauriak.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espainitarren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure **“Foru Pasaia”**⁽³⁾, ezereztuten dau, espainitarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841eko urtean Dagonillaren 16an espainitarren jaurkintzak, Nafarroako Aldundiren baimenagaz, 1.839an Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeren jaramonik egin barik, lotsagarritzko **“Ley Paccionada”** ezarri eban.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak, O'Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen Esparteroren aurka.

(1) Garaitzaille gudo nagusi = invicto general. (2) Espartero. (3) Euskaldunen legean Foru Pasaia = pase foral, por la cual los mandatos del señor si no eran acordes con nuestras Leyes Forales, se recibian pero no se cumplian.

Bere goiko kondairan esan doten lez, Muñagorri be ilda, eta Espartero garaipenduta, onek ez eban galdu, aurkeztu jakon aukerea, eta **1.841eko urtean Urtarrillaren 29an gure Foru Legeak** ezereztu ebazan.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, kristino gudaletzetan, guda buru nagusi lez, eta Marotoren etxeko kondea izendatu eben.

Marotoren saldukeria eta Esparteroren maltzurkeriak, lenengoetatik argi ikusten diranak dira.

61. *II In Isabel, 16 urte euki ebazanean.*



97ko ur-margoko laukia, isekari, "Borboiak billuzik" erakusten dauena.
Jakin degun, orduko denboran, zelan ikusten eben erritarrak Borboi'en senditasuna.
Eta II In Isabel ta bere senar, Borbo'tar Asiseko Frantzizko, eskumako argazkian.

Goian aipatu dogu, II In Isabelek umeetan ez ebalako euki azkuntza onik, bere ama naikoa euki ebalako bere maitaleekin.

Nai ikasketarako, Arguelles'tar Agustin irakasle nagusia lez; Bentosa'tar Jose Bizente orokorrezko irakasle; Fontela'tar Fernando eresi irakaslarari; Balldemosa ta Olozaga'tar Sebastián lege gizon aundiak euki arren.

Erljio, etxekotasunezko ikasketak, eta pianoa jotzen irakatsi eutsoen geien, politikako arloa ta edozein eratako umanismo edo elerti-ikasketak alboratuta.

Eta Irakasle oneik egon ziran Isabelekin, emakumezko kundetasunetan artu egiezan goi maillako trebetasunak:

Bentosa'tar Jose Bizente, bota ebena errege jauregitik, gauza astunak egin ebazalako; Fontela'tar Franzizko, Isabelen maitale lez ezagutu zana, Isabelek, II In karlos erregearen gurutzeagaz xingolatu ebena; eta Olozaga'tar Salustiano izan zan erregeña mintz-urratu ebana, ta maitekotasunezko trebetasunetan erperatu ebena.

II In Isabelek baeukan be, IXn Pio Aita Santaren baimenakin, Narbaez'tar guda nagusi jenerala, bere aitorle Klaret'tar Antonio Maria artx-apezpikua, ta sor Patronizinio lekaimeen aolkua, erlijiozko gauzaren gaiñetik, maitale bategaz ez zedin maite mindu, eurak aolkuratuz, maitale orreik jai lagunen artean auke-ratu egiezen.

62. *II In Isabelen ezkontza.*

1.846ko urtean II In Isabelek 16 urte euki ebazanean, espainitar gobernuak ezkontzea antolatu eutson, bere bi aldeetako leen maillako legusua zan Borbon ta Asis'tar Frantzizko Kadizeko dukeagaz. Mutillen aita Paulado Franzizko, VII In Fernandoren anaia zalako, eta bere ama, Bi Siziliako Borbon'tar Luisa Karlota, Maria Kristinaren aizta zalako.

II In Isabel'en ezkontza onegaz, nai ta seme alaba asko eukin, ezkontzaren leenengo egunetik, ez eban ezagutuko zorionik. Ortik aurrera bere bizitza, eten bageko jai bat izan zan, goizeko 5etan ogeratuz eta arratsaldeko 3retan jagi, bere gogoko maitale ugariekaz ibili ta gero.

Ezkon-gai edo senar-gai asko euki ebazan, European urdurik egon ziralako ezkontza orrek euki eban garantzi aundiagaz. Gauza bategaitik edo besteagaitik baiña, danak baztertu ziran, arik eta bere alde bieta-ko leen maillako legusua, Borbon'eko Asis'tar Frantzizko aurkeztu arte.

1.846ko urtean Urrillaren 10ean Madrillen ospatu zan euren ezkontza, errege jauregiaren jaur-alkiren gela aundian, II In Isabelek 16 urte eukazala. Bai egun orretan eta leku bardiñean, bere aizta Borbon'tar Luisa

Fernandaren ezkontza be, Orleans´tar Antonio Montpensier´eko dukea, Frantziko errege izan zan I Luis Felipe erregeen semearekin, IIn Isabelek, ez eban ikusten bere senarra begi onekin, idazle batzuk esaten daben lez, marixtu antzeko bat izan zalako. Gaiñera, alako aldikada baten, IIn Isabel berak esan eban: *“Zelako itxaropena eukiko ote eban bere senarra gaz, ezkontzako gauan, berak baiño aurrenezko-xerrak⁽¹⁾ eroaten ba ebazan?.*

Nai ta Borboi´tar Asis´eko Frantzizko onen denborako idazleak esan arren, ezkontzatik kanpoko seme alabak euki ebazala, eta ezagunak zirala berak euki ebazan maitale batzuk ezkontzatik kanpo. Bere bizi denboran, lagun min bat ezagutu jakon, Meneses´ta Antonio Ramon deituten zana.

Dana dala, IIn Isabel eta bere senar Borbon eta Asis´eko Frantzizko izenean, amabi alaba semeak euki zituzten, nai batzuk aur-galtze ta jaiο barri ildakoak euki:

-1.849ko urtean Lorairaren 20an *Luis Fernando* ilda jaiο zana. Seme au, Bendar markesaren semea izan zan.

-1.850ko urtean Uztaillaren 12n *Fernando Franzizko*, jaiο tai il zana. IIn Isabelen senar ezkontzako errege Asis ta Borbon´tar Franzizko semearen semea zana.

-1.851ko urtean Abenduaren 20an *Maria Isabel* Girgentiko kondesa eta Asturiaseko printzea arik eta XIIIn Alfonso jaiο zan arte. Eta *“Sudur-motz edo La Chata deitzen ebana”*

Ruiz ta Arana´tar Kapitaiñaren alaba izan zalako, Bi Siziliako Borbon´tar Kayetanogaz ezkondu zana, eta 1.931ko urtean Jorairaren 23an il zana.

-1.854ko Urtarrillaren 5ean *Maria Kristina*, jaiο ta egun bira il zana, Eskorialean illobiratu ebena. Iñok ez daki noren alaba izan zan.

-1.855eko urtean Azillaren 24an *Margarita* egun bat bakarrik bizi zana. Iñok be ez dakiena, noren alaba izan zan.

-1.856ko urtean Bagillaren 20an, ilda jaiο zan seme bat. Onen aita be, iñok ez ebena jakin nor zan.

-1.857ko urtean Azillaren 28an *Alfonso* Asturiaseko printzea, eta errege izango zana XIIIn Alfonso izenarekin, 1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan arte. Bere aita, guda injenieruen kapitaiña zan Puij ta Molto´tar Enrike izan zan, izen-gaizto lez *“Ollar Erregea”* deituten eutsoenai. Isabel bere ama, umea argitzeko egon zanean, bere osagille Oña ta del Korral´tar Tomas Eustakio´ri itandu eutson, ia neska edo mutilla zan, eta mutilla zala esan eutsolako, *“erregeen igarkuntzazko markesa”⁽²⁾* izendatu eban.

IIn Isabelek badauka beste esan bat be, bere seme XIIIn Alfonsogaz berbetan egon zanean, auxe esa eutsoenean : *“Bere sanetatik, ez zala ibiltzen beste Borboi odolik, berak eukena baiño”.*

-1.859ko urtean Abenduaren 26an, *Asis´tar Sorkunde Franzizka⁽³⁾*, 1.861eko Urrillaren 21ean il zana. IIn Isabel senarraren alaba zana.

-1.861eko urtean Bagillaren 4an *Berengela´tar Maria Pilar*, ezkondu bizi zana arik eta 1.879ko urtean Dagonillaren 5ean 18 urte eukezala il zan arte.

-1.862ko urtean Bagillaren 23an, *Maria de la Paz*, Gallierako dukesa, eta Babierako Luis Fernando-rekin ezkondu ta egon zana, arik eta 1.946ko urtean Abenduaren 4an il zan arte.

-1.964ko urtean Otsaillaren 12an *Maria Eulalia*, Gallierako dukesa, eta Orleans eta Borbon´tar Antoniorekin ezkondu ta, 1.958ko urtean Epaillaren 8rarte bizi zana.

-1.866ko urtean Urtarrillaren 24an, *Asis´tar Leopoldo Franzizko*, 1.866ko urtean Otsaillaren 14an il zana.

IIn Isabelen erregetza, espaintarrak edesti guztian euki dabe usteltasunezko jaurkintza lez erroldatu leikela *diño*. Kostako jako oraindiño baiña, gaurko *Rajoi´en* gobernuak daukan jaurkintzazko usteltasun mailla gaunditzen

Aldizkari onetan, leku geiago ez dogulako, amargarrenean asiko gara IIn Isabelen erregetzarekin.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.18ko urtean Urtarrillaren 10´ean.

(1) Xerrak = encajes, puntillas. (2) Marqués del real acierto. (3) Sorkunde Franzizka = María de la Concepción Francisca de Asis



Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org